

ITZULPEN ETA TERMINOLOGIAZKO ALDIZKARIA

senez

3

zenbakia

2 urtea

1985 abendua

SENEZ

Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria

4

II. urtea
3. zenbakia

Aldizkari honen erredakzio batzordea ez dator bat, derrigor, artikulugile bakoitzak bere lanetan azaltzen dituen iritziekin.

Itzultzaile Eskola

Portada: LAURA ESTEVE

ISBN: 84-7086-161-1

Depósito Legal: S.S. 116-86

Imprime: Itxaropena, S.A. - Errikobarra kalea, 2 - Zarautz

SENEZ

Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria

Erredakzio Batzordea:

Zuzendari:

Jesus M. Zabaleta (Itzultzaile Eskolako irakaslea)

Hizkuntz arduradun:

Aintzane Ibarzabal (Itzultzaile Eskolako irakaslea)

Batzordekideak:

Tere Barrenetxea (Elhuyarreko lankidea)

Gotzon Nazabal (UZEIko lankidea)

Andoni Sagarna (Elhuyar eta UZEIko lankidea)

Helbidea:

Itzultzaile Eskola

Lanbide Eskola

Barkaiztegirako bidea z/g

MARTUTENE - DONOSTIA

Tfnoa. 46 19 90

Itzultzaile Eskola

Aurkibidea

Sarrera

Gaiak

Administrazioa eta euskara: itzultzaileak eta arduradunak. <i>Andoni Sarriegi</i>	11
Hiztegi Tekniko-Berezituak. UZEIren Hiztegegintza. <i>Paulo Agirrebaltzategi</i>	31
Informazio irabazi eta galerak testu juridiko baten itzulpenean. Usurbill-ko erriyaren ordenantzak (1888). <i>J.M. Zabaleta</i>	53
Laburtzapena euskaraz. <i>Gotzon Egia</i>	73
Unesco albistaria eta euskal itzulpena. <i>Gordailuko taldea</i>	85
Itzulpen batzuren orpoz orpo. <i>J.M. Zabaleta</i>	95
Itzulpena eta EIMA programa. <i>Imanol Tapia</i>	111

Iruzkinak

Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea	119
Bibliografia	137
J. TUSON. Lingüística. Una introducción al estudio del lenguaje, con textos comentados y ejercicios. HAENSCH, G. - WOLF, L. - ETTINGER, S. - WERNER, R. La lexicografía. De la lingüística teórica a la lexicografía práctica. REINHOLD FREUDENSTEIN, JÜRGEN BENEKE and HELMUT PONISCH (eds.). Language Incorporated: Teaching Foreign Languages in Industry. ROTISLAV KOCOUREK. La Langue Française de la Technique et de la Science.	

Berri eta Albiste

Administrazioa euskaraz. <i>Aintzane Ibarzabal</i>	153
Literatur Gazeta. <i>Xabier Mendiguren</i>	157
Administrazioko itzultzaileentzat hobekuntza ikastaroa. <i>P. Iturrioz</i>	161
Rosalía de Castrok ez zuen merezi. <i>Joserra Garzia, Pello Zabaleta</i>	165
Literatur itzultzaileen prestaketarako proposamena Hegats-en. <i>J.M. Zabaleta</i>	169

"La traducción es hermosa t n solo si es fiel.  Es la pasi n de la fidelidad lo que hace al aut ntico traductor!"

"Hablo mal de ellos (itzultzaileengatik) y es injusto. Est n mal pagados, mal apreciados, maltratados y se les pide cosas poco compatibles: estar en todo momento a la altura del autor y, al mismo tiempo, estarle totalmente subordinados. Terrible. Sin embargo, son ellos los que nos permiten vivir en el espacio supranacional de la literatura mundial, son ellos los modestos constructores de Europa, de Occidente".

"El pensamiento com n europeo es la enorme obra de los traductores. Sin traductores no existir a Europa, no existir a la literatura mundial. Sin traductores yo no conocer a a Cervantes y usted no conocer a a Kafka. Los traductores son para Europa mil veces m s importantes que los diputados del Parlamento Europeo".

Milan Kundera (El Pa s, 15 eta 19-XII-85)

"Itzulpena, zehatza baldin bada, orduantxe da ederra. Zehaztasunerako grina da itzultzaile egiazkoa egiten duena!"

"Gaizki hitzegiten dut horiei buruz (itzultzaileengatik) eta ez da bidezkoa. Gaizki ordainduta daude, estimazio gutxian, gaizki trataturik, eta nekez elkar litezkeen gauzak eskatzen zaizkie: beti beti autorearen maila berean egon, baina aldi berean hari guztian menpekoturik egotea. Ikaragarria. Hala ere, ordea, horiek dira munduko literaturaren nazioz gaindiko espazioan bizitzeko modua egiten digutenak, Europaren, Mendebaldearen eraikitzaile apalak".

Europako pentsakera amankomuna itzultzaileen lan eskerda da. Itzultzailelerik gabe ez litzateke Europarik izango, ez litzateke izango munduko literaturarik. Itzultzailelerik gabe nik ez nuke Cervantes ezagutuko, eta zuk ez zenuke ezagutuko Kafkarik. Itzultzaileak mila bider garrantzia handiagokoak dira Europarentzat Europako Parlamentuko diputatuak baino".

Milan Kundera (El País, 15 eta 19-XII-85)

Itzulpena: J.M. Zabaleta

GAI AK

Administrazioa eta euskara: itzultzaileak eta arduradunak

Andoni Sarriegi Eskisabel

Ez naiz agian egokiena gai hau behar den sakontasunez eta zolitasunez tratatzeko, baina eskaini zaidan aukerari erantzun nahirik, nire 5 urteotako esperientziak erakutsi didana agertu nahi nizueke. Beste norbaitek edo norbaitzuk honen ondoren hoberik egiteko zerbituko balu, betetzat emango nuke lantxo honen helburua.

Bestalde, artikulua hau idaztean, ez dut uste gai honi dago-kion guztia eta gutxiagorik ere adieraziko dudarik, baina saiatuko naiz garrantzitsuentzat dudana bederen ukitzen. Aldez aurretik gainera, barkamena eskatu nahi nieke oroimen faltaz edo informazio mugapenez aipatu gabe gera daitezkeen ihardun eta lanen egile edo bultzatzaile izan direnei. Horrelakorik bada, datorrela berehala beraren berri ere. Eta beste gabe, jo dezadan harira.

1. Sarrera

Badakigu jakin, Euskal Herriko historian zehar, adminis-trazioa erdaren bidez landu dela, bai independentzia politikoa izan genuen garaietan eta areago oraindik dependentziapen bizi beharra izan denetan eta dugunotan. Gainera, inoiz euska-

raz zerbait egin bada, ez da noski izan administrazioa euskaraz lantzeagatik (orain arte bederen), erdararik ez zekiten euskaldunengana iristeagatik baizik. Ildo horretatik datozkigu adibidez 1887ko urriaren 10ean argitaratutako **Usurbill-ko erriyaren ordenanzak** eta horrelakoetan beti gertatu ohi den legez, ez dira jatorrizko idazkeradunak, itzulpena baino.

Litekeena da lehenago edo geroago ere, han eta hemen horrela moduzko argitarapen puntualak aurkitzea, baina ez ahaztu denak ere ez direla administrazioa euskaraz lantzeko egitasmoren baten barnekoak, gauzaño batzuren itzulpen soilak baizik eta itzulpen-teoriak nahiz azterketa diakronikoak egiteko oso interesgarriak diren arren, inoiz ere ez dagoela hartzerik administrazioa euskaraz ipintzen hasteko asmo eta bide bezala.

Eta 1936ra iristen gara. Urte horretako urriaren 7an Jose Antonio Agirre J.ak bere kargua zin egin ondoren, Euskal Herriko hiru herrialdeetatik (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik) altxamendu militarra aurrera zeramatenek okupatu gabe gelditzen zen lurraldean, Gobernu Autonomoa ezarri ahal izan zen "Eusko Jaurlaritza" izenarekin eta honen ardurapean, administrazioa euskaraz jartzeko ez denbora, ez oinarri, ez lasaitasun eta agian epe laburrerako asmorik (euskara oinarria izanik) ez bazen ere, laudagarria eta txalogarria da bederen, egoera zail eta latz hartan, ordura arte inon eman gabeko hedadura emanaz, euskararen presentzia agertzen hasi izana, nahiz eta berori ezinbestean itzulpen huts-hutsa izan eta beharbada ez hizkuntz eredurik proposagarrien eta aukerakoenean egina ere, orduko **Agintaritzaren Aldizkarian** ikus daitekeenez.

Honek ordea gutxi iraun zuen eta 1937ko ekainaz geroztik, gau ilunean murgildu zen egunsentiko argitasun hura. Baina mundu honetan betikorik ez denez, 1975ean Franco ere hil egin zen eta 1977an Preautonomi aldiari sartu ginen Euskal Herriko hiru probintzietan. "Eusko Kontseilu Nagusia" deitu zena sortu zen eta 1978-05-15ean beste ezer askorik ez bazen ere, bere **Aldizkari Ofiziala** euskarazko itzulpenarekin argitaratzen hasi zen. Itxurakeria gehiago zirudikeen gertaera honek ireki zuen garai berri baten hasiera. Gero, 1979an Estatu-tua sinatu eta bozkatu zen eta bertan euskararen ofizialkide-tasuna aldarrikatu. Eusko Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza osatu ziren hiru lurraldeotarako eta Udal-Hauteskundeak ere bai, urte askotan lehen aldiz herritarren ordezkariak egin

agintera iritsiz. Usariorik ezak ordea, euskara itzulpen maila soil-soilean planteiatzera eraman zituen kargudun berriok eta Administrazio munduan itzultzaileak jaiotzen hasi ziren.

2. Itzultzaileak Erakundeetan (Udaletan)

Une politiko honetan ere, nik dakidala bederen, ez zen inon ere egin "Administrazioa Euskaraz" planteiamendurik. Egia da, baita ere, eta esan beharra dago, ez prestakuntzarik eta ez gaitasunik zegoela horretarako, baina badaezpada ere inork ez zuen horrelakorik eta horretarako biderik planteiatu (eta gaur ere ez dakit benetan inork planteiatzen ote duen).

Orduan, berotasunaren arabera, inongo koordinaziorik gabe eta *euskara sartu behar zelako* (kasurik onenean eta nola, zertarako etab. gehiegi sakondu gabe) edo ikur gisa sartuz, itzultzaileen kontrataketa unibertsala hasi zen eta unibertsala badiot, ez diot bere hedaturarengatik zoritxarrez murriztegia suertatu da eta, modu, mota, era eta manera ugari eta bitxien bidez egin zelako baizik.

Kronologiaz badirudi Eusko Kontseilu Nagusian sartu zirela lehenengo itzultzaileak eta jarraian agian Diputazioen batetetan... Dena den, nik ez dut Udalez kanpoko Erakundeetako berri zehatzik eta Udaletara mugatuko naiz honi dagokionean.

Eta hara hor Basauri, lehenetasunaren postua ohore guztiz harturik. Lehendik itzultzaile postua Madrilera eskatua izaki, 1980an Administrazioritza isiltasunez postua sortu, deialdia egin, lehiaketa bidez ebatzi eta itzultzaile-funtzionaria kontratatu zuten. Hau ordea, ia ia salbuespena da gure Udal Txit Prestuen kontratatuzeko prozeduran. Hona hemen besteak beste zenbait euskara-enplegatu mota:

- Beren etxeetan aktak edo kideko gauzatxo batzu orduka ordainduta itzultzen dituzten pertsonak.
- Udaletxean beste lan batzutan ihardunez (mantenimendu lanetan, gai teknikoetan, ur-arduradun direnak, administrazioan beste gauza batzutan, etab.) euskara-lantxo batzu ere egiten dituztenak. Hauetako batzuk, gainera, egun erdiz bakarrik ari dira lanean, besteak egun osoz. Batzu, kontratatuak dira eta beste batzu, berriz, euskara ez den beste gairen batetako funtzionariak.

- Udaletxean egun osoz itzulpenak egiten ari direnak, baina besterik ezertxo ere egin gabe: itzuli eta itzuli eta kitto! Banaka batzu funtzionariak dira eta beste guztiak kontratatuak.
- Itzulpen-lanez gainera, Euskara-Batzordeko txostenak, aktak, erredakzio-lanak, kanpainak, etab. hots, euskarari dagokion guztiaz arduratzen direnak edo Euskara-Arduradunak. Bakarrik edo taldean lanean ari direnak. Bakarren batzu funtzionariak eta beste guztiak kontratatuak.
- Euskara-Arduradunak baita Euskara-Zerbitzu oso bateko buruak. Itzulpen mekanikoa horretarako dituzten beste pertsona batzuri utzirik, euskararen egitasmo, kanpaina, antolakuntza, ikasketa eta gainerakoz arduratzen direnak. Normalean Euskara-Batzorde baten menpean ari dira lanean eta lehiaketa bidez sartuak izan arren, ez dakit maila honetako funtzionaririk dagoen...
- Azkenik, inolako Zerbitzu, Batzorde, Itzultzaile, Arduradun eta besterik ez duten Udalak, hots, euskararako inor fitxatu ez dutenak. Hauetxek dira gehienak eta ugarietak. Jose Inazio Berasategik (Senez 1, 74. orr.) zioenez, 60 inguru ginen euskara-lanetan nolarebait ari ginenak eta beste 18ren bat postu zeuden une hartan betetzeke. Hiru probintzietan bederen 200 Udaletik gora dira, batzu-batzu txiki samarrak badira ere, horietatik apenas bat ere dago idazkari gabe...

3. Itzulpenak

1980 inguruan Udaletan sartzen hasi ginenean zegoen Administraziozko hizkuntz erabilera, sartu ginenon prestakuntza eta lanerako lanabesak kontutan harturik, ez zegoen noski itzulpenak egin beste erremediorik, bidea eginaren eginez urratu ahal izateko. Hori ukazina da, baina hori bera txarra izan arren, ez da okerre, beste hau baizik: inork ere ez zuela eta oraindik ere ez duela inon edo inondik esan, seinalatu, zehaztu eta markatu, zer zen edo den itzuli beharrekoa, zein inprimakiri heldu behar zitzaion edo zaion, zer zen edo den elebitan prestatu beharrekoa, zeintzu ziren edo diren lehentasunak, etab. (akta santuen itzulpena salbu), Orduan eta horren

ondorioz, bakoitzak izan dituen eta dituen denbora, itzultzeko paper pilen bolumena, inguruko lagapen, beste funtzionarien azalpen (ez bait dituzte nahi bezain azkar gauzak erakusten kasu guztietan), nor bere borondate eta ikuspegi nahiz ahalbide, informazio eta printzipioen arabera, aktez gainera, bestelako jakinerazpen, prozesu osoak bideratzeko modulatuak inprimaki-sortak, errotulazio, ziurtagiri, zergagiri, ordainagiri, prozedura ekonomikoko inprimaki, etab. itzultzen edo elebiduntzen saiatu gara eta saiatzen gara, organikoki inongo lotura, antolamendu, koordinazio eta besterik izan gabe. Gainera, ahal den guztia egin ondoren, orri elebidun horiek, erdara hutsez betetzen dituzte funtzionarioek kasurik gehienetan, salbuespen ohoregarriak salbu.

Guzti honetan izan dugun antolamendu bakarra, geure beharrak eraginik sortutako aldian-aldiko elkarrengatzea izan da, zenbait kasutan, geroago aipatuko ditudan erako hizkuntz arloko ikastaroren batzu izan direlarik eta bidenabar beste gaiok ere ukitu direlarik.

Bestalde, badira Udal batzu (eta beste Erakunde batzu ere bai) bi hizkuntzen bapatekotasun handiagoa eta bide batez lehen unean bederen behar dugun berdintasuna ere lortzeko, ordenadore instalazio egokiak prestatuta dituztenak. Beste batzuk, berriz, hainbeste aurreratu ez badute ere, idazmakina elektronikoko pantailadunak dituzte. Badira baita ere itzultzaileak zirriborroak eskuz idatzi eta makinatze-lanak beste batzuk egiten dizkietenak, nahiz eta urrienak izan zoritxarrez. Azkenik, Hispano Olivettiren Lexicon 80arekin dihardutenak ugarienak ote diren nago, bai zirriborroak, bai aurkeztekoak, bai dotoreak eta baita erdipurdikoak ere, denak makina berean egin beharrean aurkitzen direnak alegia.

Faktore guzti hauen arabera egiten da lana. Esate baterako, ez dago noski zenbait baldintzetan aktak diren bezalako erro-sarioak txukun-txukun eskuz itzuli, gero makinatu, osteratu bera akordioetan kopiatu etab. aritzerik, baldin eta nor bere mahaigaina paperezko babeldorre bihurtzea nahi ez bada behintzat. Itzulpen asko eta asko, bapatean egin beharra dago, makinan idatzi ahala eta zerbaitek ihes egiten badu, pinturaz ezabatu eta berridatzi ala atzetik nola hala konpondu beste biderik ez da gelditzen. Errepikatu beharrik gertatzen bada, egundoko denbora galera izaten da. Dagoen azpiegiturak bada, ez du gehiagotarako ematen eta laneko baldintzek, ekoizpena bera ere, guztiz eta osoro baldintzapetzen dute kasu hauetan.

Azkenaldi honetan, Foru-Diputazioek egindako Hazienda-Egitarrak direla bide, ordenadorez jaso dituzte Udal-bulegoak eta baita programa amankomunak ipini ere kontabilitatea berdintzeko etab. Gainera, enplegatuei ikastaroak eman dizkiete tresna horiekin lan egiten ikasteko. Hori dena, inprimaki elebidun (inoiz erdaldun) eta prozesu-testu erdaldunarekin martxan jarrita dago. Zer esanik ere ez, enplegatu gehienek (ia denek) erdara hutsez betetzen dituztela inprimaki elebidun horiek ere, datuz bete behar dituztenean. Diru-kontuetarako oso ongi prestatu da dena eta hori ondo dago eta beharrezkoa da. Euskararako ordea, orain artean bederen, ez da inongo hedakuntzarik egin ez eta programarik prestatu. Den dena Udal bakoitzaren gogo, egoera, nahimen eta kasketen baitan dago eta honek izugarri baldintzatzen du lanaren kalitatea eta baita kantitatea ere. Zerbait esateko adierazi baino ez, ezinbestekoa dela pantaila-sistemaren bat aurrekaldean izatea, horrela bapatean itzulpena egin ahal izateko. Maila pertsonalean arazo hori konpon lezakeen sistema hau bera ere ordea, ez litzateke nahikoa Administrazioari zabalkiro begirata eta elkarren arteko berdintasun minimoa lortzeko, kontabilitaterako egin dena egin beharko litzateke gutxienez ere, agian hiztegi-banku amankomun konektagarriren bat edo prestatutako hiztegi programak eskainiz. Ezin ulertuzkoa da ordenadoreen ondoan lanean aritzea eta zalantza guztiak hiztegi liburuetan kontsultatu beharra izatea. Egunen batetan iritsiko ahal da hau guztia ere euskaraz lan egiteko edo gutxienez ere euskalduntzeko.

4. Hizkuntz arazoak, ereduak, ikastaroak eta ihardunaldiak

1968an Euskaltzaindiak Ortografi arloko batasuna proposatu zuen. 1978an berraztertu eta gutxienezko zuzenketa batzurekin, lehen proposatua finkatuta gelditu zen hizkuntza idatzirako. Bienbitartean, deklinabidea eta aditza ere (funtsezkoena bederen) erabakita gelditu ziren. Geroztikako lehen erakunde politikoa osatu zenean (Eusko Kontseilu Nagusia) ordea, Euskal Herrian aspaldidanik izan den bi hizkuntz ereduaren arazoa plazaratu zen. Bata 1936ko aurreaio haren isladari jarraitzea nahi zutenena (zenbait aldaketa formal gorabehera), hauek,

botere politikoaren maila bat bederen, berreskuratze-bidean somatzen zuten eta. Bestea aldiz, 1964eko Euskal Idazleen Abiapuntutik Abiaturik, 1968ko Euskaltzaindiaren urratsei jarraiki, azkeneko 10-15 urtetako literaturan, testugintzan, ikerkuntzan, zientzietan eta Unibertsitate-mailan (UEU eta mintegiak) zerabiltena. Eusko Kontseilu Nagusiari berari izena proposatu eta jartzerakoan bertan nabaritu zen hau, Euskaltzaindiak egindako proposamena eta politiko boteretsuen erizpidea ez ziren bat etorri eta. Politikoen erizpidea nagusitu zitzaion erizpide linguistikoari, gure herrian hainbat aldiz gertatu den bezalaxe. Izenak izen ordea, EKN erakundeko itzultzaileek halere, **Aldizkari Ofizialaren** itzulpena egiterakoan, ordura arteko kulturgintzan hedatuena zen ereduak markatzen zuen bidea jarraitu zuten, nahiz eta hutsuneak, aldrebeskeriak eta beste izan, garai hartan ez zen harritzekoa eta (gaur ere batzu-batzutan...). Esan dudanaren lekuko dira 1978-5-15etik 1980-3-27ra arteko aleak, baina 1980-2-1eko aletik hasi zen zati batean bederen, beste ereduaren agerpena eta martxoko aletan, Euskaltzaindiak erabakita zeukan *martxoa* ipini ordez, *epailla* ipintzen du. Baina nabarmentze honen gailurra, azkeneko alea da, hots, 1980-3-27koa. Ale honetan, lehengo ohizko ereduari idatzitako gauza askoren ondoren, **Herri-Arduralaritzaren Eusko Ikas-Erakuntzaren Araudia** dator eta bigarren ereduaren ildoak argi eta garbi dago. Ez ahaztu, hilabete horretan hauteskundeak izan zirela eta bake garaiko 1go. Eusko Jaurlaritza osatu zela. 1980-4-27tik hasi zen berriro **Aldizkaria**, baina izena aldatzeaz gainera (politikoki eta linguistikoki), itzulpen estiloa zeharo aldatuta argitaratu zen 1go. Jaurlaritza honen eskutik. *jorrailla*-tik hasi eta beste guztia ere gertuago zegoen (ortografia salbu) 1936koetatik, 1978az geroztikakoetatik baino. Geroztikakoa denok ikusi dugu.

Gauzak horrelatsu zeudela sartu ginen Udaletako lehen itzultzaileok 1979-80 urteetan zehar (geroago ere sartu dira zenbaitzu) eta hiztegi orokor gisa, Aita Plazido Mujikarena, Luis Mari Mujikarena eta Xabier Kintana eta bere kideena genituen. Azkeneko hau orduantxe berrargitaratu zen Hiztegia 80 izenarekin. Oso oker ez banago, UZEIk berak ere artean, **Fisika, Kimika, Politika** eta **Psikologia** izeneko hiztegiak bakarrik zituen kaleratuak (1980an). Egoera honetan, UEUn eratu zen itzulpenaren inguruko lehen ikastaroa 1980ko uztai-

lean eta **Lexiko sorkuntzarako bideak** deitu klasera bederen, itzultzaileok eta ez ziren beste hainbat ere joaten zela oituzten dut. Jarraian eta 1980ko abenduaren 15etik 20ra, Gipuzkoako Foru-Diputazioak antolatuturik, gisa beretsuko eta kideko material eta irakaslez hornitutako ikastaroa eman zen Donostian; Iruñera joan ez zirenentzat bereziki. Zer esanik ere ez, bi ikastaro hauetan, azken urteetan euskalgintzan erabiltzen ari zen euskara eredu landu, sakondu eta garatu zela.

1982ko azaroan, Eusko Jaurlaritzako Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak antolatutako **Euskara eta Administrazioari buruzko I. Ihardunaldiak** ospatu ziren Lakuan eta aurreko bietan ez bezala, lehen aipatutako bi euskara eredu en aurkezpena agertu zen argi eta garbi, 1984ean argitaratutako liburuskira irakurritz ikus daitekeenez. Halere, eta lexiko-arazo zehatzei zegokienean, **Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian** agertzen zen ereduaren teoria bakarrik agertu zen, nahiz eta ponentzia orokorrak denetarikoak izan.

Geroztik, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak deituta, itzultzaile eta euskara-arduradun asko bildu ginen Oñatin eta lexiko-azterketak egin eta eztabaida zenbait izan ere bai bi eredu horien inguruan. Dena den, eta guztizko lerrorazterik eman ez zen arren, gerturamenik izan denik ez dago ukatzerik. Lan horietan geniharduela, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak Donostian antolatu zituen hurrengo **II. Ihardunaldiak** (Nazaret Ikastetxean), 1984eko martxoaren 12tik 15era eta han esanak oraindik argitaratu ez badira ere, hizkuntz eredu en azterketa baino gehiago egin zen euskarazerberbitzuen beharrena, soziolinguistikako egoera eta arazoena, antolamenduena eta besterena, nahiz eta tartean hizkuntz ereduak ere aipatuak izan. Gauza interesgarri asko esan zen han eta oso interesgarria litzateke txostenen argitarapena.

Bestalde, Itzultzaile-Eskola ere sortu zen eta lanean ari da, jende prestatua kaleratuz. Gainera, izan dira han hemen itzulpenari eta euskara teknikoari buruzko ikastaroak eta oraintxe bertan Herri-Arduralaritzak berak emanberri du bat Gasteizen itzultzaile berrientzat. Historia honetan, litekeena da bakarren bat ahaztea eta hala balitz barkatu, baina nik ditudan datuen arabera, aipatutakoak dira garrantzitsuenak, UEUK ia uda oro Iruñean eta IRALEk Donostian eman dituen alfabetatze teknikoez gainera.

Lanerako materialei eta besteri buruz berriz, lehen aipatu dut 1980ko egoera. Hara eta hona ibiltzeak ez du kalterik eka-


rri. 1980ko Ikastaro haien ondorioz, itzultzaile eta arduradun talde bat UZEIn biltzen hasi zen eta 1983an **Administrazioa-Zirkulazioa** deritzon hiztegia kaleratu zen. Orain kaleratzeaz dago **ZUZENBIDEA** deritzona eta hirukotea osatzeko **Hirigintza** falta da. Bestalde, Legebiltzarreko itzultzaileek ere 1985ean argitaratu dute **Aldizkariko** ereduja jarraiki landu duten **Hiztegia** eta 1985eko urrian baita ere kaleratu da **Administrazioa euskaraz** aldizkariaren 0 alea Herri-Ardularitzaren eskutik; bertan denoi luzatzen zaigun gonbitaz gainera proposamenak egiten dira eta arazoak agertzen. Bestalde, UZEIn biltzen jarraitzen duen taldeak, inprimaki eredu mordoska bat proposatuko ditu **Zuzenbide Hiztegiarekin** eta Epaitegietako beste batzu prestatzen ari da laster kaleratzekotan. Dena den, inprimaki mota horietako asko, jadanik zabaldua daude behin-behinekotasun osoz bada ere, fotokopia moduan.

5. Euskara-Batzordeak eta Euskara-Zerbitzuak

Ez nintzen ni lehena izan, itzultzaileekin ez zela administratzioren euskaldunduko eta **Euskara-Gabinete Teknikoak** edo **Euskara-Zerbitzuak** behar zirela esaten. Soziolinguista trebeek 1980az geroztik bederen (agian lehenago ere bai) behar esan zuten hori, bana nik neuk ere kandela errazago jaso nuen nire eguneroko lana eta ingurua ikustean eta lehen aipatutako Donostian 1984eko martxoan izandako Ihardunaldietan hizlari eta txostengile anitz izan zen ildo horri jarraitu ziona. Neuk ere aukera hura probetxatuz, txostentxo bat egin nuen eta hitzez adierazi ere bai mahai-inguru haietako batean.

Esan beharrik ere ez dago, gaur dela eguna, oraindik ere Udalik gehienetan eta beste erakundeetan ere, **Euskara-Batzordeak** eta **Euskara-Zerbitzuak** oso urri direna. Batzu Kultur Batzordeen barnean daude azpibatzerde gisa, beste batzutan ezertxo ere ez dago, itzultzaile batzu (hartzea suertatu denean) bidea markatu, lagundu eta bultzatuko dituzten batzorde politikorik gabe desanparatuta eta beren gisa, ahal duten bezala ari direlarik. **Euskara-Batzordeak** eta **Euskara-Zerbitzuak** ez dira noski arazoaren soluzioa, baina zalantzan jartzerik ez dagoena da leku guztietan euskararen azterketa, eskaerak, jarraipena eta beste egingo duten lantaldeen behar

izana eta ezer sortzen ez bada, dena egiteke gelditzen da. Beren akats, hutsune eta guzti, lanerako ezinbesteko tresnak dira eta areago joanik herriz-herri, eskualdez-eskualde eta erakundez-erakunde beroriek sortu ezezik, beraien artean hertsiki koordinatu beharra ikusten dut. Ondoren, bere hutsarte guztiekin ere, **Euskara-Batzorde** tipo baten proposamena egiten dut,



udal eta erakunde guztietarako, aipatu **Ihardunaldietan** proposatu nuen eskema errepikatuz (beste batzuk ere egin zituzten horrelako proposamenak eta eskema ez da nire asmaketa hutsa).

Guzti hau, arloaren arabera noski. Erakunde batean egotziak diren lekuan, beste batean diputatuak eta gremioak etab. izango dira, baina funtsean eskema bera. Gainera, udalerrikoa bezala izan liteke eskualdekoa, diputaziokoa, etab. baina azkenean, guztiak koordinatzeko zenbait behar da, bai Komunitate Autonomo mailan eta baita Komunitate Autonomo, Nafarroa eta Iparralde mailan ere, hizkuntz presioa denetan atera eta indar berberarekin senti dadin. Bestela antzukerietan galtzen gara.

Zoritzarrez ordea, administrazioan euskara lanetan diharduten gehienek, ez dute egitura honen hasikinik ere eta ondorioz euskara ez da teknikoki eta profesionalki planteiatzen ez eta baloratzen ere, politikoki baizik, horrek zeharo limosnamunduan eta negoziazioetan sartzen duelarik. Egia da batzorde hauetako batzu lortu direla, baina ia inoiz ere ez ordea botereak berak, onenean ere oposizio politikoak sortu ditu gehienetan eta honek, definizioz, boteredunei bost axola zaiela esan nahi du, edo eta agian gehiago, asko axola zaiela euskararekiko antolamendu eta sare egokirik ez sortzea.

Amaitzeko esan baita ere, **Euskara-Batzorde** hauek toleratuak izan diren lekuetan ere, ez dutela beste batzordeen teknikotasun-maila hotz eta objektiboa izaten eta beren proposamenak, arrazoizkoenak eta Estatutuaren 6. artikuluan oinarrituak izan arren, oposizio-talde batek aurkeztutako mozio politikotzat hartzen direla askotan. Hau bereziki konstatatu da langile berriak kontratatzeko euskara maila zehazterakoan eta maila hori egiaztatzeko sistema hautatzerakoan.

6. Udaletako alfabetatze-euskalduntze egitasmoak

Itzultzaile, arduradun edo dena delako sufrituok egin behar izan genuen eta askok oraindik ere egin behar duten beste eginkizun antzu bat, klaseak ematearena izan da eta da. Ikuspeirik garbiena zuten udaletan eta erakundeetan, hasierahasieratik berezi zituzten eginkizunak, baina *euskara* izeneko guztia zaku berean sartzen zen lekuetan, *orotarako balio zuten*

itzultzaileak klaseak ere eman behar izan zituen eta oraindik ere ditu eta baldintzarik bitxienetan eman ere askotan, bere enegazio eta ikasleen desengainurako.

Edozein udaletan ere, gutxienez hiruzpalau urte behar izan ziren (hasieratik gauzak garbi zituztenak gutxi ziren eta), sistema horrek, denbora alferrik galtzea besterik ez zekarrela egiaztatzeko. Hortik pasa ondoren, leku batzutan bederen, euskaltegietara jotzea gero eta normalagoa izan da eta udaleko euskara-arduradunak, egitasmoak egiten joan dira klaseak emateari utzita, nahiz eta oraindik ere, porrota besterik ez darten sistemen usuarioak irmoki mantendu leku batzutan.

Ez dira oraindik gehiegi, beren funtzionari-gorputzak, premiarik handiena dagoen lekuetatik hasita euskalduntzeko eta alfabetatzeko egitasmoak burutu dituzten erakundeak. Hala ere, badira batzu bidea urratzen hasiak eta honi funtsezkoa deritzot administrazioa euskalduntzerik nahi bada, baina ez haatik nahikoa, gero esango dudanez. Horrelakoen artean udal batzuk adibidez, pertsonal guztiaren azterketa eta egitasmo zehatzak eginak dituzte. Beste batzuk agian, premiatsuenak dituzten lanpostuenak bakarrik. Bai batzuek eta baita ere besteek, arazo larriak dituzte ordea erabakiak betetzen hastera koan. Barnetegi erako klaseak ez dira edonola lortzen maila eta pertsona mota jakin batentzat eta askotan egitasmo horiek atzerapenak jasaten dituzte betetzerakoan.

Honek gutxienez ere, Eusko Jaurlaritzak berak funtzionari mota oro euskalduntzeko eta alfabetatzeko, zerbait esateagatik IRALE gisako zerbait antolatzea eskatzen du eta batipat, funtzionariantzako bereziki antolatutako euskalduntze-alfabetatze ikasleku bat antolatzea barnetegi gisa, leku finko batean, maila eta mota guztietako jendea bildu administrazio-adar guztietatik eta prozesua azkartzeko bideak jartzea. Horrela, udal, diputazio eta Jaurlaritzako nahiz beste administrazio mota batzuetako funtzionariantzat aukera garbiak izango lirateke eta euskara, promozio zentzuan jartzekoa litzateke, orain informatika eta beste bezalatsu.

Lehenago funtzionariak euskararen ildoan sartzeko, ez dago beste irtenbiderik. Gainerako sistema epel guztiek, halako borondate, asmo on eta giro horretako eskaintzek, emaitza oso murriztak eta antzuak eskaintzen dituzte eta horrela bederen ez dago euskalduntze masibo baten planteiamendurik egin ere egiterik. Gainera, bulego bat edo sekzio bat euskalduntzeko

egitasmoa egin arren, batzu euskaldundu badira baina beste batzu ez, azkenean, ezer egin ez dutenek besteak irensten dituzte eta ezer gutxi aurreratzen da maila pertsonaletik haratago. Bestalde, euskaldundu eta alfabetatzea daitezke funtzionari zenbait, baina gero politikoez edo idazkari eta departamentu-buruek, euskaraz funtzionatzeko agindua espreski ematen ez badiete (edo alderantzizkoa ematen badiete) denak lehen bezalaxe irauten du zoritxarrez, politikoak eta goi mailetako funtzionariak beraiek dira eta azken finean funtzionamendu sistema hori alda ez dadin interesik handiena dutenak, zeren eta aldatuz gero, beraiek bait lirakeke estutasunetan lehendabizi jarriko lirakekeenak, inoiz ere ez dute ezer egin eta, beraien politikako eta administrazioko hizkuntz praxia aldatzeko.

7. Enplegatu-kontratazioa: ideia garbiak eta norabide zuzena falta ala sobera?

Aurreko puntuari oso lotuta dagoena da honako hau. Lehen-go funtzionarioek erdaldun fama eta praxia dutela ez da zalantzan jartzen eta funtzionarioen euskalduntzea eta alfabetatzea aipatzean, beti ere lehengoz (1979az aurrekoetz) ari garela pentsatzen dugu automatikoki. Baina, zer gertatzen da berriekin? Oraintxe bertan hartzeaz daudenekin edo duela urtebete hartuekin? Arazo berbera errepikatzen dela!

Gezurra badirudi ere eta euskara bi hizkuntza ofizialetako bat izan arren (Estatutuaren 6. artikulua), euskara maila funtzionalik ez da eskatzen ezinbestekotasunez Euskal Herriko administrazioan lan egiteko. Lanpostu puntual batzutan agian bai, beste erremediorik ez dagoelako, baina mintzamenezko edo idatzizko harreman publikoak izan behar dituztenetan oro har ez, eta lehengoekin zegoen arazoa berriro ere errepikatzen ari da.

Eusko Jaurlaritza bera ari da enplegatu erdaldun huts-hutsak udaletan zehar banatzen zenbait gaietako monitore, kultur animatzaile, etabarren gisa. Zer esanik ere ez teknikoen mailan... Ez du inongo euskara mailarik eskatzen. Udalek beren aldetik puntuatu baizik ez dute egiten eta askotan horregatik ere inpuignazioak jasaten dituzte gainera. Ze zoroe-txetan bizi gara? Geuk uneoro jasaten dugun diskriminazio hitzarekin adarra jotzen zaigu gainera... Profesionalki (eta ez

politikoki) esijitu beharreko euskara maila arbuiatu egiten da eta Estatutuaren 6. artikulua bete gabe uzten da. Gaia leporaino politizatzen da eta esijentziak (ezinbestekoak bestalde) hankaz gorä botatzen dira.

Jokabide ahul eta txepel hau dela bide, euskaraz funtzionatzen hasi behar luketen funtzionariak, ez dira hasten eta arazo historikoa berriro erepikatzen da. Isatsari koska egiten dion arrainaren antzekoa da hau, baina kasu honetan, edo eta ez da argi ikusten gaia edo eta ez da ikusi nahi.

Bitartean, itzultzaileak jartzen dira erdal ekoizpen ugaria ezin itzuliz ito daitezen. Aldaketa planteiatzen hasteko giltza, politikoek daukate eta nonbaitetik esijitu beharko zaie beraiek idatzi zuten Estatutuko hitza bederen betetzeko bitartekoak jar ditzaten.

8. Lanpostu-balorazioak eta beste: ardilarruz jantzitako otsoak

Lehenak gutxi bailiren, azkenaldi honetan, modan ipintzen ari da udaletan lanpostu-balorazioa egitea eta ondorioz lanpostuen birmoldaketa egiten dute. Honi, halako zientzi usain bat ematen zaio, matematika purua bailitzan eta Jainkoak berak egin balu bezalakoxe justizi airea.

Lanpostu-balorazioak eta birmoldaketak oso ohizkoak izan dira entpresa askotan eta hori ez da batere berria ez eta harri-garria. Ondo eginez gero, onak izan daitezke eta agian udal asko daude euskara-arloan birmoldakea bikainak egin beharrean. Berria dena ordea, hau da, Euskal Herriko udal batzuetan (hiruzpalautan egin dute eta beste batzuetan egiten ari dira) euskararen arrastorik ere ez duten entpresak dihardutela honetan (Organización y Desarrollo adibidez) eta matematikaren zientifikotasunaren izenean, euskarak ez duela ezertxo ere kontaktzen lanpostuak birmoldatzerakoan ez eta funtzionarien derrigorrezko ezagupideak definitzerakoan, zeren eta horientzat ez bait dago euskaraz funtzionatu beharrik; gaztelaniaz ez da bada funtzionatzen? Gainera, ez al dago bada hor itzultzailea *hala behar denerako?*

Bestalde, hauentzat berdin-berdina da itzultzailea, euskara-arduraduna, euskaraz zerbait egiten duena, edozer gauza arraro, laguntzaile administratiboaren inguruko zerbait.

Argi, beraz, jende honekin eta beren estudioak egiteko hauek kontratatzen dituztenekin. Lehengoak gutxi izaki, hauek ditugu ardilarruz jantzitako otsoak! Zientifikotasunaren izenean, lehengo erdal funtzionamendua eta hegemonia guztiz sendotzera datozenak dira eta Euskal Herriko udal eta erakundeetan sarbidea aurkitu dute.

Edonon ere, ahalmen-gabezia litzatekeena (azterketa egitera joan eta aztertu behar duen laneko hizkuntza ez jakitea) gaur eta hemen soziologo erdaldunen bidez legitimatu egiten da eta aurrera eraman gainera. Ur hauetan pasatako baten aholkurik behar baduzue, esango dizuet trantze horretan aurrki zintezketenoi: euskaraz bakarrik hitz egin eta doazela etorri diren bidean.

9. Administrazioa euskalduntzeko bideak eta bitartekoak

Administrazioa barnetik zer zen ere ia ez genekiela sartu eta halako *katu arraro* gisa aipatutako hiru hiztegiekin hasi ginenetik, 5 urte igaro dira eta nire ustez bederen ez dira alferrik igaro. Dena ez da denbora galtzea izan. Gauzak nola diren jakiteko oso ondo etorri da eta jadanik engainatu bederen ez gaituzte egingo.

Hizkuntz alorrean bada oraindik ere premiarik, bada zalan-tzarik, baina konparatzerik ere ez dago orduko egoerarekin. Gaur bederen, baliagarria eta egokiena denaren ildo nagusia somatu egiten da, gauza asko eta asko adierazteko modu egokia aurkitu da eta itzulpen lan bortitzei esker, euskara hutsen funtzionatzen hasteko ereduak ere proposatzen hasteko moduan gaudela uste dut (gehienetan elebidunak baino errazago aurkezteko moduan gainera). Beraz, itzultzaile deituok egindako aurrelan honek, bere fruituak eman ditu eta ematen ari da. Hizkuntza bera hein handi batetan trebatzea lortu da.

Gainera, hori dela eta, administrazioaren giltzarri batzu ere ezagutu ditugu eta berorien arabera tranpak non dauden ere soma dezakegu. Zerbait baino gehigo ikasi dugu beraz, baina ikasitakotik fruitua ateratzeko, harako *zerbait egin behar da eta itzultzaile bat hartuko dugu* eskema hori birplanteiatzeko ordua iritsi dela deritzot eta bereziki politikoei birplanteiatu behar dute hau.

Nik, neure esperientziatik jaso dudanaren arabera eta inongo gobernu-programarik gabe, ondorengo proposatzeko auserdia hartzen dut eta borondaterik onenaz adierazten dut, helburua argi eta garbi jarri eta berorretara iristeko beharrezko ikusten dudana aipatuz.

- 1) Gaurdaino sartuta dauden funtzionari erdaldun guztien euskalduntzea eta euskaldun analfabeto edo gisakoen alfabetatzea planifikatu ikastaro trinkoen bidez, horretarako barnetegi berezi eta espezialdua jarritz. Lehentasunak markatzerakoan, goi mailako postuetatik hasita egin eta ez behekoetatik hasita, izan ere horiek bait dira testu berri eta jatorrizkoen idazleak, besteak aldiz kopiatazaile hutsak besterik ez diren bitartean. Gainera, askoz ere jende gehiagorekin dituzte harremanak eta zalantzarik gabe goragoko mailetakoeekin.
- 2) Barne berrantolakuntzak egin bi hizkuntza ofizialak menderatzen direnaren arabera eta derrigorrezkotasunak (bi hizkuntzekiko) agertzen diren lanpostu guztietan euskaraz ere erantzuna emateko modukoak jarri.
- 3) Langile edo enplegatu berririk hartu behar bada, hizkuntz gaitasun froga selektiboak egin lehendabizi gutxieneko maila bermatzeko eta ondoren laneko gaiei buruzko frogak bi hizkuntzetan berdintasun osoa erabiliz, nola mintzamenean hala idatzizkoan (lanpostu mailaren arabera).
- 4) Bi hizkuntzetan funtzionatzeko prestatuta dauden edo prestatuko diren funtzionarioei berehala bi hizkuntzetan bederen funtzionatzeko agindua eman eta euskaraz bakarrik funtziona daitekeenetan euskaraz funtzionatzea.
- 5) Euskaraz gehienik edo ia osoro funtziona dezaketen herrietan edo sekzioetan, premiazkotasunezko funtzionari-prestakuntza deklaratu eta egin, euskaraz bakarrik funtzionatzen has daitezten.
- 6) Itzulpena, ezinbestean bakarrik egin eta jatorrizkoa euskaraz idaztera abiatu, gero behar bada erdal itzulpena eginez. Honek noski, lehen esanaren arabera, kargudun txostengileak eta idazkariak nahiz teknikoak ongi trebatzea eskatzen du, baina horretan hasi beharra dago inoiz helburura iristerik nahi baldin bada.

- 7) Euskara-Batzordeak sortu udalerrri, eskualdeko erakunde edo bestelakoetan (diputazio, Jaurlaritza, eta beste). Arazoa profesionalki aztertu eta ez politikoki, beraz, Hazienda-, Gobernazio- eta Hirigintza- nahiz Zerbitzu-Batzordeari edo besteei ematen zaien garrantzi bera eman. Batzorde honen erizpideak, besteenak bezain profesionaltzat hartu eta Euskara-Zerbitzuaren aholkuak, arkitekto, aparejadore edo abokatu-idazkarienak bezala, epai politikorik eman gabe.
- 8) Euskara-Batzordeak, Euskara-Zerbitzuak sortu, arduradun, itzultzaile, erredaktatzaile, bulegari eta besterekin, biztanle kopuru eta hizkuntz egoerak dituzten premien arabera eta udaleko edo dena delako erakundeko euskara lan guztien nahiz herritarren kontsulta guztien ardura hartu.
- 9) Batzorde eta Zerbitzu horiek elkarrekiko koordinatu eta epe jakinetan betetzeko helburuak markatu, euskara hutsean zer egin behar den, bi hizkuntzetan zer eta españolez zer erabakitzeko. Epe jakin hori iragatean, hurrengo mailara pasa eta euskararen erabilpena gorantz eramanez, beharrezko ikusten diren bitarteko guztiak ipiniz, nola tresnetan hala pertsonetan eta erabakitakoa betez. Era honetan jarraitu guztia elebidundu arte eta funtzionamendu elebiduna lortu denean edo denerako, euskara hutsean zertzu funtziona dezaketean aztertu eta hasi. Bigarren prozesu honen garapena bide beretik joango litzateke, baina kasu honetan dena elebiduna izatetik, euskara hutsaren erabilpena pasatzeko. Prozesu honek ordea, ez luke zertan horrela izanik euskaraz bakarrik funtzionatuz lihoazkeen arloetan eta lekuetan, bigarren epe honetakoa lehenengoan eramango lukete aurrera eta.
- 10) Lanpostu balorazioak eta gisakoak, euskararen berri eta zerbitzuak euskalduntzearen berri ondo dakiten soziolinguistek eta horrelakoz osaturik euskaraz lan horiek egiteko gai diren enpresei egin erazi eta ez euskara azkeneko bagoian sartzen duen edonori.
- 11) Euskara-Zerbitzuei, kanporatzen den idatzizko ororen euskararen kontrola eramateko ardura eman, nola toponimia, hala errotulazio, paper, propaganda eta beste,

eta udaletako nahiz diputazioko eta Jaurlaritzako zerbitzuen arteko koordinazioa bilatu, txukuntasun, berdintasun eta egokitasunez gauzak egin daitezzen.

- 12) Administrazioko Eskola Euskalduna sortu, ikasketak euskara hutsez egiteko (gaur maisutza edo kideko ikasketak euskaraz egin daitezkeen bezala) eta ez noski gehienetan gertatzen dena: gai teknikoak españolez eta lagunartean afaltzerakoan euskara apur bat *porque yo, soy más vasco como el que más.*

Hamabi puntu atera zaizkit. Beharbada hogeitamar ere aurki daitezke. Esan nahi dudana ulergarria dela uste dut. Tren honetan honaino heldu gara (leku batzutan), hots, beharrez konturatzera. Orain hurrengo trená hartu behar dugu, lehengoa baino lasterragoa dena eta lehenago eramango gaituena. Lan honetan ari garenok, saiatuko gara tren hori ere gidatzen, behar duguna ikasiko dugu, baina trená bera politikoeek jarri behar digute eta lehendabizi, tren horren beharraz jabetu behar dute gorputz eta arima eta ondoren egia plazaratu. Euskara lanetan ari garenok, zain gauzkate.

SINTESIS

Esta artículo trata de dar una visión panorámica de la historia, la situación y actividad actual y las perspectivas de futuro del personal que, casi siempre con el nombre de traductor, ha sido contratado por las diversas instituciones de la Administración Pública Vasca: Ayuntamientos, Diputaciones, Gobierno, Parlamento, para muy diversas labores en torno a la promoción de la lengua vasca dentro de la Administración.

El status laboral de este personal es muy diverso: existen contratos laborales por horas, contratos temporales, personal que ha accedido al funcionariado.

También son muy diversas las funciones a las que están dedicados: desde el traductor puro y simple, traductor y consultor en oficinas abiertas al servicio público, hasta directores de departamentos de asesoramiento lingüístico.

El autor analiza también la estructura organizativa —escasa— en que se apoya la actividad de estos "traductores": diccionarios, cursillos, etc.

Afirma el autor que ha llegado la hora de replantearse la actuación que se ha seguido estos últimos años. Para ello hay que dejar claro que el fin que se perseguía con la contratación de estos traductores no era la mera traducción de los textos jurídico-administrativos que emite la Administración, sino la euskal-

dunización de esa misma Administración, para lo cual la traducción y la contratación de traductores no era más que un primer paso.

El autor propone diversas medidas que deben ser tomadas urgentemente: La creación de una Instituto de Euskaldunización y Alfabetización de Funcionarios, la valoración del conocimiento del euskara para el acceso al funcionario autonómico y para la promoción dentro de él, creación de departamentos de asesoramiento lingüístico adaptados a las necesidades de cada institución.

SYNTHESIS

The intention of this article is to give a panoramic view of the history, activity and present situation, and prospects of the people who, normally known as translators, have been contracted by the various institutions of the Basque Public Administration; Town Councils, Delegations, Government, and Parliament for varied work to do with the promotion of the Basque language within this Administration.

The work status of this member of staff is diverse; there are contracts for work done on a hourly basis, temporary contracts and also members of staff who have been taken on as civil servants.

The work they do is also varied—from translating purely and simply and as translators and consultants in offices open to the public to being directors of language advisory departments.

The writer also analyses the organizing structure, —which is poor— on which the work of these 'translators' leans: dictionaries, short courses etc.

He also suggests that it is time to rethink the part played by the translator during the past few years. In order to do this it must be made clear that the reason for contracting these translators was not merely for the translation of juridical and administrative texts, but for the promotion of the Basque language in Administration. Translation and the contracting of translators was then, only one of the first steps toward this.

The writer goes on to propose various measures which should be taken urgently: an Institute for the Promotion of Basque and Literacy courses for Civil Servants, an appraisal of knowledge of Basque on entering the Autonomous Civil Service and for promotion within it, and the creation of language advisory departments which should be adapted to the needs of each institution.

Hiztegi Tekniko-Berezituak* UZEIren hiztegi-gintza

Paulo Agirrebaltzategi
UZEIko lankidea

Hiztegia du itzultzaileak bere lan-tresnarik behinena. Edo-zein itzultzailek daki hori ondo. Hala ere, Valentín García Yebra-ren aipu bat ekarriko dut hona, esandakoaren argigarri:

El análisis del texto de la lengua original debe comenzar por la dimensión léxica. Del mismo modo que no se puede construir un enunciado sin saber lo que significan las palabras que van a utilizarse, tampoco se puede comprender un enunciado ya construido sin conocer el significado léxico de las palabras de que consta. Es cierto que en un texto suelen aparecer los significados léxicos junto con los morfológicos y los sintác-

* Idazlan hau, Donostiako Aurrezki-Kutxa Muzizipalaren babespean 1984ean UZEIko Lexikogintzaz emandako ikastaldiaren barruko hitzal-di baten laburpena eta egokitzapena da. Ondoko orrialdeetan sarri xamar aipatuko da liburu bat: HAENSCH, G. - WOLF, L. - ETTINGER, S. - WERNER, R. *La lexicografía. De la lingüística teórica a la lexicografía práctica* (Biblioteca románica hispánica, Manuales 56), Ed. Gredos, Madrid 1982. Liburu horretan oinarritu gara bereziki azalpen honetarako HAENSCH-en izenez aipatuko dugu hemendik aurrera.

ticos. Pero esto no quiere decir que no haya prioridad natural entre unos y otros (1).

Adierazi lexikala ("significado léxico") esaten dugunean, hiztarena adierazi nahi dugu linguistikarentzat *hitza* kontzeptuak duen anbigutasunaren arazoa oraingoz behintzat alde batera utzirik. Hitza edo adierazi lexikala esaten dugunean, berriz, hiztegiaren alor berezi-berezian ari gara. Horra, beraz, zergatik duen hiztegia bere lagunik onena itzultzaileak.

Itzulpen eta terminologi aldizkarian ari garenez, egoki iruditzen zait itzulpen-lanaren eta hiztegi-gintzaren arteko lotura hori nabarmentzea. Gure asmoa ez da, ordea, hiztegi-gintzaren inguruko arazo teoriko eta praktikoak hona ekartzea; askoz apalagoa da gure xedea: UZEIren hiztegi-gintzan darabil-tzagun abiaburuak, helburuak eta asmoak agertzea, alegia. UZEIren hiztegi-gintzaren sarrera orokorraren gisakoa izan daiteke oraingo azalpen hau. Hasteko, ordea, hiztegi-gintzako mundu oparo eta zabalean bereizkuntza batzu egin behar ditugu, hiztegi mota ezberdin batzuren ezaugarriak azalduz, UZEIren hiztegiak non kokatu jakiteko.

I. HIZTEGIA ETA HIZTEGIAK

Oso esanahi zabalez hartzen dugu **Hiztegia** hitza hemen. Haensch-en definizio honetaz balia gaitzeko: *Un diccionario o un glosario es un extracto estandarizado del conjunto del léxico existente o de un subconjunto léxico* (461. or.).

Hiztegiak mota askotakoak izan ohi dira, ordea, eta hainbat bereizkuntza egin daiteke.

1. Hiztegi orokorrak eta Hiztegi bereziak

Hiztegi orokorra da hizkuntz komunitate jakin baten lexiko-multzo osoa kontutan hartzen duena; **hiztegi berezitua**, berriz, hizkuntz komunitateko hizkera bereziren baten lexiko-

(1) *Teoría y práctica de la traducción* (Biblioteca románica hispánica, Manuales 53), Ed. Gredos, Madrid 1982, 50-61 orr.

-multzoa kontutan hartzen duena. Hizkera berezi horiek izan daitezke, ordea, maila edo alor ezberdinetakoak: *dialektoa*, edo leku geografiko jakin batetan erabiltzen dena; *soziolektoa*, edo gizarteko klase edo maila jakinean erabiltzen dena; *teknolektoa*, edo arte, zientzia, teknika edo bestelako jakintzaren baten erabiltzen den hizkera berezia eta lexiko teknikoak.

Teknolektoa dagokigu guri hemen batez ere kontutan hartzea. Jakintza-alor bereziko edo berezitateko hizkuntza ere deitu ohi da. (Ingelesezt "Language for special purposes" esaten da, frantsesezt "Langue de spécialité", alemanez, "Fachsprache" edo "Technolekt", gaztelaniazt "Tecnolecto" edo "lengua de especialidad").

Teknolekto jakin baten lexiko-multzoa kontutan hartzen duen hiztegia deitzen dugu **Hiztegi tekniko-berezitua**. (Ingelesezt "Technical Dictionary", frantsesezt "dictionnaire technique", alemanez "Fachwörterbuch", gaztelaniazt "diccionario técnico o especializado").

Sarritan ez da inola ere erraza lexiko orokorra edo arrunta eta lexiko tekniko-berezitua banatzen, hau gero eta gehiago, batez ere komunikabide sozialen bidez, hizkera arruntean sartzen ari delako. eta lexiko arruntaren eta teknikoaren artean badago tarteko hizkera eta lexiko modu bat, bi haiek lotzen dituen.

Garrantzi apartekoa dute gaur hiztegi tekniko-berezituek, hizkera eta lexiko teknikoak oso berezitu, zabaldu eta ugaritu direlako. Horretaz nolabait ohartzeko, **Grand Larousse encyclopédique** delakoak, 711 teknolekto bereizten ditu giza zientzietan bakarrik; eta zientzia zehatz eta naturaletan, 529 teknolekto; horietaz gain, hartu kontutan zientzietakoak ez diren teknolektoak: arteetakoak, tekniketakoak, etab.

Horiek euskaraz lantzeak, berriz, esangura berezia du, benetan euskararen normalkuntza maila eta dimentsio guztietan lortu nahi badugu. Hementxe datorkigu, ordea, arazo nagusienetako bat gure euskarazko hiztegi tekniko-berezituak lantzean.

Normalean, hiztegiak -bai deskribatzaileak eta bai preskribatzaileak edo arauemaileak- hizkuntzan erabilia dagoen edo erabiltzen den lexikoaren islada edo ispilua izan ohi dira. Euskaraz, ordea, alor tekniko-berezituak ez dira landu, edo oso neurri txikian landu dira; horregatik euskarazko lexiko tekniko-berezitua nolabait asmatu eta sortu beharrean gara, erabi-

lerari berari aurrea hartuz. Euskarazko hiztegi tekniko-berezituak halaberrez bide-urratzaileak izan beharra daukate gaur. Baina arazo honetaz geroago ere hitzegin beharra izango dugu.

Egia da, hala ere, Euskal Herriak, hizkuntz komunitate gisa, bere historiako eta kulturako maila eta garai bakoitzean bere lexiko tekniko-berezituak landu eta erabili dituela, kultur alorrek euskaraz adierazi dituen neurrian. Alde horretatik, harrokeria handiegia litzateke, euskarazko lexiko tekniko-berezitua lehen aldiz asmatzen eta sortzen ari garela esatea. Eta interesgarria litzateke, euskarazko teknolektoen historia egitea, beste hizkuntzetako hiztegitintza tekniko-berezituen historia egitea interesgarria izango litzatekeen bezala.

Baina bereizi beharrean gara lexiko tekniko-herritarra eta lexiko tekniko-zientifikoa, zientzia eta teknika modernoek landu dutena. Hala ere, ez dago biak banantzerik, eta, neurri handi batez, bigarrenak lehenengoan oinarritu eta hortik edan beharra dauka. UZEIren hiztegitintzaren helburua da, gaurko eta gure kulturaren, zientzien eta tekniken mailan eta alor guztietan euskarazko lexikoa lantzea eta normaltzea. Horretatik, horietan ematen den lexiko tekniko-berezituak *sistematikoa*, *gaurkoa* eta *bide-irekitzailea* izan nahi du: horietxek dira gure hiztegitintzaren ezaugarriak, euskarazko lexiko tekniko herritarrari begira.

2. Hiztegi entziklopedikoak, linguistikoak eta terminologikoak

Gure hizkuntzaren -euskararen- egoerari atxekiz, eta horrek gure hiztegitintza tekniko-berezituari ezartzen dizkion baldintzak kontutan edukiz, UZEIren hiztegien beste berezitasun bat agertu nahi dugu hemen.

Hiztegiko artikuluen edukinari begira, hiru hiztegi mota bereiz daitezke: Hiztegi *entziklopedikoak* edo gauzen hiztegiak; hiztegi *linguistikoak* edo hizkuntzaren hiztegiak; hiztegi *terminologikoak*.

Hiztegi *entziklopedikoa* esaten dugunean, ez dugu adierazi nahi jakintza guztiak biltzen dituen. Hori entziklopedia orokorra izango litzateke. Hiztegi entziklopedikoak, ordea, zera adierazten du: Hiztegiko artikuluburueta hitzen inguruan

azalpen linguistikoak (semantikoa, sintaktikoa, fonetikoa, ortografikoa, paradigmaticoa, etab.) emateaz (edo sarritan horietan batere luzatu gabe), gaiaren beraren azalpena egiten duena, jakintzaren gaurko egoeraren puntua emanez eta agertuz.

Hiztegi *linguistikoa*, berriz, hitzaren -sarreraren- alderdi linguistikoa finkatzen da: semantikoa (definizioa edo itzulpena), gramatikala, sintagmatikoa (hitzaren erabilera eta lekua perpausaren barruan), paradigmaticoa (hitzaren sinonimoak, antonimoak, etab.).

Hiztegi *terminologikoa* ez da berez aurreko biei buruz definitzen. Honela definitzen du Haensch-ek hiztegi terminologikoa: *Diccionarios terminológicos, que registran el vocabulario técnico de determinadas materias* (136. or.); terminologia, berriz, zera da, autore beraren arabera: ... *un conjunto de términos específicos de una técnica, de una ciencia, de un arte o de otra actividad humana* (527. or.). Alde horretatik lexiko-tekniko-berezituarekin bat egiten du terminologiak. **Hiztegi terminologikoa** erabiltzen da, hiztegi entziklopedikoaren eta linguistikoaren aurrez-aurre, jakintza berezitu jakin baten terminologia bere soiltasunean edota bestelako hizkuntzen itzulpenarekin, baina elementu linguistiko eta entziklopedikorik gabe edo oso gutxirekin, ematen duena adierazteko.

UZEIko hiztegi gehienak mistoak dira; edo, hobeto esanda, bi parte dituzte: bata, entziklopedikoa, eta, bestea, terminologikoa.

3. Hiztegi onomasiologikoak eta semasiologikoak

Bereizkuntza honek hiztegiak aurkezteko eta argitaratzeko moduari begiraten dio batez ere; baina badu zerikusirik, hiztegia lantzekoan ere.

Hiztegi *onomasiologikoa* kontzeptuen arabera ordenaturik ematen da; sarrerak edo artikuluburuak kontzeptu nagusi edo giltzarrizkoa adierazten du, eta horren inguruan biltzen dira (ordena alfabetikoa edo bestela) beste hainbat adierazle. Hiztegi onomasiologikoak dira. hiztegi ideologikoak, hiztegi analogikoak, hiztegi sistematikoak edo gaien arabekoak, irudizko hiztegiak... Hiztegi onomasiologikoa kontzeptutik hasten da, eta hori adierazteko hitzak bilatzen ditu. Hiztegiaren era-

biltzaileari edo hizkuntz hartzaileari begiratzen dio bereziki, baina hiztegi-gilearentzat edo hizkuntz igorlearentzat ere garrantzirik badu, bereziki hiztegi tekniko-berezituak lantzean.

Hiztegi *semasiologikoa*, berriz, adierazleen arabera ordenatu ohi da; adierazleak, berriz, gehienetan alfabetoaren arabera ordenaturik egoten dira. Hiztegi-gileari edo hizkuntz igorleari begiratzen dio bereziki hiztegi semasiologikoak. Hori lantzean, adierazlea jartzen da aurrenik, eta horren adierazia azaltzen, ondoren.

Berezikuntza horrek aski artifiziala baldin badirudi ere, garrantzi handikoa da hiztegi tekniko-berezituak lantzean, gero agertuko denez.

4. Hiztegi elebakarrak, elebidunak eta eleaniztunak

UZEIren hiztegi-gintzaren ezaugarriak agertzeko, beste berezikuntza hau ere kontutan hartu behar da: hizkuntza baka-rrekoak, bikoak ala gehiagokoak izatea, alegia.

Hiztegi elebakarrak definiziozko hiztegiak izan ohi dira: hau da, elementu semantikoa definizio bidez ematen dute. Elebidunek eta eleaniztunek, berriz, definizioa eman beharrean, beste hizkuntzetako itzulpenezko parekidea ematen dute: *itzulpenezko* hiztegiak dei genitzake. Horietan, beraz, abiaburuko adierazlea eta helburuko adierazlea bereizten dira (itzulpenean abiaburuko hizkuntza eta helburukoa bereizten diren bezala).

Non kokatzen da UZEIren hiztegi-gintza, egindako berezikuntza horien arabera? Orain arte argitaratu dituen hiztegiak tekniko-berezituak, semasiologikoak eta eleaniztunak dira; eta gehienak entziklopediko-terminologikoak, hau da, gehienek bi parte dituzte: bata entziklopedikoa eta terminologikoa bestea.

Euskara modernotzeko ahaleginaren barruan kokatzen da UZEIren hiztegi-gintza. Honela definitzen du F.X. Karam-ek hizkuntzaren modernizazioa: *Zibilizazio modernoak eskatzen duen komunikazio-moldea ahalgarri egingo duen lexikoa eta berbaldi-modua sortzea* (Toward a Definition of Language Planning, in FISHMAN, J.A. (ed.): *Advances in Language*

Planning, The Hague, Paris-Mouton 1974). Era berean, bi alderdiok egozten dizkio CH.A. Ferguson-ek hizkuntzaren modernizazioari: a) Hiztegia aberastea, b) berbaldi-mota eta estilo berriak lantzea. Lexiko moderno eta berbaldi modernoak bereiztezinak dira, geroago ikusiko denez. Hasiera-hasieratik eduki du kontutan hori UZEIko hiztegi gintzak. Hizkuntzaren kulturazko normalkuntza gisa defini daiteke modernizazioa: hau da, kultura modernoaren alderdi eta maila guztien adierazpide eta sorbide izateko gaitzea hizkuntza.

Hiru ardatz nagusi ditu hizkuntzaren modernizazioak: *Estandardizazioa* edo hizkuntzaren arauketa, *teknifikazioa* eta *espezialkuntza*, eta *kreazioa* edo literatur sorketa. Bigarren alorrean dihardu hiztegi gintza tekniko-berezituak.

Kultura modernoaren ezaugarriak nagusienetako bat zera da: teknifikazioa eta espezialkuntza, lehen esan denez; lexiko eta berbaldi tekniko eta berezituak landu dira kultura hori adierazteko. Euskararen modernizazioak, beraz, lexiko eta berbaldi tekniko eta berezitu horiei erantzuteko hori gauzatzeari esan nahi du.

II. UZEIren HIZTEGI GINTZAREN OINARRIAK ETA ABIABURUAK

Hiztegi gintzaren alor zabalean UZEIrena mugatu ondoren, honen abiaburuak eta oinarriak agertu behar ditugu orain: oinarri eta abiaburu nolabait bereziak, edozein hiztegi bete behar dituen abiaburu eta lege linguistiko, lexikologiko eta lexikografikoez, eta bereziki hiztegi tekniko-berezituen lege eta abiaburuez gain.

1. Proposamenezko hiztegiak

UZEIren hiztegi tekniko-berezituen ezaugarri garrantzizko bat horixe da: proposamenezkoak izatea. Horregatik dira behinbehinekoak... Edozein hiztegi buruz dio Haensch-ek: *Se ha dicho -con razón- que hoy un diccionario y una bibliografía están pasados de moda ya en el momento en que se publican. Aunque esto puede parecer algo exagerado, encierra una gran verdad. Por esto, la labor lexicográfica requiere continuidad...*

(451. or.). Baina gure hiztegienean, iragankortasun edo behin-behinekotasun hori ez datorkie hizkuntzaren eta lexikoaren bizitzari eta dinamikari dagokien berezitasunetik bakarrik, eta bai euskarazko hiztegi tekniko-berezituek gaur behar duten eta eskatzen duten funtsezko planteamendutik ere.

Hiztegi gintza eta lexiko gintza bereizi egiten dira normalean. Hiztegiek ez dute lexikogintzarik edo lexiko-sorkuntzarik beren helburutzat: Lexikoa biltzea eta kodifikatzea dute beren xede soila. Gure hiztegiek, berriz, lehen ere aipatu dugunez, neurri handi batez behintzat sortzaileak dira: lexiko gintza edo lexiko-sorkuntza eta hiztegi gintza batean daramatzate. Arrazoinak ere lehen aipatuak ditugu: gai tekniko-berezituetaz ezer gutxi idatzi da euskaraz, eta, beraz, teknolektoak eta lexiko tekniko-berezituak landu gabe daude.

Horregatik bide-irekitzaileak, bai, izan nahi dute UZEIren hiztegi tekniko-berezituek, baina ez arauemaileak; arauemailetza ez dagokio UZEIri. Gure hiztegiak ez dira deskribatzaileak edo historikoak, baina ez eta normatiboak ere, nahiz eta euskararen normalkuntza izan horien azken helburua.

Horrek dakarkigu, eginkizun latzen eta beinen gisa, lexiko-sorkuntzaren legeak eta arauak bereziki ezagutu eta sakondu beharra. Bide horretatik zenbait lan eta azterketa teoriko egiten ari da UZEI. Lehen fruitutzat **Maileguzko hitzak** liburua aterea du; beste zenbait prestatzen ari da, lexiko-sorkuntzaren bide guztiak aztertze-biden. Jakina, ikerkuntza teoriko horrek ez du bakarrik balio, lexiko berria sortzeko edo eratzeko, eta bai zaharra edo lehendik erabilia analizatzeko ere; erabiliaren analisisan oinarritzen da, hain zuzen, berriaren sorkuntza edo erakuntza.

2. Hiztegien globaltasuna eta jakintzartekotasuna: koordinazioa

Teknolektoen arteko harremana eta lotura du gaur arazo nagusietako bat lexikologiak; H. Weinrich-ek dio: *Las distintas disciplinas científicas (...) tienen sus tecnoletos, y cada ciencia tiene el suyo; a veces, incluso varios. Ante esta situación, no sólo críticos de la cultura, sino también muchos científicos se han lamentado de que ya no sea posible entenderse entre disciplinas científicas, y a veces ni siquiera dentro de ellas, por no*

hablar de las dificultades de comunicación entre el lenguaje corriente, por una parte, y los muchos tecnolectos de la ciencia, por otra (Haensch-ek aipatua, 148. or.). Eta autore honek berak ateratzen du ondorio hau: esto significa, ni más ni menos, que la tarea que han de cumplir los diccionarios técnicos es de vital interés, no sólo para la comunicación dentro de una sociedad, sino para el futuro de ésta (149. or.).

UZEIren hiztegitzintzak, hasieratik eta abiaburuz, globala eta jakintzartekoa izan nahi du, goian aipaturiko arazo horri nolabait erantzun nahian. Hiztegi tekniko-berezituen lantzea globaltasunez hartzen du, nahiz eta hainbat alorretako eta zientziatako lexikoak eta teknolektoak gure ahalbidetatik kanpo gelditu oraindik; lantzen dugun bakoitza besteak kontutan edukiz landu ohi da.

UZEIren lan-sisteman ez dago, ordea, aurreko hiztegiak kontutan hartzea bakarrik; globaltasun eta koordinazio horien premiaz oharturik, UZEIko sail ezberdinen arteko kontsulta eta kritika sistematikoki eratu beharra nabari dugu. Koordinazio lexikal hori egokiago gauzatzeko, orain arteko hiztegi guztietako terminologiak batean jarrita dauzkagu, ordenadorearen bidez. Hiztegi bateratu hori oso garrantzi handikoa da, teknolekto ezberdinen terminologiaren arteko koherentzia egoki bideratzeko.

Azken puntu horrek UZEIko hiztegitzintzaren lanbide eta metodologiarako, batetik, eta bestetik, terminologi bankua erabiltzailearen eskuetan era errazez eta bizkorrez ipintzeko, ordenadoreak duen garrantzia aipatu behar da. Baina horretaz ez gara mintzatuko.

3. Espezialisten eta hizkuntzalarien lankidetzak

Honela dio Haensch-ek: *Los lingüistas, hasta ahora, se han interesado demasiado poco por los diccionarios técnicos –por desconocer la materia respectiva–, y los autores de diccionarios técnicos se han interesado demasiado poco por la lingüística moderna, especialmente por la lexicografía teórica (147. or.).* Eta beste leku batetan eransten du: *La elaboración de diccionarios terminológicos requiere la colaboración de lingüistas (lexicógrafos) con buenos conocimientos de la materia cuyo léxico se trata de registrar y (o) de especialistas en la correspondiente ma-*

teria iniciados en la teoría y técnica de la lexicografía. El caso ideal es la colaboración de personas de ambos grupos. Hoy, gran parte de la labor lexicográfica es realizada, por colaboradores permanentes, en una serie de instituciones internacionales y nacionales (529. or.).

Horrelako asmoarekin sortu zen UZEI; hala ere, oraindik urruti xamar dago helburura eta egoera idealera iristeko. Jakintza berezituaren arabera sailkaturik dago UZEIko lantegia. Sail bakoitza espezialista banak zuzentzen du, ahal den neurrian bederen. Horrela, soziologoa, biologoa, psikologoa, historigilea, arkitektoa, medikua, injinerua, enpresako teknikaria, etab. elkartzen dira UZEIn, hizkuntzalariekin batera.

4. Euskararen hiztegi historikoa eta hiztegi tekniko-berezituak

Zientzia, teknika eta bestelako jakintza modernoek teknolektoak ez ditu euskarak ukitu edo oso urrutitik ukitu ditu, orokorki begiratzuz behintzat. Beste hizkuntzek, gutxi gora behera, eta bakoitzak bere erara, landu ahal izan dute beren lexiko tekniko-berezitua, zientziak, teknikak eta bestelako jakintzak aurreratuz eta berrituz joan diren neurrian. Euskara oso atzean gelditu da normalbide horretan, erabili ez delako. Bide luze hori urratu eta egin beharrean gara orain.

Euskararen lexiko arruntaren eta orokorraren maila eta erdararen gaurko lexiko tekniko-berezituaren maila hurbiltzea eta parekatzea esan nahi du asmo eta egiteko horrek. Hala ere, hurbilketa hori ezin daiteke erdaretatik abiatuz bakarrik egin; euskararen beraren tradizioetik abiatuz egin behar da, baita ere. Hau da, euskarazko lexikogintza tekniko-berezituak euskararen lexikogintza historikoan oinarritu beharra dauka, eta hortixe mantendu beharra: bai lexiko orokorretik eta arruntetik, bai eta garai "hartako" zientzia, teknika edo bestelako jakintzak adierazteko landu duen lexiko teknikotik ere. Gaur landu nahi ditugun teknolektoak altxor lexikal guzti horretaz baliatu beharra dauka, ahal den neurrian eta hizkuntzaren dinamikak berak horretarako biderik ematen duen neurrian.

Arazo horri dagokionez, hiru puntu hauetan konkretatzen da UZEIren jokabidea: a) UZEIren hiztegiak ez dira itzulpenak; ezezkoa eman zaio erdarazko hiztegiak euskaratzeari, na-

hiz jabeturik egon, gure hiztegiak erdarazkoak baino eskasagoak izango direla batzutan; abiaburuz behintzat, berriak dira parte entziklopedikorako egiten diren artikulua ere, nahiz eta batzutan jatorrizko testua erdarazkoa izan. Horrek ez du esan nahi etengabe erdarazko hiztegiez baliatu beharra izaten ez dugunik, sarritan gai horiek euskaraz lehen aldiz lantzen direlako, batez ere hiztegi eran. b) Euskarazko altxor lexikalaz baliatzeko, hiztegi orokorrak ondo ezagutzea da bide nagusia; horretan lan aski handia eginga dagoela aitortu beharra dago; baina oraindik euskararen hiztegi historiko globalaren zain gaude. Bestalde, aitortu beharra dago, gaurregun euskaraz teknolekto bakoitzaren lantzeak, aurretik alor horretako lexiko historikoa sistematikoki biltzea eskatzen duela; bide horretatik, balio handikoak dira alor konkretu batzutan egin diren terminologi bilketak; baina oraindik lan handia gelditzen da egiteko. Eginkizun hori nolabait betetzeko, hiztegi bakoitzaren lanbidean sartzen da, literatura orokor eta berezituaren, klasikoaren nahiz modernoaren, irakurketa eta hustuketa lexikala egitea. UZEIk oso seriotan hartuta dauka lan hori; baina aitortu beharra dago, lan-indar handiagoak beharko litratekeela, iturri horiek zehazkiago eta zeharoago erabiltzeko, eta horiek gaurko lexikogintza tekniko-bereziturako duten balioa aztertzeko. c) Lexikogintza tekniko-berezitua zentzuz eta ausardiz, baina segurtasun kritikoz eta zientifikoz, aurrera eramateko, euskararen lexiko-sorkuntzarako bideak aztertu beharra dago. Lan historiko-linguistiko-teoriko hori ezinbestekoa du UZEIren lanbideak, ez bideak ezagutzeko eta ixteko barririk, eta bai bide tradizionalak ezagutzeko, berriak irekitzeko ere. Ahal duen neurrian, lan eta egiteko horiei erantzuten saiatzen da UZEI; baina jabeturik dago, horretan ere premiak eta eginkizunak gainditzeko dituela bere lan-indarrak.

5. Terminologia mailegatuarekiko irekitasuna

UZEIren hiztegi gintzaren azken helburua zera da: euskara gaurko zientzia, teknika eta bestelako jakintzen mailara ekartzeta, hau da, euskararen modernizazioa lortzea, batez ere teknolektoei dagokienez.

Horrek zera eskatzen du. Euskarako lexiko tekniko-berezituek ere edozein terminologia tekniko-berezituren legeak eta

ezaugarriak betetzea. Hiztegi tekniko-berezituotan lehena izan zen **Natur Zientziak** hiztegiko sarreran, hirutara bildu ziren lexiko tekniko-berezituaren ezaugarriak: *zehaztasuna*, *tinkotasuna* eta *argitasuna*. Horiek eta beste batzu aipa genitzake; baina hemen ez gara horretan luzatuko.

Hemen baieztatu behar duguna da, euskararen teknifikazioari begira, ezin gaitezkeela horretarako eragozpen eta zailtasunei iheska ibil, ez dakit zein garbizaletasun edo jatortasunaren izenean. Euskarak lexiko-sorkuntzarako (hitzak nahiz sintagma lexikalak sortzeko) eskaintzen dituen bide guztiez baliatu beharra dago, eta batzutan, bide tradizionalen arabera, bide berriak ere ireki beharra egongo da. Dena dela, honela era teorikoz eta abstraktuz esaten dugun hau, bakoitzean eta era konkretuz aztertu eta erabakitzekoa da. Baina beti ere ondo kontutan izanik, edozein hizkuntza sistema dinamikoa eta irekia izan ohi dela; euskara ere bai.

Jakina da, teknolektoetan zenbat eta gorago jo, batez ere lexikoari dagokionez, orduan eta nazioartekoagoa dela hizkera. Hizkuntzartekotasun horretan kokatu behar du euskarak ere maila horretan. UZEIren hiztegi eleanitzek euskararen nolabaiteko homologazioa bilatzen dute, hain zuzen: hau da, erdarekiko homologazioa. Ez dira txikienak, helburu horrek sortzen dituen arazo eta buruhaustekak. Baina euskara gaurko kulturarako trebatu eta egokituko bada, arrago horretatik igaro beharra dauka.

Maileguzko hitz eta unitate lexikalen edo berben arazoa bereziki bizia da teknolektoetan. Zalantzarik ez dago, euskararen normalkuntza kulturalak, eta normalkuntza orokorrak, asimilazio lexikal handia eskatzen duela, batez ere lexiko tekniko berezietuetan, hain zuzen ere.

6. Berbaldiaren eta lexikoaren lotura

Lehen aipatu dugunez, gure hiztegitintza, neurri handi batez, lexikogintza edo lexiko-sorkuntzako lana da.

UZEIren eritziz, ordea, enuntziatuaren (edo testuaren) barruan egin beharra dago lexikoaren sortzea. Hor frogatzen eta egiaztatzen da unitate lexikalaren balio semantikoa nahiz sintagmatikoa.

Euskaraz gai tekniko-zientifikoak gutxi erabili baldin badira, eta, beraz, lexiko tekniko-berezituak orain arte landu ez badira, UZEIren hiztegien egitekoa, neurri batez behintzat, hutsune horixe betetzea da. Horregatixe dituzte gure hiztegiek bi parte: entziklopedikoa eta terminologikoa. Lehen parteko artikuluetako testu eta enuntziatuetan erabiltzen da bigarren partean bilduko den terminologiaren parte handi bat behintzat.

Zehazkiago esanez, **Natur Zientziak** hiztegian, parte terminologikoa askozaz txikiagoa da parte entziklopedikoa baino; nolabait lehen partearen edo hiztegi entziklopedikoaren glosarioa da Geroko hiztegietan, berriz, bigarren parteak neurri handiagoa hartu du, eta nolabaiteko autonomia ere bai, parte entziklopedikoan erabili gabeko terminologia ere sistematikoki bildu delako, eta erdarazko itzulpenarekin eman: horrela jokatatu da, terminologia bakoitza berorren globaltasunean -nahiz eta ezin berorren osotasunean- lantzearen.

Dena dela, UZEIren hiztegi guztietan -bi parteak: entziklopedikoa eta terminologikoa dituztenetan- elkarrekin oso loturik doaz bi parteak. Lantzez, biak batera lantzen dira; eta elkar osotuz gain, nolabait batak bestea baldintzatzen du.

Bide beretik esan beharra dago, UZEIk eskaintzen dituen terminologiek balioko dutela eta finkatuko direla, edukinez edo adieraziz beteko diren neurrian: eta horretarako berbaldietan eta enuntziatuetan erabili beharra dago. Alde horretatik, proposamenezkoak dira UZEIren hiztegiak, neurri handi batez hor eskaintzen diren terminologiaren baliagarritasun-eta erabilgarritasun-frogaren zain.

III. HIZTEGIGINTZA TEKNIKO-BEREZITUAREN AURRERAKO BIDEA

Ez gara sartuko hemen euskarazko hiztegi-gintza tekniko-berezituak gaur dituen eskakizunak soziolinguistikaren eta hizkuntz politikaren mailan aipatzen eta aztertzen. Lexikografiatik begiratuta, aurrerabiderako puntu garrantzizko batzu aipatu besterik ez dugu egingo; UZEIn orain arteko hiztegi-gintzak eman digun eskarmentuak erakusten dizkigu puntu horiek, eta nolabait etorkizuneko idea markatzen dute.

1. Hiztegi gintza onomasiologikoa

Lehen azaldua dugu zer den hiztegi onomasiologikoa, bai eta hiztegia lantzeko metodo gisa ere horrek duen garrantzia, batez ere hiztegi tekniko-berezituak lantzean.

Hiztegia lantzeko metodo gisa ulertzen badugu hori, zera esan nahi du aurrenik: unitate lexikala erabaki edo aukeratu aurretik, kontzeptua behar dugula eta kontzeptuaren definizioa.

Gure hiztegi tekniko-berezituen parte entziklopedikoak horixe du helburua, hain zuzen ere. Baina euskaraz gai teknikoak erabiltzeko, idazteko nahiz irakasteko dugun premiak eta larriak, terminologia tekniko-berezitua zabaltzera garatuz, eta gure hiztegi gintzan parte entziklopedikoan ematen diren artikulak (edo sarrerak) baino askoz gehiago ematera parte terminologikoan. Horregatik bigarren parteko unitate lexikalek ez dute sarritan definizio explizitorik gure hiztegietan.

Adierazleak, ordea, bere adierazia edo edukin semantikoa du; eta edozein itzulpen egiteko orduan, adierazitik –definiziotik– igaro beharra dago, itzulpenezko parekide egokia sortu nahiz aurkituko bada. Adieraziaren bitartekotasun hori oso kontutan hartzekoa da, bi arrazoirengatik: a) euskarazko parekide egokia bilatzeko nahiz sortzeko; b) erdal adierazlearen menpekotasunetik ihesegiteko: adieraziak bitartekoarena egiten duelarik, erdarazko adierazletik urrutiratzen gaitu, eta geure –euskararen– autonomia defenditzen.

Bi aldetatik konponbideratu behar da hori: a) Parte entziklopedikoa handituz eta batez ere horko artikulak txiki eta xeheak ugarituz; hor azaltzen bait dira adieraziak –definizioak– adierazlea –unitate lexikala– bilatzeko laguntza emango diguna. b) Parte terminologikoa bera metodo onomasiologikoz landu behar da. Hiztegi eleaniztun eta tekniko-berezitu guztien sistema egokiena da hori, nahiz eta gero alfabetoz aurkeztu eta argitaratu; euskaraz garrantzizkoagoa da oraindik metodo hori, lexikogintza edo lexiko-sorkuntzarekin bat egiten duelako gure hiztegi gintzak, eta gure hiztegiek unitate lexikalak bildu eta kodetu bakarrik egiten ez dituztelako, erdarazko hiztegi normalek bezala.

Gogoeta horiek Haensch-en hitz batzuekin sendotu nahi ditugu: *Para reunir los materiales para un diccionario terminológico*

gico cuya base es, como se ha puesto de relieve, un sistema conceptual, hay que aplicar un método onomasiológico, que permitirá averiguar si todos los términos importantes de la materia en cuestión se han tenido en cuenta. Eta beheraxeago dio: La aplicación de un método onomasiológico, por lo menos en la primera fase de elaboración, asegura que todos los términos importantes que forman parte de un campo léxico se registren y delimiten: sinónimos, antónimos, nombres genéricos, etc. (530. or.).

2. Euskararen lehentasuna

Aurreko arazoarekin lotuta dago erdararen lehentasunarena ere: hau da, abiaburuko hizkuntza erdara izatea ia beti, eta helburukoa bakarrik euskara.

Lehen esan dugu, lanbide edo lan-metodo bezala ez dugula itzulpena erabiltzen; horrek parte entziklopedikorako balio du; terminologikorako, berriz, ideal eta helburu gisa; gutxitan, ordea, eta nekez praktikan. Gure abiaburuko hizkuntza gaztelania edo erdarak dira, nahiz eta gero, argitaratzean, "euskara-erdarak" agertu zerrenda nagusi, eta horren arabera lantzen saiatu beste hizkuntzak. Aurrenik landu, berez, "erdara(k)-euskara" zerrendak lantzen dira.

Abiaburuko hizkuntza euskara izatea lortuko dugu, benetan euskarazko lexikoa mamiz beteko dugunean bakarrik, eta horrek ere autonomia lortuko duenean, beti erdararen erreferentziaren menpean ibili beharrean.

3. Euskarazko Entziklopediaren prestaketa

Aurreko bi urratsen ondorioa berehala dator: euskarazko entziklopedia. Hiztegi tekniko-berezituak lantzeak, bere parte entziklopediko eta terminologiko eta guzti, benetako entziklopedia globala lantzea eskatzen du, hurrengo urrats gisa.

Euskarazko entziklopediak lortuko ditu, teoriiaz behintzat, lehen aipatu ditugun arazoak: a) Euskara izatea erreferentzia "bakarra"; b) euskarazko lexikoa edukinez mamitzea eta finkatzea; c) euskararen lehentasuna baieztatzea.

Uste dudanez, UZEIren berehalako projektua izan beharko luke euskarazko entziklopediarenak; luzarorako projektua

noski, aurretik azterketa teoriko eta lexikografiko asko eskatzen duelako, eta lana bera luzea izango litzatekeelako. Baina gure hiztegitzinta tekniko-berezituaren berezko helburua horixe dela uste dut.

Dena dela, horrelako helburuak eta proiektuak UZEI bera edo aurrera eramango duen bestelako erakundea indartzea eskatzen du: antolakuntza mailan, ikerketa teorikoen aldetik lan-lagunen mailan eta finantzapen mailan.

4. Hiztegitzaren jarraitasun soziala

Aurreko kapituluan hiztegitzinta tekniko-berezituen segida linguistiko-kulturala aipatu dugu. Besterik da, ordea, hiztegi bakoitzak eskatzen duen jarraitasun soziala. Hau da, aurrera daramatzagun lexikogintzak eta hiztegitzintzak ez dira lan editorial hutsak; kultur eta hizkuntz plangintza orokor baten barnean sartu behar dira.

Horregatik eginkizun hauek nahi ditut iradoki:

- a) Hiztegia landu duen taldeak bere dinamikan jarraitzea, hiztegia erabiliz, kritikatu, osotuz eta zabalduz; lexikogintza eta hiztegitzinta etengabea bait da. Oinarria eta abiapuntua besterik ez dira orain kaleratzen diren hiztegiak. Era sistematikoz egin behar da lan hori: sistematikoz eta koordinatuz. Horrelako koordinaziorako, egiturak behar dira. UZEIren oraingo egoera eta indarrak gainditu egiten ditu eginkizun horiek.
- b) Lan-taldeak berak hedatu egin behar du, bere espezialitate edo berezitateko beste lagunen artean, hiztegia bera zabalduz, erabiliz eta kritika eraziz, etab. Euskaraz berezitate berean ari diren guztiei eragin behar zaie eta horiek koordinatu behar dira.
- c) Espezialitatean dihardutenen hizkuntz trebakuntza tekniko-berezitua eratu eta antolatu beharra dago; ez da aski euskalduntze edo alfabetatze arrunta eta orokorra, gaur euskara normaltasunera ekarriko badugu; eta horrek ez du unibertsitateko edo eskolako irakasleentzat bakarrik balio; edonorentzat balio du, bere lanbidean teknolektoa eta horri dagokion jargoia erabiltzen bait du edonork.

Hiztegi tekniko-berezituek horretarako oinarria izan nahi dute: Lanbideko euskal gaikuntzarako edo "alfabetatze teknikorako" pedagogia ere landu eta zabaldu beharra dago. Zalan-tzarik ez dago, lan handia eta erakunde indartsua eta finan-tzapen sendoa eskatzen dituela horrek; beharrezkoa da, ordea, UZEIren hiztegiak benetako fruitu zabalak emango badu, euskararen modernotze eta teknikitze bidean.

Ondorioz eta bukatzeko... Itzultzailearentzat hiztegiak duen garrantzia aipatuz hasi gara; gero hainbat aldiz aipatu dugu itzulpenaren eta hiztegiak duen beraren arteko lotura. Puntu berean bukatu nahi dugu.

Haensch-ek dioen zerbait aipatuko dugu berriro: *Contrariamente a lo que opinan algunos autores, el traductor experto usará no sólo diccionarios lingüísticos bilingües, sino también diccionarios monolingües (alfabéticos, ideológicos, de sinónimos, etc.), que le permiten conocer de manera exacta la denotación, las connotaciones y la gama de aplicaciones de la unidad léxica que interese, y diferenciarla de los posibles sinónimos, tanto en la lengua de origen como en la de destino* (136. or.).

UZEIren hiztegiak bi parte izanik hiztegi eleanitzarena eta hiztegi elebakarrarena betetzen dutela uste dut: hori nahi dute behintzat. Horregatik, hiztegi hauek erabiliko dituen itzultzaileari zer esanik ez dago, bigarren partea bezain inportantea —edo garrantzizkoagoa— dela lehen partea —entziklopedikoa—. Haensch-ek aipatzen duen arrazoiak gain, beste bat dago parte entziklopedikoa edo euskara hutsezkoa erabiltzeko: hau da, euskal terminologia euskaraz (euskarazko azalpenaz ulertuz) geureganatzea, eta ez erdarazko itzulpenaren bidez; horrela bakarrik uxatuko dugu euskararen erdararekiko morrontza-pea.

Adierazitik euskarazko adierazlera zuzenean igarotzea lortu behar dugu, erdarazko adierazlearen bitartekotzari iheseginenez. Jakina da, erdarazko adierazleen bidez etorriko zaizkigula etengabe teknolektoen terminologia hainbat edo gehienak, eta alde horretatik bitartekotza eta morrontza horiek jasan behar-kotugu; baina, behin adieraziak euskarazko adierazlearekin lotuz eta finkatuz gero, erdararen morrontza arindu egingo dugu.

Bide horretatik erabaki dugu, baita ere, parte entziklopedikoan erdarazko korrelatuak kentzea hemendik aurrera. Hiztegien parte horretako sarrerak euskara hutsez emanaz.

Hala ere aitortu beharra dago, euskararen morrontzapean egoteak hor irauten duela, bai hiztegitagilearentzat eta bai hiztegiaren erabiltzailearentzat. Hau ulertzeko, bereziki beharrekokoak ditugu, alde batetik sarrera/irteera, eta bestetik, abiaburuko hizkuntza eta helburukoa bereiztea. Elebiko hiztegi-tan edo elanitzetan, sarrera artikuluburua bera da, eta irteera horren korrelatua da (edo korrelatuak); abiaburuko hizkuntza, berriz, unitate lexikal *ezaguna* da; helburukoa, berriz, ezezaguna: ezagunetik ezezagunera jotzen dugu.

Abiaturuko hizkuntza, ordea, ez da beti sarrerakoa izaten. Hizkuntz igorlearentzat (hiztegitagilearentzat, kasu honetan) normalean sarrerakoa da abiaturuko hizkuntza, eta irteerakoa(k) helburukoa(k). Gure hiztegi-tan, ordea, ez da sarritan horrela gertatzen: hiztegitagilearentzat ere irteerakoa (erdara) izan ohi da sarritan abiaturuko hizkuntza eta sarrerakoa (euskara) helburukoa; horrela euskara erdararen menpean gelditzen da.

Hiztegiaren erabiltzailearentzat (hizkuntz hartzailearentzat) bestela funtzionatu ohi dute gauzek. Normalean testuren bat itzuli nahi duenarentzat, hiztegitagilearentzat irteerako hizkuntza izan ohi da abiaturuko hizkuntza, eta sarrerakoa izaten da helburukoa; erdal testua euskarara itzultzen duenarentzat, ordea, sarritan erdara bera (sarrerako hizkuntza) da abiaturuko hizkuntza; euskara berriro ere erdararen morrontzapean jarritz.

Arazo hori euskarak berak sufritzen duen morrontzarena da; eta UZEIko hiztegiek beren aldetik nekez gaintitu dezaketen; hala ere, egoera hori gaintituz joateko sistemak asmatu beharko genituzke hiztegitagilearentzat bidez ere. Horietako bat litzateke, gure hiztegi-tan sarrerako hitza euskara bakarrik izatea, eta beste hizkuntza guztietako itzulpeneko parekideak aurkibide gisa bakarrik ematea. Horrela jokatzeko dute, bestalde, hainbat hiztegi eleanitzek: hizkuntza nagusi eta sarrerakotzat hizkuntza jakin bat hartzen dutenean.

Hiztegia ez da irakurtzekoa, erabiltzekoa baizik. Hiztegiaren erabiltzailea, berriz, sarritan oso kritikari eskasa izan ohi da; hiztegitagileak dituen arazo guztiak kontutan edukirik, erabiltzailea ohartuko litzateke, mila azalpen, itzulpen, etab. oso er-

latiboak direla, hobegarriak eta agian aldatzekoak. Horregatik kritika-sena zorrotzu behar du hiztegiaren erabiltzaileak.

Areago, gutako bakoitzak geure hiztegia eginez joan behar genuke; esku artean erabiltzen dugun hiztegia oharrez bezetaz joan behar genuke, nork bere eskarmentu linguistikoa hor pilatuz eta ordenatuz, inoren hiztegia geure hiztegi bihurtzeraino; geure oharrak, kritikak, eraskinak, etab. hor idatziz.

Lehen esan dugunaren arabera, UZEIren euskarazko hiztegi tekniko-berezituak proposamenezkoak eta bide-irekitzaileak izanik, erabiltzaileen —eta bereziki itzultzaileen— eskue-tan gelditzen da horien aurrerabidea, eta nolabait hiztegi horiek arauemaile bihurtzea.

Hemen kontatu ditugu hiztegitzantz ditugun penak eta zailtasunak; itzultzaileak badaki lanean eta hiztegiak erabiltzen aurkitzen diren eragozpenak eta buruhausteak. Hiztegitzileen eta itzultzaileen kontsolamendurako, Haensch-en hitz hauekin bukatuko dut: ... *a pesar de sus limitaciones y servidumbres, la lexicografía tiene también sus satisfacciones. Es quizás, entre todas las actividades lingüísticas, junto con la traducción y la enseñanza de idiomas, la que está más estrechamente relacionada con la vida humana en sus aspectos más variados y la que mayores servicios presta a la colectividad* (12. or.).

Gehiegi ote?

SINTESIS

Este artículo trata de explicar lo que de específico tienen los diccionarios de UZEI entre los demás diccionarios de euskara, su contenido, su forma y su elaboración.

Para ello el autor establece una clasificación general de los diccionarios. Por lo que respecta a su contenido, los diccionarios pueden ser generales o de especialidad; enciclopédicos (temáticos), lingüísticos (que explicitan los aspectos gramaticales, sintagmáticos y paradigmáticos del vocabulario) y terminológicos (que registran el vocabulario técnico de determinadas materias). Por lo que respecta a la forma, a su organización interna, pueden ser onomasiológicos (organizados según el significado, centrados en torno a palabras clave) o semasiológicos (organizados según el significante, en orden alfabético generalmente). Pueden ser también monolingües, bilingües, plurilingües.

Los diccionarios de UZEI suelen componerse de dos partes, la primera enciclopédica y la segunda terminológica. No son lingüísticos, no se limitan a ser

terminológicos descriptivos, en el sentido de que recojan la terminología existente, sino que son creativos, crean terminología; pero no pretenden ser normativos, son propuestas que la práctica deberá sancionar si son válidas o no lo son.

Para ello su elaboración parte del análisis de los tecnolectos existentes. Pero los diccionarios propuestos por UZEI no se basan solamente en los tecnolectos registrados, sino también en una visión global del diccionario general, y de todos los tecnolectos, una visión interdisciplinaria que evite la confusión intertecnolectal.

Ha sido pues necesario coordinar la labor de especialistas de cada disciplina con la de los lingüistas. Se parte del análisis de los textos existentes en euskara sobre cada tema, y se trata de cubrir las carencias con la propia capacidad de neologización del euskara, sin dejar de lado, sin embargo, la asimilación de términos procedentes de otras lenguas, teniendo en cuenta, además, que es el de la terminología técnica el ámbito donde en mayor medida se da un vocabulario común internacional.

Ha de tenerse en cuenta, sin embargo, que el vocabulario sólo cobra sentido dentro del flujo del discurso, en este caso técnico, escaso, por otra parte, en euskara. UZEI trata de cubrir también esta carencia, al menos en un primer momento, en la parte enciclopédica de sus diccionarios.

El articulista acaba analizando otros aspectos parciales y problemáticos de la labor lexicográfica de UZEI, ente los que cabe destacar el dedicado al seguimiento social de los diccionarios; donde propone que se deberían crear estructuras que permitan la continuación de la labor (revisión y ampliación) de los mismos; debería también hacerse un seguimiento del uso de los diccionarios, e incluso debería planificarse la enseñanza de la terminología científica y técnica en euskara a aquellos que teóricamente están llamados a usarla.

SYNTHESIS

This article explains what is so specific about the contents, format and elaboration of UZEI dictionaries compared with other Basque dictionaries.

In order to do this, the author gives a general classification of the dictionaries. As regards their contents, the dictionaries may be general or specialized; encyclopaedic (thematic); linguistic (which explain the grammatical, syntagmatic and paradigmatic aspects of the vocabulary) and terminological ones (which record the technical vocabulary of certain subjects). The format and internal organization may be onomasiologic (set out according to the word meaning, centred round key words) or semasiologic (set out according to the meaning, normally in alphabetical order). They may also be monolingual, bilingual or multilingual.

The UZEI dictionaries normally comprise two parts; the first encyclopaedic and the second terminological. They are not linguistic, and are not only terminologically descriptive in that the sense that they gather together existing terminology; they are also creative, creating terminology; but they do not pretend

to be normative, they are proposals –the validity of which will be decided by every day usage.

To do this, the elaboration of the dictionaries is based on the analysis of technical words. However the dictionaries proposed by UZEI are not only based on the already registered technical words, but also on a global vision of the dictionary as a whole, and all other technical words. An interdisciplinary vision which will avoid confusion in technical language. Therefore, it has been necessary to co-ordinate the work of the specialists with that of the linguists.

Beginning with an analysis of already existing Basque texts on each subject, the dictionaries try to fill in gaps using the capacity of the Basque Language itself to create new terms, without leaving out the assimilation of terms from other Languages, also bearing in mind that technical terminology is the area where a common international vocabulary in mainly to be found.

It should be considered however, that the vocabulary on has a meaning in a given context, in this case a technical one; and as it happens this is not too common in Basque. UZEI also try to cover this deficiency at least initially in the encyclopaedic part of their dictionaries.

The writer finishes by analyzing other partial and problematic aspects of UZEI's lexicographical pieces of work, of which the one dedicated to the social follow up of the dictionaries may be remarked upon. The writer also proposes that new structures which allow for the continuity of the work (revision and development of the dictionaries) should be created. A follow-up of the usage of these dictionaries should also be undertaken and the teaching of these scientific and technical terms should also be planned for those who will supposedly have to use them in the future.

Informazio irabazi eta galerak testu juridiko baten itzulpenean Usurbill-ko erriyaren ordenanzak (1888)

J.M. Zabaleta

Beti tentatu izan nau itzulpen batean gerta litezkeen informazio aldeak -galerak eta irabaziak- zeren adierazgarri izan litezkeen aztertzeak. Zer modutako arrazoik bultza lezake itzultzailea SHko testuan esplizitaturik ageri den informazio bat ala bestea, hartan zegoen mezua XHn berriro eraikitzean ez adieraztera, ezabatzeraz. Arrazoiak mila izan litezkeela bistan dago. Garrantzi handiko informazioa baldin bada galtzen dena, galera hori eragin duten faktoreak modu askotakoak izan litezke, despiste hutsetik hasi eta apropos egiterainokoak. Baina bada beste tarte bat, garrantzia gutxikotzat ematen den informazioarena gehienez, beste arrazoi modu batzuek eragiten dutena, hari meheagoz josia.

Testuaren ezaugarriak

Modu honetako azterketa baterako, aztergaia finkatu behar da lehendabizi, besadan hartzekoa baino gehiagokoa izan ez dadin eskutada.

Horregatik testu laburra bilatu nahi izan nuen lehendabizi, eta Usurbill-ko erriyaren ordenanzak, tamaina egokia izan zitekeen metodologia finkatzeko saiogune izateko: 20na orrial-

de ozta gaztelaniazkoa, SH, eta euskarazkoa, XH; 98 puntu, numeratuak testu bakoitzean, parez pare aise jartzekoak; 122 ahapaldi, guztira, sarrerak eta azken hitzak barne harturik.

Idazkera definitukoak biak, hizkuntza maila eta teknolekto definitu batekoak –testu juridikoa–, era horretara konparazioa egingarriagoa gertatzen zela.

Testu honen ezaugarrietan garrantzi handia duen bat, SHkoa eta XHkoa, biak mezu hartzaile berberarentzat idatziak izana da. Mezu hartzaile hori, hizkuntzaz banagarria da, baina teoriarik behintzat kultur prestakuntzaz, aurretiazko informazioz, ohituraz, kultur erreferentziaz ez da banagarria, eta horrenbestez, informazio alderik ikusten bada SHko testutik XHkora, –teorian– hizkuntz egituren desberdintasunari ala itzultzailearen itzulmodu edo iritziei zor dakieke, eta ez besteri. Xedea oso mugatzen da, horrela.

Itzultzaileak ere fidagarria behar zuen, halakotzat aitortua gutxienez. Zentzu horretan, itzulpen honek bere garaiko onepena behintzat badu. Euskal testuaren ondotik, eta erdarazkoan ageri ez dela, honela bait dio: *Donostiako Euskal-itz-jostaldietan Batzarreak Abuztuaren 8-an izan duen billeran, ontzat eman du Ordenanza oen Euskal-biurtza*. Hala ere sari askok ongi frogatua duenez –eta gu ere halaxe sinistuta– saria ez dela ezeren garantzia, geure aldetik ere iritziak jasotzen ibiliak gara testu horren itzulpenari buruz: laudorioak eta ohoreak ez ditu falta ezagutzen dutenen aldetik. Egia esaten hasiz gero dena esan behar bada, esan beharra dago iritzi horiek ez direla itzulpen gonbaraketa zehatz baten ondorioz pentsatu eta kontrapisatuak, euskarazko eta erdarazko testuen alde banatikako irakurketen ondoko inpresio baizik, beti ere bertatik datu puntual ederren bat gordez bada ere.

Eta egia diote: gero aztertzeko ditugun informazio galera ala irabaziak alde batera utzirik, erdarazko testu horren euskarara bihurtzaileak aparteko sena erakutsi zuen bere aurretik batere edo apenas ezer landurik zeuden eremuetan hizkera malgutu eta adierazkizunarekiko zehaztasun maila handi batetara eramateko. Eta, oi miraria: gaztelaniazko testura euskarak uzten ziona baino gehiago makurtzeke, eta aldiari aldiko testu puskaren interpretazioa zehatz eginez, gaztelaniazko homonimoek, adibidez, tronpatu eta tranpatuko ez zutela. Estimagarria abildadea, alor beretan, testu modu beretan gaur egungo itzultzaile askok gustora hartuko lukeena.

Adibide labur bat emateko, har dezagun gaztelaniazko **público** hitzaren itzulpena. Jakina da **público**-ren polisemia handia dela. A priori, sospetxatzekoa da hitz horren esanahia-
ren hedadura ez dela berdin banatzen euskaraz, eta horren
esanahi eremua hitz bat baino gehiagoren artean banatuko
dela. Ikus dezagun gurean:

- pronuncien con escándalo público todo género de blasfemias
Jende-aurrean, arneguzko itzak... esaten dituztenak (1. art.)
- se prohíbe todo trabajo corporal en público...
Debekatzen da... *agirian* lanik egitea (2. art.)
- en sitio público
leku *agirikoetan* (11. art.)
- en la plaza ni en ningún otro sitio público
ez plazan ez beste toki *agirikotan* (14. art.)
- expongan al público
ipiñi dezatela *agirian* (16. art.)
- Establecimientos públicos
jendea hartzen dan tokian (33. art.)
- El público
Jende guztiak (45. art.)
- Vía pública
toki *publiko edo jende guztia joaten denetan* (45. art.)
- sitios públicos
toki *agirikoetan* (51. art.)
- Vía pública
kalean edo bidean (82. art. - 84. art.)
- dificultando la circulación pública
pasaizoa galeraziten duenik (88. art.)

- caminos públicos
bideetan (94. art.)
- salud pública
jendearen osasuna (95. art.)
- deseando armonizar los intereses particulares con el bien público
nai luke bakoitzaren interesari kalterik ez egin eta *erriko guzienari* mesede (amaiera)
- provecho de la salud pública
guztientzat ongi etorriko dala, beren osasuna...(amaiera)

Adibideak multiplika litezke, eta bere gorabehera guztiekin, nahikoa eritzi finkoa atera liteke "ordenanzen" itzultzaileak irtenbide onak asmatzen dizkiela aurrera agertzen zaizkion arazoei; eta sintaxiari dagokionean batez ere gustora hartuko litzatekeen gardentasuna ageri du.

Azterketaren xedea ere ongi mugatua ezarri nahi izan dut: informazio galera ala irabazia, baina unitate osoak, kontzeptu oso baten adierazpena erabat galtzen denean. Informazio galera eta irabazizko joku bat nahita nahiezkoa da itzulpenean, kontzeptu baten osagarri minimo guztien osoko adierazpena, ez gehiago erantsi ez galdu gabe, oso bakanetan lortzen bait da itzulpenean, testuaren interpretazioan ere kontzeptu baten adierazpenak birtualki ukan ditzakeen esanahi guztiak atxiki ezin litezkeen bezala, bestalde. Zentzu honetan, bistan da nabardurarik apurrenetaraino agortuz ezin litekeela itzuli testua, irakurri ere ezin bait daiteke egin.

Informazio galera edo irabazia

Kontzeptu baten itzulpenean hiru galera modu edo alde egon litezke SHko testutik XHkora.

- a) Guztizko galera: SHko testuan bazegoen informazioa XHkoan ez dago, adierazita behintzat. Gerta litekeena da -itzultzailearen iritzirako-, XHko mezu hartzailearentzat informazio hori testuinguruan garbiago egotea, eta esplizitoki adierazi beharrik ez sentitzea. Edo gerta liteke

baita ere, SHko hiztunen artean halako kontzeptu hori erlazio finkoan egotea, lotura fosildu batez, adieraztekoa den beste kontzeptu bati, eta horrenbestez XHn, behar bada, esplizitoki adierazi beharrik ez sentitzea itzultzaileak. Nolanahi dela ere, modu honetako ez-itzulpenean, konparazio terminoa erabat falta da itzulpen prozesuaren alde bateko edo besteko jatorrizko testuan, edo itzulian.

- b) Jeneralizazio edo partikularizaziozko informazio aldaketa. Bi kasuok elkarren alderantziak dira, baina berdintzat uler litezke testu baten ala bestearen jatorrizkotasun ala itzulizkotasuna kontutan hartu ez, eta aiseago ulertzeko, teoriarik behintzat kontzeptu eduki berbera adierazi nahi duten bi testu bezala hartzen badira jatorrizkoa eta itzulia, nahiz eta jakin ez dela horrela gertatzen. Horrela bada, kasu honetan SHko testuaren eta XHkoaren kontzeptu erlazio jakin bat egin liteke, bi adierazpenak konparagarri dira; bakarrik, gertatzen dela bietako batek, jeneralagoak, bestea, partikularragoa, bere baitan, bere eremu semantikoaren barruan hartzen duela, baina haren eremu semantiko osoa agortu gabe. Zentzu honetan, pentsa liteke badagoela hierarkia modu bat kontzeptuen artean, eremu semantikoaren hedadurari dagokionez, batzuk besteak baino jeneralizazio maila altuagoan ala beheagokoan jartzen dituenak.
- c) Hirugarren erlazio modu bat ere egon liteke SHko eta XHko testuetan kontzeptu baten adierazpenen artean. Aurreko puntuan aipatu dudana hierarkizazio irudi hori bera baliatuz, esango litzateke SHko testuko adierazleak eta XHko testukoak, hierarkia maila berekoak eta elkarren desberdinak –guztiz desberdinak izan gabe– direlarik, biak dira kontzeptu jeneralago, eremu semantiko zabalagoa duen kontzeptu baten, osokoak ez diren adierazpenak, kontzeptu jeneralago berberaren partikularizazio desberdinak, beraz. Eta zentzu horretan dira konparagarriak ere.

Oraingo honetan burutu nahi dudana azterketan a) paragrafoan adierazten diren moduko fenomenoak arakatu nahi ditut. Honek ez du esan nahi b) eta c) moduko fenomenoaren azterketak ere modu honetara egiten den azterketaren ondorio beretara iristeko bidea emango ez lukenik, edota agian horiek

zuzendu edo osatzeko ere, baina, luze jotzen badu bere muga guztiekin ere, eginik dugun azterketak, beldurra ematen du pentsatu hutsak noraino eramango gintuzken azterketa modu hau osatzen hasiko bagina.

Azterketaren xedea, beraz, guztizko informazio galeren bilketa egin, ahal delarik fenomeno guzti horiek klasifikatu, sailkatu, eta horien interpretazio bat egiten saiatu naiz. Aurreko honetan "interpretatu" hitzak bi esanahi ditu: batetik fenomeno horiek, informazio galera horiek eragiten dituzten, edo eragingo lituzketen arrazoiak asmatzen saiatu, zergatik ez duen, alegia, itzuli itzultzaileak gaztelaniazko testuan ez despistatzeko moduan ageri den kontzeptu bat. Eta bestetik, asmatzen saiatu, deskribatzen saiatu ea nolako ondorioak ukan ditzakeen, edo dituen, informazio galera horrek XHko testuan, nola definitzen duen mezu hartzailea, aldatzen ote duen testuaren doinua, etab.

Testuak konparagarri izan daitezen, konparazio honetarako ahalik eta modurik erosoenean antolatu ditut, prestaketarako azterketa morfosintaktiko bat egin, esaldiak menpekotasun mailaz maila banatu, eta era honetara, testuen konparaketa ia esaldi bakunez esaldi bakun egin litekeela.

Hona, bada, zerrendan, aipatu testuan aurkitu ditudan informazio galera edo irabazi modu batzuren laburpena, adibide batzurekin.

A) Informazio irabaziak:

1. Lehendik adierazirik zeuden zenbait informazioren erreplikazioa, testuaren ulermen hobetarako.

- ... y siendo el primordial deber de sus representantes
orregatik, eta nola agintaritza... (sarrera)
- ... con una hora de anticipación
Prozesioak pasa bear duen baño ordu betez lenagotik (5. art.)
- ... adornen sus ventanas y balcones con colgaduras, ó en la forma más esmerada que sea posible.
... apaindu ditzatela, beren leio ta balkoiak al-duten modurik onenean, *prozesioak pasa bear duenerako* (6. art.)

- ... a la persona que hubiere cometido alguna falta.
... *Orrelako gauzaren bat egin duenari* (19. art.)
- incurrirán en las mismas penas los contraventores de las disposiciones anteriores.
... *kastigatuko da kosmoramaren jabea, ordenantzak agintzen duten moduan.* (25. art.)
- ... que extravíen los sentimientos y tiendan a perturbar la imaginación.
... *zergatik ez duten oiek guztiak buruak nastu ta griñak chartzeko ezpada serbitzen* (22. art.)
- no podrán sin embargo verificar sus representaciones...
naiz eta orretarako eskubidea iduki... (30. art.)

2. Implizito dagoen informazioaren esplizitazioak.

- los domingos y días festivos reconocidos
igande eta jai-egun ezagutu guztietan (2. art.)
- en casos de necesidad
premiya aundiren bategatik (3. art.)
- siendo responsables...
eta izango dira kastigatuak ordenantz'ok, garbitasunari dagokion buruan, agintzen duten bezala (5. art.)
- sin obtener el competente permiso de la autoridad
autoridadeak *lendana* artarako baimena ematen ez badu
(10. art. eta baita 12., 16., 24.)
- reuniones tumultuosas
billera edo batzar iskanbillazko eta sesiyotirik (11. art.)
- para los efectos á que hubiere lugar
eman dezayoten *legezko kastigua* (20. art.)
- incurrirán en las mismas penas
kastigatuko dira..., ordenantzak agintzen duten moduan
(25. art.)

3. Itzultzailearen iritzirako, edo sentikerarako, zenbait kontzeptuk beti loturik daramaten kalifikazioaren eranstea.

- observancia fiel de los preceptos divinos
Jaungoikoaren lege *santuari* begiratuaz (sarrera)
- temor de la ley de Dios
Jaungoikoaren bildur *santua* (sarrera)
- conservación de la Religión
Erlijiyo *santuko* gauzak (sarrera)
- obtendrán la autorización del Alcalde
eskatu behar diote lendanaz Alkate *jaunari* (12. art.)
- especuladores ambulantes
erriz-erri dabiltzan saltzalleak (16. art.)
- Religión Católica
Erlijiyo *santu* (20. art. eta baita 24.)

4. Zenbait esaera erretoriko:

- amparar, proteger y defender cuanto contribuye á la conservación de la Religión y de la moral evangélica.
Ebanjelioan agintzen diranak anparatzea, eskudatzea eta *alegiña guztian* gorderazitzea (sarrera)
- los que se hallen en estado de embriaguez
edanean *pasatua* dagoenari (15. art.)

5. Informazio batzuren interpretazio ideologikoa.

- ... los domingos y días festivos reconocidos se prohíbe todo trabajo corporal.
igande eta jai-egun ezagutu guztietan debekatzen da *agirian* lanik egitea (2. art.)

- serán entregados a la acción del Juzgado municipal, si el acto no constituye delito, ó á la de los tribunales ordinarios, si llegase a serlo.

izango dira Tribunaletara entregatuak, *kastigatu ditezen legeari eta beren utsegiteari dagokion moduan* (4. art.)

- siendo responsables
eta izango dira *kastigatuak* (5. art.)
- será entregado á la autoridad ó á sus agentes
ipiñiko da autoridadearen eskuetan, *kastigatu dezan* (15. art.)

6. Itzultzailearen iritzi eta ideologi adierazpenak:

- observancia fiel de los preceptos divinos, base y cimiento de todo principio de autoridad.

Jaungoikoaren lege santuari begiratuaz, *zergatik lege santu oni zor zaion errespeto eta obediencia da agintaritzza edo autoridadearen zimendua* (sarrera)

- la conservación de los buenos usos y costumbres
galdu ez ditezen *alde oetan gordetzen diran oitura zar maitagarriak* (13. art.)

- por no estar en armonía...
zergatik erbesteko dantza berriak ez datoz ongi

- el decoro que se debe a las personas y a la moral.
eta *oraindik guchiago gizabidea zuzentzeko bearrenak diran gauza santuai zor zaioten errespetoari* (15. art.)

- coplas amatorias ni narraciones patibularias
gizon-iltzailleen kondairarik, urkamendiko gertakari ta beste orrelako gauza izugarrienik, ez eta ere, gizon eta emakume arteko bear ez bezelako adiskidetasunaren gañean ipiñitako bertsorik, edo beste edozeiñ, oitura onen kontrakorik (27. art.)

B) Informazio galerak:

1. Lexiko mailan eta XH-n itzultzaileak darabilen gramatikazko kategorian –transposizio bat egina badu, adibidez, aurkitu ez duelako gaztelaniazko hitzaren esanahi berekorik, edo agian XHko kontzeptuak dauden daudenean itzuliz gero euskaraz esaldia behartu egiten zela iruditzen zitzaio-lako itzultzaileari, edo konplexutasun handiko esamoldeak sortzen zirela, edo zehatz esateko hitzik ez zuela aurkitzen, edo auskalo. Baina gaztelaniaz hitz edo esamolde aski teknikoak, edo oso kontzeptu espezifikokoak iristen direnean gertatzen da batez ere.

- están obligados a prestar obediencia, respeto y *consideración*
obeditu eta errespetatu behar dituzte (sarrera)
- y sus *agentes* en el ejercicio de sus funciones
agintaritza daukatenak (sarrera, 15. art.)
- tratar con la mayor consideración y *cortesía*
moduz tratatu (sarrera)
- para que tengan verdadera y eficaz fuerza ejecutiva
lege egiazkoak izango badira (sarrera)
- serán entregados *á la acción del Juzgado municipal si el acto no constituyese delito, ó á la de los Tribunales ordinarios, si llegase á serlo.*
izango dira Tribunaletara entregatuak kastigatu ditezen legeari eta beren utsegiteari dagokion moduan (4. art.)
- siendo responsables los vecinos de las casas, que no observaren al efecto las reglas dictadas sobre limpieza pública en las ordenanzas.
ala egiten ez duten bezino guztiak (5. art.)
- adornen sus ventanas y balcones *con colgaduras*, ó en la forma más esmerda que sea posible
apaindu ditzatela, beren leio eta balkoiak al-duten modurik onenean (6. art.)

- establecer *puestos* de venta
ezer saltzen jartzea (10. art.)
 - *exigiendo* la conservación de los buenos usos y costumbres
que los regocijos públicos no se prolonguen más allá de las horas acostumbradas hasta ahora
galdu ez ditezen oraindano alde oetan gorde diran oitura
zar maitagarriak (12. art.)
 - por no *estar en armonía* con nuestro carácter ni acomodarse
al estado general de nuestras costumbres
ez datoz ongi gure izate ta bizimoduarekin
 - juegos de *envite y azar*
joko debekaturik
 - prohibiendo usar *para los disfraces* los trajes *que imiten*
los hábitos religiosos ó vestiduras sagradas y uniformes
que estén destinados á *ciertas y determinadas* clases oficiales.
debekatua dago Eleiz-jantzirik, edo beste autoridadea du-
nentzat izendatuak daudenik jaztea (17. art.)
 - se prohíbe hacer *parodias*...
Debekatzen da... gauzarik (18. art.)
 - quedando *en caso contrario, expuestos los promovedores* á
la pena que se les imponga
bestela kastigatuak izango dira (27. art.)
2. Beste galera zerrenda luze bat euskarazko testuaren egileak bere mezu hartzailearentzat ezagututzat eman eta ezabatu-tako informazioena da. Informazio galera gehienak era honetakoak dira. Hona zenbait:
- *profanación* de la religión y de las cosas santas
Erljiyo ta gauza santuai dagozkietenak (sarrerako izenburua)
 - reprimir cualquier falta *que observaren contra lo dispuesto en estas ordenanzas ó cualquiera otros bandos ó re-*

glamentos que la autoridad local tuviere á bien dictar en lo sucesivo.

bear ez dan gauzaren bat egin dutelako kontuan ipiñi bear diranean berriz arako gauzarik ez egiteko (sarrera)

- pronuncien con *escándalo* público
jende aurrean... beste edozein itz char esaten dituztenak (sarrera)
- se prohíbe todo trabajo *corporal*
lanik egitea (2. art.)
- u *ofendieren los piadosos* sentimientos de los que á ellos concurren
edo beretara joaten direnen sentimentuak (4. art.)
- procesiones *solemnes* de las grandes festividades *religiosas*
jai aundietako prozesioetan (6. art.)
- los vecinos *de las casas de la carrera*
jende guztiai (6. art.)
- contrarios al respeto *que se merecen las ceremonias* y cosas sagradas
Elizako gauzari zor zaion errespetoaren kontra (7. art.)
- expresiones *satíricas, bromas de mal gusto* o *palabras que ataquen el honor y la reputación de los mismos*
itz charrakin edo bear ez bezelako jardunakin (18. art.)
- y proferir *palabras ó ejecutar acciones ó gestos que ultrajen la moral y el decoro*
eta beste edozein orrelako gauza gizalege onari ez dago-kiona (18. art.)

3. Beste galera zerrenda bat testuinguruan beste leku batean ere aipaturik dauden informazioena da, testuinguru hurbilak ulertzeko modua ematen duelako: zentzu honetan **A.1** puntuaren alderantziazkoak lirateke fenomeno hauek.

- las personas que se *hallen en la carrera...*
Prozesioak pasatzen diran tokietan egon beharko dute gi-
zasemeak... (7. art.)
 - hasta que *acaben de pasar las procesiones por el sitio en
que se encuentren*
oso bukatu arte (2. art.)
 - la autorización *del alcalde para exhibirse, bailar, cantar y
pedir en público*
orretarako eskubide (12. rt.)
 - y *por esta razón se impedirá...*
etzaio utziko (15. art.)
 - se habrá de obtener *de la autoridad correspondiente...*
eskatuko da (16. art.)
 - la persona *que hubiere cometido alguna falta ó producido
algún disgusto ó exceso en su comportamiento*
orrelako gauzaren bat egin duenari (18. art.)
 - a pesar *de las promesas hechas*
alaz guztiaz (23. art.)
 - el director *de la compañía con su gente*
zuzendaria eta bere jendea (23. art.)
 - si se notare *que se ofrecen al público algunos ejemplares...*
baldin azaltzen bada... bat (25. art.)
 - los que ejercen *artes ó profesiones asimilables á las que
quedan mencionadas*
modu onetako bizimodua daramaten guztientzat (31.
art.)
4. SHko testuan badira zenbait kontzeptu itzultzaileak, non-
bait, itzulpen unitate hedatutzat hartu dituenak, eta halaxe
itzuli ere, baina pentsatzekoa da ea informazioak zehaztasu-
na galtzen ez duen horrelako itzulpenetan. Erlizjiozko usa-
dizko hitzak dira batez ere, eta badute zer ikusirik A.3)

puntuarekin; beste batzutan aspektu adierazpenak izan litezke; beste batzutan lotura elementu fosilduak dira, edo enfasia adierazpenak.

- El temor de la *ley* de Dios
Jaungoikoaren bildur santua (sarrera)
- en la observancia *fiel* de los preceptos divinos
Jaungoikoaren lege santuari begiratuz (sarrera)
- de acuerdo *siempre* con la autoridad eclesiástica
orretarako entenditurik Eleizako autoridadearekin
(3. art.)
- no se atentará en ningún sentido contra los principios de la Religión Católica ni de la sana moral
ez dala ezer egingo Erljiyo santu ta oitura onen kontra
(22. art.)
- falta al respeto debido a la Religión
Erljiyo Santuaren kontrakoa (24. art.)

5. Baina batez ere euskarazko testuak ematen duen informazioa erdarazkoak ematen duena baino jeneralagoa, zehazgabeagoa izateak eragiten ditu galera gehienak.

- defender *cuanto constituye a la conservación de la Religión* y de la moral evangélica
Erljiyo santuko gauzak eta Ebanjelioan agintzen direnak anparatzea (sarrera)
- serán castigados bajo las *penas* impuestas en las leyes *vigentes*
legeak agintzen duten moduan kastigatuak izango dira (sarrera)
- los *especuladores y directores de compañías de cómicos y volatineros ambulantes*
erriz-erri ibiltzen diran komediante ta beste (21. art.)
- en caso de que no lo tuvieren *impreso o manuscrito*
azalderik ezpadute (22. art.)

- los que traten de exponer *al público* kosmoramas y *cuadros que sirvan de entretenimiento al público*
kosmorama ta beste orrelako gauzen batzuk agertu nahi dituztenak (24. art.)
- ni otro *cualquiera en que se admita la libre concurrencia*
edo beste orrelaco berririk (26. art.)
- los que *obtuvieren la licencia de* que hablan los artículos anteriores
len aitutzen diran funtzioak egin bear dituztenak
(30. art.)

Sailkapenaren interpretazioa

Orain arteko sailkapen hauetan eztabaidagarria izan liteke bai sailkapena bera ere, beharbada beste moduren batzutura ere egin bait zitekeen. Fenomenu horietan, izan ere, batzuk oso identifika errazak, eta horrenbestez deskripzio errazekoak dira, aski zehatzak: **A.1** edo **B.3** adibidez, adierazi nahi den kontzeptua testu inguru hurbileko beste pasarteren batean adierazirik egon eta beste leku jakin batean ezabatzen denekoa, zeren ez bait da zaila kontzeptua adierazia dagoen pasarte hori aurkitzen.

A.2 eta **B.4** zerrendetan bildutako fenomenoak intepreta zailagoak dira. Kasu hauetan badirudi hizkuntza bateko testutik bestekorako aldea, erabiltzen diren hitzen hedadura semantikoari dagokiona dela, eta zaila da seguru egoten ere informazio irabazia edo galera dagoen ala ez. Beharbada itzulpen unitate hedatu (hitz bat baino gehiagoan adierazia) eta banakakoren (kontzeptu bakoitzeko hitz bana) arteko erlazioak ere gerta litezke askotan. Adibidez "en casos de necesidad" esaten denean "necesidad" hori ez al da **beti** "premiya aundia"; alegia "aundia" horrek gehitzen al dio ezer "en caso de necesidad" esaeran ageri den "necesidad"-i; gehitzen ez badio -duda egitekhoa bada eta, gutxienez- gaztelaniazko "necesidad" hitzak duen hedadura semantikoa da aztertu behar dena, eta begiratzen ari garen itzultzaileak SHko testuak interpretatzeko abilidade handia du. Ikusten da, beraz, zeinen harri labainen gaintetik ari garen erreka pasatzen, laprast egin eta muturrak hausteko zorian.

Gainera, bigarren moduotako kasuak, **A.2** eta **B.4** lehenengo bien gainera (**A.1** eta **B.3**) pilatzen dira maiz.

A.3 puntuan ageri diren kasuak antz handia dute **A.2** eta **B.4** puntuetakoekin. Baina, batez ere euskaraz ageri diren kontzeptu asoziazio horien batasuna, bat bakarra izatea, ez dago hain garbi eta izan liteke beste zerbaiten adierazle. Ez bait da garbi ikusten populazio berean, beharbada pertsona berberentzat –batzutan behintzat– gaztelaniaz nola esan litekeen “preceptos divinos” eta euskaraz Jaungoikoaren legeak zergatik izan behar duen beti “santua”. Berdin Erliyyoa, edo, baita, “alcalde” guztiek “alkate jaun” behar al dute euskaraz, herri berekoak izanda ere? Galde liteke, beraz, dudagarri utzita ere, itzultzaileak ez ote duen jartzen testuaren segmentuotan bere aldetiko informazioa, edo bere ohiturek eragiten diotena. Azkeneko zentzu honetan itzultzailearen ideologiako erizpideen eragina isladatuko litzateke pasarte horietan.

Itzultzailearen ideologiako erizpideen islada askoz ere nabarmenago ageri diren pasarteak **A.5** eta **A.6**-en bilduak dira. **A.5**-i dagokionez interpretazio ideologikoak dira. “Siendo responsables” izan ere ez bait da “eta izango dira kastigatuak”, nahiz eta pentsatzekoa izan horixe gertatuko zitzaiela artikulu horren arabera juzkatzen zituzten errukarriei. Beraz, itzultzaileak ondorioak aurreratu egiten ditu, SHko testuan inola ageri ez den moduan.

A.6 zerrendan bilduta dauden kasuetan, inork eskatu ez duten ideologi adierazpenak egiten ditu itzultzaileak. SHn inon ageri ez diren pasarteak tartekatzen ditu XHko testuan.

A.4-ren kasuan, beste moduko fenomeno bat dela esan liteke. Irakurlearekiko zenbait dei edo gomendio (katekekiko?) bait dira. Itzultzaileak SHko testuan ez duen funtzio bat hartzen du honelakoetan mezu-hartzailearekiko: aholkulari bihurtzen da, era horretara mezu emaitzaren bi protagonisten artean, emaile eta hartzailearen artean, XHko testuak SHkoan baino hurbiltasun handiagoa erakutsiz; mezu-emaileak hartzailea ezagutuko balu bezala edo; eta bide horretatik hizketazko mezu emaitzara hurbilduko ginateke.

Joera hori bera ageri da, baina beste ikuspegi batetatik, **B.2** puntuan biltzen diren kasuetan. SHko testuan ez bezala, XHkoa eraikitzean itzultzaileak gauza frogatutzat ematen bait du mezu-hartzaileak hainbat gauza ezagutzen duela. Mezu-emaile-

leak eta hartzaileak ezagutza multzo aski handia dutela konpartitua. "Bear ez dan gauzaren bat" egiteak zigorra duela jakiteko, behar ez diren gauza horiek zeintzuk diran jakin behar da aurretik. Mehatxuaren zentzu lauso hori euskarazko testuan gaztelaniazkoan baino mehatxatzaileagoa izatea tristea izango litzateke gauza. Mezuak, gutxi zehaztuagatik ulertu egingo direla segurutzat emateak, mezu emaile eta hartzailearen arteko ezagutza estua, hurbiltasuna esan nahi du alde batetik, pentsatu behar bait da itzultzaileak usteko zuela mezu hartzaile *haiei*, usurbildarrei, euskarazko testuak erdarazkoak adina informazio ematen ziela, gehiago ez bazen, hala ere.

Baina bestaldetik aitortu behar da agian itzultzaileak une hartan gogoan ez zituen beste mezu-hartzaile batzurentzat, guretzat adibidez, berekiko hurbiltasun hori ez dugunontzat, mezua lausoago geratzen dela euskarazko testuan gaztelaniazkoan baino, **B.5**-ean gertatzen den bezala: "los que traten de exponer al público cosmorama y cuadros que sirvan de entretenimiento al público" irakurtzen dugunean enteratuago geratzen gara "kosmorama ta beste orrelako gauzen batzuk" irakurrita baino; hartara kosmorama hori zer den ziur ez badakigu ere, besteak antzerki saioak edo zirela, eta gure aitona-amonek horixe zutela beren entretenimentuetako bat jakinaren gainean geratzen bait gara. Itzultzailea, beraz, **B.2** eta **B.5** puntuotan ageri diren kasuotan, seguru dago bere irakurleak ulertuko diotela zertaz ari den, modu jeneralagoan hitzegiten badie ere; itzultzailea irakurleekin fido da.

Orain arteko komentarioetan erabili ditugun erizpideetatik zerbait apartatzen diren kasuak **B.1**-ean biltzen direnak dira. Haren sarreran bertan esaten den bezala azkeneko puntuotan aipatzen den jeneraltasun horretara, mezu hartzaileari buruz duen erizpideagatik bakarrik ez baina hizkuntzaren beraren ezintasun bategatik iristen bait da. Edo sospetxa egin liteke behintzat, esamolde horietako bakoitzak gaztelaniazko testuan berari dagokion lekuan duen adierazkera teknikoagatik. Testu juridikoetan ageri ohi diren esamolde teknikoen itzulgaiztasuna gainditzeko zaila da euskaraz era horretako testuak gutxi direnean, hizkera hori finkatu gabe dagoenean. Edota, beharbada, testu segmentu horien itzulgaiztasuna ez baina, irakurleek era horretako mezuak ulertzeko edukiko luketen nekea du gogoan itzultzaileak: mezu-hartzailearen hizkuntz-gaitasunari dagokion erizpidea, beraz.

Informazio galera eta irabazietarako arrazoiak

Labur beharrez, beraz, hiru faktore moduk dirudi eragiten dituztela itzulpen honetan –behintzat– informazio galera edo irabazia.

1. Testuinguruaren antolamenduak eta beronen ulergarritasunak. Informazio jakin baten inguruan –aurretik batez ere– beste zein informazio dagoen, haren ulerkera baldintzatu egiten da, ulerkera ziurtatzeko berriroko aipamena derrigorrezko egiteraino. Informazio galera eta irabazioak itxurari gehiago dagozkio, horrenbestez, edukiari baino, eta beren ondorioa estiloari dagokiona gehiago da informazioari dagokiona baino.
2. Mezu emaileek (SHko testuan legegilea, XHkoan itzultzailea) mezu hartzaillearekiko adierazten duen hurbiltasuna eta ezaguera; mezu hartzaileri buruz (haren kultur ezagutzei eta hizkuntz kompetentziari buruz) dituzten erizpide desberdinak.
3. Itzultzaileak bere ideologia adierazteko izan duen borondatea.

Erizpideok dauden daudenean adierazita –laburtasunak, hala ere, sententziaren pisua ematen die hitz horiei–, badirudi, “Usurbill-ko erriyaren ordenanzak” euskarara bihurtu zituen itzultzailea gaitzetsita geratzen dela euskal itzulpenaren historiarako, eta ezingo duela jaso epaiaren harlosa lodia. Ez da horrela, gutxiagorik ere. Azkeneko 2. eta 3. puntuotan ageri diren erizpideak garaiko itzulpen moduan normalak zirenak dira, eta hemen prestatzen saiatu naizen metodologia hau garai bereko testuetarako erabiliko balitz, antzeko ondorioak atera beharko lirateke haietarako ere.

Lehenengo puntuari dagokionean, berriz, testu honen itzultzailea maisua da. Eta batez ere, kontutan hartu behar da itzulpen konparaketak duen prozesua bururaino eraman nahi duenak, beste ezeren aurretik SHko testua eta XHkoa ez-itzulpenez, testu-segmentu itzuli gabeek, soildu egin behar duela, eta hori bukatu duenean, orduan hasi litekeela bi testuetan dauden informazioen itzulmodua aztertzen. Alor honetan, Usurbilgo ordenantzen itzultzailea maisu aitortu behar da,

dudarik gabe, itzulpenean eraikitako testuari ematen dion gardentasunagatik batez ere. Itzulpenerako abildadea, ikasi litekeenean, ikasi nahi duenarentzat zer ikasi badu testu honek. Azterketa hori, ordea, orrialde hauetan kabitzen ez dena da.

SINTESIS

El autor ensaya en este artículo un análisis de las pérdidas y ganancias de información que se encuentran en la traducción al euskara de las **Ordenanzas Municipales de la Villa de Usúrbil** (1888), uno de los pocos textos jurídicos en euskara anteriores a este siglo.

Tras presentar brevemente el texto en cuestión y explicar su especial interés, el autor ofrece una clasificación, provisional, de los diversos tipos de ganancias y pérdidas de información que ha hallado en dicha traducción, e intenta explicar los posibles motivos, el concepto de traducción subyacente, que ha podido llevar al traductor a reelaborar el texto en euskara tal como lo ha hecho, así como las variaciones estilísticas que de ello se han derivado.

Apunta tres tipos de motivos:

1. Razones de tipo textual, de organización del texto y del contexto, que no producen pérdidas ni ganancias reales de información, sino sólo aparentes, pues se refieren solamente a informaciones redundantes, repetitivas, que se explicitan de diversa manera en el texto original que en el traducido.
2. Pérdidas o ganancias de información debidas a la diversa postura del emisor del mensaje respecto a su receptor, en el texto original que en el traducido. Este recurre en efecto repetidas veces, muchas más que el original, a conocimientos supuestamente compartidos por el receptor del mensaje jurídico. La proximidad entre emisor y receptor del mensaje aparece mucho mayor en el texto traducido que en el original. Por ello mismo se da también una mayor simplificación del lenguaje, sobre todo en los pocos tecnicismos que contiene el original.
3. A menudo el traductor intercala conceptos ideológicos inexistentes en el texto original: estimaciones expresadas en adjetivos, o hasta disquisiciones morales sobre las costumbres del país.

Todo ello, sin embargo, sin olvidar que ambos textos, el original y el traducido, están dirigidos -teóricamente- a la misma población, incluso, muchas veces -cabría pensar- a las mismas personas; de donde se podría deducir que, a veces -en este caso, al menos- la labor del traductor puede ser interferida por una diversa imagen del receptor de su mensaje según en qué lengua se le dirija.

SYNTHESIS

Here the author tries to analyze what information is lost and gained in the translation to Basque of "Bylaws of the town of Usurbil" (1888), one of the few juridical texts in Basque prior to this century.

After briefly outlining the text in question and explaining its special interest, the author goes on to put forward a provisional classification of the different types of losses and of what has been gained in the above mentioned translation, and tries to explain the possible reasons, the concept of the subjacent translation which induced the translator to reelaborate the text in Basque as he has done, as well as the variations which have been derived from it.

He notes three kinds of motives:

1. Textual - organization of text and context, in which no losing or gaining of actual information is produced but is only apparent as only redundant and repetitive information which is shown in a different way in the original text as opposed to the translated one.
2. The losing or gaining of information caused by the differing attitude of the transmitter of the message in relation to the receiver, in the original text and in the translated one. For this reason, a greater simplification of the language is to be found, especially in the few technical words which appear in the original text.
3. The translator often slips in ideological concepts which do not exist in the original text: estimations expressed in adjectives, or even moral digressions concerning the country's customs.

All this is true, yet bearing in mind that the original and the translated text were meant for the same population, even for the same people; from which it may be deduced that, at least in this case, the translators work may be affected by the different attitude he has of the receiver of his message depending on the language he uses with him.

Laburtzapena euskaraz

Gotzon Egia

1. SARRERA

Presatuak bizi omen gara egunotan. Lanak ahal bezain agudo egiteko sistimak dira nagusitzen, otordu azkarrek dituzte nonahi zerbitzen, loa laburtu egin zaigu halabeharrez. Hitzak ere laburtu egiten dira: hizketarako nagiak jota esaten diote *ande*, aho batez, eskolako haurrek beren andereñoari.

Hitzak laburtzeko joera hizkuntza idatzia bera bezain zaharra da, idaztearekin batera hasi zen hitzei zatiak lapurtzeko (ez ote dira hurbilak, hotsez gain, *laburtu* eta *lapurtu*?) ohitura, ahozkoa papereratzea kosta egiten bait da beti ere. Adibidez, azkar aspertu ziren izkribauak *anno Domini* idazten eta *a.D.* asmatu.

Baina hitzen laburtzapena den zaharrena delarik ere, aro modernoan hartu du bere benetako indarra, bereziki 1930 urteaz geroztik. Zientzia, teknika, nazioarteko erakundeak eta politika izan dira laburtzapenen sorleku, eta gizarte osoa pairatzaile.

Euskara ez da berandu arte zientzia, teknika, nazioarteko edo politika hizkuntza izan, eta ondorioz laburtzapena izakin linguistiko berria da euskaraz. Berria baina abailan etorritakoa, askotan hizkuntzak irentsi ahalaz gainerakoa, bestetan

erdal erasoaren poderioz irentsierazia... Laburtzapena, euskara modernoaren behaztopa!

Laburtzapenen kontua makina bat hiztegi berezitan aurkituko duzu aztertuta, baina bitan ere ez definizio berdinez. Denean azalpenik ordenatuena José Martínez de Sousak ematen du, eta nik horri segituko diot ondoko hitzotan.

2. LABURTZAPEN MOTAK

Hitzak laburtzeko eragiketa orori **laburtzapen** deritzo, baina laburtzapen mota guztiak ez dira berdinak. Teorian ezauzgarri diferenteak dituzte, praktikan oso maiz elkargainkatuz eta nahasirik azaltzen badira ere.

Martínez de Sousaren arabera, laburtzapen mota hauek berezi behar dira:

LABURTZAPENA	
HITZ BAKANAK	HITZ MULTZOAK
LABURKETA	AKRONIMOA
LABURDURA	SIGLA
IKURRA	
ZIFRA	

2.1. Laburketa

Hizkuntzalaritza hiztegi gehienetan **laburketa** hitzaren gorputz fonikoaren mozketari deritzo. Adibiderik errezenak hizkera kolokialean gertatu ohi dira, *zinema* esaten denan *zinenmatografo* osoaren ordainez esate aterako. Laburtzapen motu bera erabiltzen da ere izen hipokoristikoetan, *Koldobiker*en ordainez *Koldo* esaten denean.

Laburtzapen modu hau ez da ia sekula idatzirik erabiltzen, eta idaztekotan laburketa fonikoa esaten den bezala idatziko da, hau da, inolako markarik gabe (puntuak, etc).

Mounin-ek ere horrelaxe definitzen du, baina siglarekin nahasiz batzuetan. Lázaro Carreter-ek ez du jasotzen, eta **laburtzapen** izendatzen du lehen aipatutako *zine* adibidea. International Reading Association-ek berriz **laburdurapean** nahasten ditu laburtzapen mota guztiak siglak salbu.

2.2. Laburdura

Hitz bakanen nahiz hitz multzoen ordaina izan daiteke **laburdura**, azkenean beti puntu batez markatzen delarik, *Jn. Jaunaren* ordezkari adibidez. Bestetan bi hitz edo gehiago badira ordainkizun horien hasierakoak besterik ez dira jartzen maiuskulaz eta puntu banaz, *O.E.* adibidez *on eritziaren* ordezkari.

Gainerako laburtzapen moduek ez bezala (ikurra ezik) laburdurak ez du hitz berria sortzen, irakurtzerakoan alde grafikoa ez baizik eta ordezkatzeko d(it)uen hitz osoa(k) irakurtzeko d(ir)elarik. Esan nahi bait da, gutun baten oinean *Sin* idazten denean ez da *ese-i-ene* ez eta *sin* bera ere irakurtzen, *sinatzaile* baizik.

Laburdurak historia luzea dauka. Grekoek eta erromatarrek maiz erabili zuten, hainbesteraino Justinianok debekatu ere egin bait zituen. Laburduraren erak dira:

- **galera-laburdurak**: hitzaren bukaera da galtzen dena, letra bat baino gehiago gordez, garai batetan galdutako zatia apostrofe batez edo 9 zenbakiaz ordezkatzeko zelarik. Kasu ezaguna da *etc etceteraren* ordezkari. Mounin-ek sail honetan aipatzen ditu *Art.*, *Adj.* eta *Bldg artikulu*, *adjetibo* eta *building* hitzen ordain. Lázaro Carreter-ek berriz ikurrarekin nahasten du, adibide bakarra *kg.* aipatzen bait du.
- **trinkotze-laburdurak**: hitzaren barrua da galtzen dena, hasiera eta bukaera gordez *Dr.* bezala.
- **ideograma-laburdurak**: mezu berbal baten ordaina ematen duten zeinuak dira, bereziki matematikan erabiltzen direnak: + *gehi* edo *plus* hitzen ordezkari, -, =, &, %, \$, etc.

2.3. Ikurra

Gainerako laburtzapean modu guztiak ez bezala, **ikurra** guztiz modernoa da: Berzelius (1779-1848) kimikari suediarra hasi zen laburtzapean modu hau erabiltzen kimika-elementuak adierazteko hitzaren lehenengo letra edo lehenengoa eta bigarrena idatziz, beste elementuekin ez nahasteko eran. Gaur zientzia eta teknikaren beste alor askotan dira erabiliak ikurrak, hala nola meteorologian, matematikan edo puntu kardinalak izendatzeko. Badira erabilera zabaleko ikurrak normalizatzeko zeregina duten nazioarteko erakundeak, hauetarik nagusiena ISO (*International Organization for Standardization*) deitua delarik. Ikurrak dira, esate baterako, *kg*, *m*, *t* *kilogramoa*, *metroa* eta *tonelada* adierazteko.

Ikurrek ez dute beren idazkeran inolako markarik izaten, ezta punturik ere. Ez dute, noski, hitz berririk sortzen, irakurri ordezkatzeko duten hitz osoa egiten delarik. Hala ere, zientzi alorretik mundu zabalera irten izan diren ikur batzu lexikalizatu egin direla esan daiteke. Adibide bat: LSD *Lysergic Diethylamida*.

2.4. Zifra

Lehen lehenik esan behar da **zifra** laburduraren sinonimoa dela, laburtzapean era eta ordezkapena modu beretsuan egiten bait dira batean nola bestean. Baina badute diferentziarik ere: zifrak lotu egiten ditu letrak, tartean punturik gabe, adibidez izen-deituren inizialetan. Euskaraz bada adibide polita: *JEL* da euskarazko zifra bat, *Jangoikua eta lagi zara* esamoldearen laburtzapena, hasierako nazionalistek lema gisa erabili zutena. Bistan da *JEL* guztiz lexikalizatua dagoela: hara *jel*kide, *jeltzale*.

2.5. Akronimoa

Laburtzapean mota honek bi hitz edo gehiagotatik hitz berria sortzen du, haietako hasierako edo/eta bukaerako letra(k) hartuz. Gure arteko akronimoa dugu *Bidegoian* udalerrri gipuzkoarraren izena, zeina sortzen bait da *Bidania* eta *Goiatz* herrien izenetik.

Ohar bedi dena dela akronimoak beti hitz berria sortzen duela, hau da, "esangarri" izan behar duen hitza. Horregatik *Bidegoian* asmatu zuenak *e* bat sartu zuen tartean *Bide-* hasiera osatzeko, euskarazko beste hitz baten homonimoa eginez, eta *n* erantsi bukaeran, lekuzko euskal izen anitzetan arrunta (Ataun, Larrun, Lerin...). Munduan maiz erabili izan da akronimoa herri izen berriak sortzeko: *Soweto* (*South West Town*), *Pakistan* (*Penjab Afgan Kashmir Sind* gehi *-stan* atzizkia persieraz *lur* adierazten duena).

2.6. Sigla

Laburtzapen mota hau da gaur egun, alde guztietara, gehienik erabiltzen dena, eta beraz honek du guretzat garrantzirik handiena. Orain arte esandako guztien argitan, uler daiteke **siglak** gainerako laburtzapen mota guztietan parte har dezakeela, laburketa salbuetsiz. Izan ere, sigla galera-laburdura izan daiteke, hitzen hasierako letra baizik gordetzen ez denez. Era berean, akronimotzat jo daiteke sigla, hitz batzuen hasieren konbinaketaz osatzen bait da.

Nola berezi, beraz, laburdura, akronimoa eta sigla? Laburdura beti idatziko da puntuz, eta sigla punturik gabe. Akronimoak hasierako nahiz bukaerako letra bat edo gehiago har dezake, eta siglak beti hasierakoa besterik ez du hartuko. Akronimoak eta siglak, zeinek bere arauetz, beti hitz berri bat osatzen dute, punturik gabe idatzi eta silabaka nahiz letraka irakurtzen dena. Laburdurak, oster, ez du halakorik egiten ahal, irakurtzen dena hitz laburtua bait da eta ez laburdura bera.

Akronimoa eta sigla bereiztea, ikusten denez, ez da erraz. Akronimoaren osaketa nahastezina da (oroit *Bidegoian*), behar diren baldintzak ez badira betetzen, akronimoa ez sigla baizik izango litzatekeelarik. Baina, badira modu irregularrez sortutako siglak, hots, tartean bokaleren bat dutenak inizialez gain sigla bera silabaka esangarria izan dadin (RENFE siglak *Red Nacional de los Ferrocarriles Españoles* izendapenetik hartu da). Akronimoa, bestalde, minuskulaz idatziko da beti, eta sigla berriz maiuskulaz, nahiz eta salbuespen batzu izan minuskulez: bere argitalpenetan *Unescok* beti erabiltzen du minuskula.

Beraz esan beharko genuke sigla edukin semantikorik ez duen hitz berria dela, laburtu nahi den izendapen luzeago baten ordain gisa erabiltzen dena.

3. EUSKARAZKO LABURTZAPENAK

Lehenengo euskal laburtzapenak, mundu zabalean ez bezala, laburtzapen politikoak izan ziren. Lehen aipatu dugu JEL zifra, alderdi nazionalistaren sorreran filosofia eta ekintzabide politiko berria laburtzen zuena.

Baina frankismopean sortutako erakunde politiko eta armatuei zor zaie, duda gabe, euskal siglak mundura zabaldu izana. *Euzkadi ta Azkatasuna* denominazioa jatorki laburtu zuten ETA sortuz,aldi berean siglaren arau nagusia gogoan hartu (euskara arruntean *eta* da lotura elementuaren era, baina sigla esangarria izan zedin *ta* komeni zen) eta euskaraz zalan-tzarik gabe maiztasun handienaz erabiltzen den hitzaren homonimoa sortuz. Berezitasun hauek kontutan izanik, *Euzkadi ta Azkatasuna* da ETA siglak sor zitzakeen izendapen aproposena, *Estimated Time of Arrival* edo *European Teachers' Association* baino aproposagoa bistan denez.

Sigla politikoak ugari dira Euskal Herrian, baina ez dira beti mentura berdinekoak euskaraz nola erdaraz izan. Adibidez, PNV da alderdi nazionalistaren sigla, baita euskaldun gehienon ahotan ere, agian euskarazko EAJ ordaina askoz ere baldarragoa delako, esangaitzagoa nolabait (duela ez asko irakurri nuen alderdi barruko zenbaitek PNV EAJ nahi dutela bihurtu...).

Beste batzuetan badirudi sigla politikoak "politizaturik" daudela: HASI Herriko Alderdi Sozialista Iraultzailea *jasi* ahoskatzen dute euskaldunek nola erdaldunek, "h" jainkogabe eta marxista eztarri garratzez azpimarratuz edo.

Lehen ere esan dugu ETAREN hartan sigla batzuren doaia dela hizkuntzan bestela ere benetako hitza den baten homonimoa izatea. Euskaraz ez dira gutxi: ETA, HASI, HABE (*Hel-duen Alfabetatze-Berreuskalduntze Erakundea*), ERNE (Erzainen sindikatua), etc.

Politikaz landa, berriki administrazioan ari dira sortzen euskal siglak, batzuetan euskal senez (HIZPAL *Hizkuntz Puntu Arruntak Lantzeko Lantaldea*), maiz erdarazko siglen itzul-

pen gisa (SEFOCONA *Servicio Forestal y de Conservación de la Naturaleza* erdaraz BAIZER *Basozaintza eta Izadiaren Zainzarako Zerbitzua* euskaraz). Azken boladan euskal administrazioan laburtzapen bitxi moduko batzu famatu dira *-kidetza* atzizkiakz baliatuz moldatu direnak: *Osakidetza* (erdaraz *Servicio Vasco de Salud!*), *Udalkidetza* (erdaraz *Plan Foral de Obras y Servicios!*), *Elkarkidetza* (erdaraz *Mutua Complementaria de Derechos Pasivos* omen!). Mesede ederra egingo liguke *-kidetza* guztiok zer demontre esan nahi duten azalduko balute. Dударik ez dago behintzat orain arte zehaztu ditugun laburtzapen era guztien aurka direla.

3.1. Siglak eratzeko erizpideak

Orohar esan genezake siglak moldatzeko arauak siglaren ohizko definizioan jasoak direla (hitzaren hasiera letrak, edo beste termino batzuen hasierez osatutako termino berria), baina hori ez da beti halabeharrezkoa.

Izan ere, batzutan sigla modu arruntean moldatuta silabaka irakurgarria gertatzen da, hala nola BEZ *Balio Erantsiaren gaineko Zerga*, edo OLI *Ordenadorez Lagundutako Irakaskuntza*; bestetan berriz sigla esangaitza gertatuko litzatekeenez hasierako letrarekin batera hurrengo bokalak ere jasotzen dira, adibidez NOLEGA *Normalizazio Legeren Garapena* (Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailak Euskararen Normalizazio Legeren garapena koordinatzeko duen batzorde bat); bestetan berriz hitzen osagaiak (hitz elkartuak, erroa eta atzizkia, ea.) bereizten dira hasierako letrak hartzeko, adibidez ETB *Euskal Telebista*, edo EIMA *Euskal Ikasmaterialgintza*; bestetan hizkuntzaren benetako beste hitz edo elementurekin analogia biltzen da, hala nola GAUTENA *Gipuzkoako Autisten Elkar-tea*, non bukaeran *-na* erantsi bait da, agian *Autisten* horren analogiaz, agian euskarazko *norena?* deklinabide kasuaren analogiaz; bestetan azkenik hasieran letra bera duten bi hitz inisial bakarraz jaso daitezke, esate baterako lehen aipatutako HIZPAL (*Lantzeko eta Lantaldea l* bakarrenen ordainaz) edo BAIZER (*z* bakarra da *Zaintzarako eta Zerbitzua* adierazten duena).

Gogoan har bedi beti ere asko direla letraka baizik irakurri ezin litezkeen siglak, kontsonante-bokalez (LKI *ele-ka-i* ira-

kurtzen da *Liga Komunista Iraultzailea*) nahiz kontsonante hutsez moldatuak (HB *hatxe-be* irakurtzen da *Herri Batasuna*). Multzo honetan, dena dela, kontuz ibili beharra dago amaiezinezko siglak ez sortzeko, horrelakoak ere bai bait daude: GLFAEPOZ Gipuzkoako Leku eta Foru Administrazioi Eskubide Pasibo Osagarrietarako Zerbitzua.

Badirudi beraz sigla orean ezaugarriarik estimatuena silabaka nahiz letraka erraz eta modu erosoan irakur eta esan-garria izatea dela.

3.2. Siglen idazkera

Autore gehienek ustetan siglak idazteko era normalizatua hauxe da: maiuskulaz eta punturik gabe ez tartetean ez bukaeran. Sigla hitz arruntan gisara irakurri behar baldin bada puntuek eragotzi egingo lukete irakurketa. Letra maiuskulez, badirudi sigla batzuetan lexikalizatze eboluzio garbi bat dela: *O.N.U.*, *ONU*, *Onu*. Grafia honek siglaren betebeharra lausotu besterik ez du egiten. Badira sigla guztiz lexikalizatu batzu (*laser*, *radar*), zeinetan definizioaren siglak gaia edo materiala izendatzen bait du. Baina hauek ez dira minuskulaz idatzitako siglak, izen faktizioak baizik.

3.3. Siglen deklinabidea

Esana dugu sigla beti hitz arruntaren gisan irakurri behar dela. Hari honi segituz esan behar dugu ere sigla izen arrunta bezala deklinatu behar dela, hau da, euskal izen arruntak deklinatzeko diren arauak gordez.

Era honetan, sigla izenaren erroa balitz bezala jokatu dugu, "BEZa 1986 urtearen hasieran ezarriko da", "GAUTENAko Idazkari Nagusia", "EIMArean atal ezberdinak", etc idatziz. Gogoan izan idazkeran sigla eta deklinabide-atzizkia bereizteko modu bakarra dagoela: sigla beti maiuskulaz eta atzizkia minuskulaz siglari bitarterik gabe lotua.

Pluralean erne ibili beharra dago. Izan ere, siglak berak plurala den izendapena ordezkatu dezake, adibidez HT *Herri Taldeak*. Horietan, deklinabidea derrigorrez izango da beti pluralean, "HTek agiria zabaldu dute", etc. Baina berez singu-

larra den izendapena pluralez adierazi nahi baldin bada, inisialak errepikatuz egingo da: FFAA *Foru Aldundiak*; hauetan "Eusko Jaurilaritza eta FFAAak bat etorri dira", "FFAAek aurrekontuak prestatu dituzte", etc

Dena dela sigla bera deklinabiderik gabe idatziko da per-pausa baten barruan ez denean, bera bakarrik baizik azaltzen ez denean, titulo batetan adibidez.

3.4. Siglen ebakera

Ingleseraz sigla gehienak letraka irakurtzen baldin badira ere, gure artean ohizkoagoa da silabaka egitea, ahal den guztietan behintzat. Horrela DAK (*Drogaren Aurkako Koordinakundea*) dak esango da. Bestetan berriz ezinezkoa da, eta letraka irakurri beharra dago: AEK (*Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea*) a-e-ka.

Dena dela, gogoan izan behar da siglek izen propioen ordain direnez oso erraz identifikatu ohi direla haiekin, azentua ere horretara makurtuz. Eta badakigu izen propioak direla erdal azentuaz kutsatzen errezek: *tolósa* bezala jotzen dugu *gifár-be* esatera (*GIFARBE Gipuzkoako Farmazilari Bulegodunen Elkarte*).

3.5. Siglen itzulpena

Eskuarki siglak hizkutzak jakin batetan sortzen dira, eta hartatik hartzen dute beren forma. Gainera, hauetako asko nazioartean erabiliak dira, beti sortu zituen hizkuntzaren era berean.

Ondorioz, guztiz baliogabeko lana da siglak euskaratzen hastea. Baina hori baino inozoagoa da gure inguruetakoa erderek (gaztelera eta frantsesak) behinola siglak itzultzeko izan zuten joera aintzat hartu, eta siglak hizkuntza horietan erabiltzen diren bezala euskaraz erabiltzea. Aspertuta gaude "OTAN" irakurri eta entzuten, gaztelera eta frantseseraz baino ez duen forma horretaz: mundu guztiak NATO dio; eta gainera F. Krutwigek aurkikunde polita egin du -helas!- NATO siglak euskal izendapenarenak ere badirela ohartzuz: *North Atlantikoko Traktatuaren Organizationea*.

HIES ikusi nuen duela ez asko Eusko Jaurlaritzaren liburuskara batetan *Hartutako Inmuno-Eskasiaren Sindromea*, gaztelerazko SIDA adierazteko. Ostera ere, zergatik ez mundu guztian hedatua den AIDS?

Beste kontu bat izan liteke administrazioak eta gainerako erakunde publikoek sigla berri bat sortzen dutenean euskaraz nahiz erdarazko izendapenari dagokion sigla ez ote duen eman behar, eta areago, administrazio publikoan erabiltzen diren siglen indize ofizial eta normalizatuak egin beharko lituzkeela.

Noizko euskal sigla ofizial eta ez-ofizialen hiztegia?

Aipamenak

International Reading Association. 1985. *Diccionario de lectura y términos afines*. Madrid: Fundación Germán Sánchez Ruipérez.

LAZARO CARRETER, Fernando. 1953. *Diccionario de términos filológicos*. Madrid: Editorial Gredos.

MARTINEZ DE SOUSA, José. 1978. *Diccionario internacional de siglas*. Madrid: Ediciones Pirámide.

MOUNIN, Georges. 1982. *Dictionnaire de la Linguistique*. Paris: PUF.

SINTESIS

Uno de los problemas puntuales a resolver en el proceso de normalización del euskara, y por lo mismo de la traducción a dicha lengua, es el de la contracción de palabras o series de palabras, en sus diversos modos.

Tras una breve explicación de las diversas especies de contracción: contracción, abreviatura, signo, zifra, acrónimo y sigla, el autor se centra en el problema de la traducción de siglas, que es el que más a menudo toca resolver, sobre todo al traductor de textos jurídicos y administrativos.

La construcción de siglas en euskara, su escritura, su declinación y su pronunciación son diversos temas que trata brevemente.

Finalmente, el autor se plantea el problema de la traducción o no de las cada vez más abundantes siglas de uso internacional. En lo que se refiere al euskara, se da el caso de que muchas de ellas suelen acabar siendo traducidas a las lenguas de su entorno: el castellano y el francés, cambiando de forma con la traducción; a menudo, sucede también que la sigla que se usará en euskara es tributaria de éstas, de manera que no llega a ser ni la más usada internacionalmente ni tan siquiera una sigla que corresponda a un texto en euskara. Así, se escribe OTAN, como en castellano y francés, y no NATO, como en las demás, SIDA y no AIDS, etc., mostrando una dependencia más que discutible.

El autor propugna para estos casos la adopción pura y simple de las siglas de más amplio uso internacional, sin traducirlas, teniendo en cuenta sobre todo su rápida lexicalización.

SYNTHESIS

One of the most particular problems to be solved in the process of standardization of Basque, and therefore in the translation to this language, is the different ways of contracting words or groups of words.

After a brief explanation of the different types of contraction; contraction, abbreviation, sign, figure, acronym and initials, the author goes on to concentrate on the problem of translating initials which is one of the problems which most often need solving especially by translators of juridical and administrative texts.

The construction of initials as abbreviations in Basque, how they are written, declined and pronounced are themes which are briefly touched on.

Finally the author questions whether or not the ever increasing amount of internationally used initials should be translated. As far as Basque is concerned, it happens that many of them end up being translated into the neighbouring Languages -French and Spanish, changing depending on the translation. Very often what happens is that the initials that will be used in Basque are taken from these so that in the end they are neither the most used internationally nor even initials which correspond to words in Basque. So OTAN is written, as in Spanish and French, rather than NATO as in other Languages, SIDA rather than AIDS etc. which shows an unquestionable dependence.

The author advocates in such cases the straightforward adoption of the most internationally used initials, without translating them, especially bearing in mind their rapid introduction in every day language.

Unesco Albistaria eta euskal itzulpena

Gordailuko taldea

1. Hasierako kezka

Duela urtebete, oraintxe, Eguberri aurretik, dei bat telefonoz HABE-ko Alfabetakuntza Sailaren arduradunek eta elkarriketa batetan **Unesco-ren Albistaria** argitara eman eta euskal itzulpenaren ardura hartzeko proposamena. Ezin uka ustekabeen harrapatu ez gintuenik. Aurrez, UZEI eta beste talderen bati proposamen bera eta haiek errefusatu. Geuk, Gordailuko ekipoak, baiezkoa. Ez inolako zalantzarik gabe eta aldeko nahiz kontrako arrazoiak pisatzeke, ausartzia dexenterekin ere bai, baina baietz, prest ginela froga bat egiteko, ea... hala ekin genion delako Albistaria-ren euskal itzulpenari.

Otsaileko hilabeteetan etorri zen argitara lehen zenbakia Alfabetakuntza gaiaren inguru, eta bata bestearen ondoren, hurrengo hilabeteetan, **Herriak eta beren kultura, Hizkuntzak, zaindu beharreko altxorra**, beste biak. Hasteko, hiru-kote honen ardura eman zitzaigun eta hartu ere ez genuen gehiagorako konpromezurik, bada ezpada ere, hartu nahi izan. Eta arrazoia nahiko sinplea zen, geure buruaren indar edo ahalmenak neurtzeaz aparte, ekipoan lan egitea eskatzen zuela gisa honetako zeregin batek, eta ekipoa nola moldatu eta irizpide berdinetara edo behintzat beretsuetara nola bilduko

zen gutariko bakoitza ez genekiela. Funtsean, aldizkari kultural baten ardura hartzen genuen eskuartean, gai monografikoz horniturik den aldizkari batena eta zenbait gai guztiz teknikoak lantzen dituen aldizkariarena, hala nola astronomia, gerra nuklearra, etab.

Alde batetik ongi ohartzen ginen, **Albistaria**-ren edukin multzoari begiratzuz gero, zenbait gairen teknikotasunaz eta honek itzultzaileari gai horietan espezializatua ez izateak zekarkion zailtasunaz, eta bestetik, honek gure baitan zer suposatzen zuen, nolabait esateko, heldutasunik ezaz aparte, denboraren arazoa ere bai bait zekarren berekin, hots, hamabost egun edo askoz gehiago gabeko epe baten barne aldizkaria osatuko zuen orrialde multzoaren itzulpena behar genuela burutu, alegia.

Hala eta guztiz, kezka bakarrik ez, pozzgarritasunik ere bazen pisuaren balantzan eta lehen zenbakia burutu genuenetik beretik izan genuen horretaz konturatzeko egokiera. Itzultzaileoi, bere eginkizunak dakarkio hori, autore ezberdin eta ezezagunen pentsamendura hurbiltzeko eta berorien mezuan sakontzeko bidea ematen zigun. Bidenabar, behar da esan, gainera, lehenengo hiru zenbakiok (alfabetakuntza, kultura ezberdinak, hizkuntza handi eta txikiak) gai interesgarriak zirela benetan. Bestalde, informazio zabala ekarri ohi duen aldizkaria da, inon diren gai eta autoreak bilatzen dituelarik eta munduko herrialde nahiz arazo interesgarrien ezagutza ematen duelarik. Orogen buru, halakoxe ohore bat ere eskaintzen zuen gure aldizkariak: 32. postuan euskara, suedierarekin paretsuan, munduko hizkuntzen kontzertuan sartzen zela ikustearekin. Esan nahi bait da, **Unesco Albistaria** 30 hizkuntzetan argitara ematen zela 85eko Otsailera arte, harrez gero gure hizkuntzak suedieraren ondotik 32. lekua okupatzen duela orain.

2. Arazo nagusia

Berehalaxe jabetu ginen hasierako "teknikotasuna" deitu arazoa ez zela geuk uste genuen bezain arazo bihurria. Izan ere aldizkaria, bertan gai teknikoak jorratzen diren arren, dibulgazioko maila batetan ari bait zen. Artikulu ezberdinek itzulpen lanetan ere tratamendu ezberdina eskatzen dutela begien

bistan zegoen. Esaterako, ez da gauza bera apaindurazko artikulua literario bat ala zientifiko zehatz bat izan, edo kronika saltsadun bat edo txosten estatistiko soil bat. Eta esan dezagun bidenabar, aldizkariak denetarik duela. Laburbilduz, errealtatean, mezuaren arazoak du batzutan garrantzia eta estiloarenak beste batzutan.

Baina hasiera hasieratik besterik izan zen gure artean gako nagusia, eta puntu horretan zentratu zen gure arteko eztabaida ere: maila kulturala mantendu ala hau ulergarritasunaren zerbitzutan hein batetan sakrifikatu beharra. Bestela esanik, gure aldizkari hau zinez aldizkari kulturala izanik, eta euskara kultur baliokide ororekin beste hizkuntzen parean eta korronte berean sartu orde, guztiaren gainera ulerterraza egitea, gure hizkuntzak egungo egunean duen pobrezia edo irakurle eskasa kontutan harturik. Horra hor zertan zetzan aipaturiko gakoa.

Dena den, urratsak eman heinean eta esperientziak erakutsi bidearen arabera, praktikan halakoxe oreka bat gorde dugun ustea daukagu gaur egun. Honetan ezin uka Euskaltzaindiak erabakirik dituen arauak zehatz mehatz jarraitzeak bidea asko errazten duela eta era berean UZEIk, bere hiztegi teknikoak direla medio, eskaini laguntza eskerga ez dela inola baliagarritasun txikia.

3. Itzuri beharreko arriskua

On da Unesco-ren Albistariak nola funtzionatzen duen edo zein sistemaz baliatzen den bere funtzionamendurako jakitea ere. Hara, esaterako hilabete honetan ingelesa/frantseza/espainola, hiru hizkuntza hauetan argitara eman ohi da aldizkaria, eta ondoko hilabetean gainerako 29 hizkuntzetara itzultzen.

Gure kasuan, hots, euskal itzulpenaren kasuan, eta hasiera batetan behintzat, testu espainola baizik ez genuen izan eskuarte itzulpen lanetarako. Gauza jakina da honek berekin dakarren arriskua zer nolakoa den. Esan beharrik ez, espainolaren zerbitzutan jotzea (edo berdin da frantsesarenean) derrigorki itzuri behar den arrisku bizia dela. Geroago eskuratu zitzaigun frantses edizioa eta are geroago ingelesa. Hiru testuak begibistan edukitzea ezinbestekotzat ematen dugu, bal-

din eta euskal itzulpenaren egokitasuna segurtatu nahi bada behintzat.

Ez da batere begi zorrotza erabili beharrik, hiru testuok (ingelese/frantsesa/espainola) bata bestearekin konparatuz, bere artean hainbat ezberdintasun badela konturatzeko. Zenbaki bakoitzean aztertu ohi den gai monografikoaren nahiz artikulua bakoitzaren izenburuen arteko diferentziak adibidez; hala-ko edo holako autore brasildarra, japoniarra, arabiarra,... dela ezagutu arren, maiz askotan ez dakizu itzultzen ari zaren artikulua jatorriz zein hizkuntzatan idatzirik dagoen hiru hizkuntzetan dauden diferentziak ikusirik; espainolezko, frantsesezko edo ingelesezko testuek zenbait aldiz, informazioari berari dagokionean ere, desberdintasunik asko agertzen dute, batzutan batak besteek emaniko informazioa osatuz, nabarmenki murriztuz beste batzutan, eta, inoiz erabat kenduz, batzuetan parrafo baten edo lerro batzuren neurrira iristeraino. Horrek pentsa erazten digu artikulua batzu, bata bestearen itzulpen izateke, denak direla beste lan zabalago baten itzulpen-moldaketa, eta jatorrizko lan hori hiru hizkuntza horietariko batetan ezik, laugarren batetan idatzia egon daitekeela.

Bestalde, itzulpen hutsezko kasuetan, hots, moldaketarik ez dagoenetan, edozein itzulpenetan bezalaxe, ingeles-frantses-espainolean erabili diren hitzek edo esaldiaren antolaketek hiru testuen artean desberdintasun zenbait erakusten dute, batean, bitan edo denetan hizkuntz mailako interpretazioa egon dela agertzen delarik.

Hori, ondorioz, euskararako itzultzailearentzat, zalantza bidea izan ohi da, jatorrizkoa zein den, edo jatorrizkoari ondoen zeinek erantzuten dion ez bait daki, batzutan zailtasun eta beste batzutan laguntza izanez, aukerak zabaltzen direlako.

4. Arazo puntualak

Arazo puntualetan, badira aldizkari honetan, beren maiztasunagatik, garrantzi berezia daukaten batzu, eta edozein euskal testu landu samarretan gertatu ohi diren beste batzu.

Lehenengoen artean aipatuko ditugu:

- a) Toki izenak: estatu, hiri, herri eta eskualde izenak. Euskaltzaindiaren estatu-izenen zerrendak estatu gehienak dakartza (ez denak), baina toponimia nagusiaren arloko

gainerako izendegiari buruz ez daukagu erizpide garbirik. Izan ere, Euskaltzaindiaren aipatu zerrendan Herri-beheak eta Boli Kosta-rekin batera (itzuliak), Kosta Rika eta Puerto Riko (bere horretan) datoz, Frantzia eta Grezia-rekin batera, Ceylan eta Cypre, baina Txad, eta Txi-na, baina Bangla Desh eta Liechtenstein, Kambodia, Qatar eta Iraq. Beraz, nola idatzi behar ditugu toki izen ezezagunak? Jatorrizko izenak berak ere, gehienetan, ez ditugu ezagutzen espainolaren, frantsesaren eta ingelesaren bidez baizik, eta bakoitzak bere erara hartzen ditu. Gainera, askotan jatorrizkoa bertakoek izkribakera ez-latinoz (arabea, zirilikoa, ekialdekoak,...) idazten dutenez, haiek dakartzatenak transkripzioak edo are transkripzio egokituak izan ohi dira.

- b) Pertsona izenak. Hauen kasua aurrekoa baino sinpleagoa da: jatorrizko izena egokitu behar ez denez gero, alfabeto latinoz idazten direnak bere hartan uzteko ez dago problemarik, eta zailtasuna transkripzioa egin beharreko kasuetan soilik agertzen da. Hala ere, hemen sartuko genituzke baita "hugolien", "claudeliene", "cervantino" eta horrelakoak: "hugotar" eta "claudeliar" emango al dugu, "cartesiar" gogoratu? beti?, "cervantestar", "cervantesiar", "cervantino", ..., nola?
- c) Erakunde izenak eta siglak. Erakunde izenak itzultzerakoan, ezagunak diren erredundantziaren eta hitz elkar-tu multzoen problemak sortzen dira batipat, baina, hiztegi kontuan bezala, puntu honetan UZEIk bidea nahikoa erakutsi eta erraztu du. Halere, beste arazo hau ere sortzen da: beti itzulpena eman behar al da, ala beti jatorrizkoa, ala jatorrizkoaren ondoan itzulpena parentesi artean, ala alderantziz? zein kasutan? Beste hainbeste zailantza edo gehiago sortzen da siglekin, zer sigla erabili, euskarazkoak, jatorrizkoak, biak?, zein jatorrizko, ingelesa, espainola ala frantsesa?, zeinbat erakunderen kasuan ez dakigu garbi zein hautatu, ingelesezkoa ala frantses-espainolezkoa (gehlenetan berdinak), adibidez, UNO/ONU (Nazio Batuen Erakundea) eta OMS/WHO (Osasunaren Mundu-Erakundea). Bestalde, UZEIk berak Ekonomia hiztegian dakarren zerrendan ez du beti berdin jotzen, adibidez, aipatu kasuetan ingelesezko eta espainol-frantsesezko siglak soilik dakartzan bitartean, Lana-

ren Nazioarteko Erakundearen kasuan, LANE/OIT dakar, hots, euskal eta frantses-espainol siglak (ingelesak ez), eta, Europako Ekonomi Elkartearen edota Europako Ikatz-Altzairuen Elkartearenean, EEE eta EIAE, hots, euskal siglak bakarrik dakartza.

- d) Obra idatzien izenburuak. Hauekin, alde batetik, jatorrizkoa, itzulpena edo biak emateari dagokionez, lehen esandako gakoa bera dago; beste alde batetik, jatorrizko izkribakera ez-latinoa denean, gorago aipaturiko transkripzio-problemarena; eta azkenik, problema berezi bezala, obraren izenburuaren itzulpena emateko, gehien-gehienetan itzultzaileak izenburua bera besterik ez duela ezagutzen, hau da, obra ezagutu gabe eman behar duela izenburua, askotan bitarteko hizkuntzetan eman zaien itzulpenak itzuliz.

Aldizkari honen problemak, neurri batean espezifikoak, horiek badira, bigarren sailekoen artean, hots, edozein euskal testutan agertzen diren arazoan artean, garrantzitsuenak edo sarrienik azaldutakoak baino ez aipatzearren, hauek ekarriko ditugu gogora:

- Aposizioak, badakigu, aurreko izen baten erreferentzia darama. Hala, deklinatu behar den kasuan, zein deklinatu: biak, aposizioa bakarrik, ala izena bakarrik? Adibidez, "Hassan Fathy-k, arkitekto eta hirigile egyptiarrak,... teknikak asmatzen dihardu", "Hassan Fathy, arkitekto eta hirigile egyptiarrak,... teknikak asmatzen dihardu", ala "Hassan Fathy-k, arkitekto eta hirigile egyptiarra,... teknikak asmatzen dihardu"? eta arazoa are zailago bilakatzen da, berriz, aposizioaren barne esaldi subordinatuak agertzen direnean.
- Erlatiboen eta kontsekutiboen erabilerari dagokionez, klasikoan erara "non", "zeinen", "zeinaren" eta abar erabiltzeari buruz, gure ustez auzia ez dago horiek erabili edo ez erabakitzean, neurriz jokatzeko baizik, izan ere, bai batere ez erabiltzea eta bai asko erabiltzea, bi jokatibideak gerta bait daitezke nola ulergarritasunaren, hala dotoreziaren kaltetan. Eta gauza bera gertatzen da "hain zen ederra, non (ezen,...) txunditurik bait nindukan" moduko esaldiek.
- Adjektibo erreferentziala, izenlaguna, adjektibo soila, izenaren atzetik ala aurretik eta zein kasutan? Adibidez,

2. mundu-gerra / 2. gerra mundiala / munduko 2. gerra?, belgiar idazlea / idazle belgiarra?, hugotar hiztegia / hiztegi hugotarra / Hugo-ren hiztegia?,...

- Izen bat izenlagun edo adjektibo bat baino gehiagorekin doanean, guztiekin era berean jokatu behar al da, denak aurrera edo denak atzera botaz, ala hori ez al da beharrezkoa: adib., "espazio hiritar eta arkitekturala" / "hiri eta arkitektur espazioa" / "hiri-espazio eta arkitekturala"?
- Hitz elkartuen idazkera. Nola jokatu, lehen izena osorik gelditzen denetan marratxoa beti ipini, UZEIri jarraituz, hala HABEren bidetik, bigarren izena hitz elkartuetan maiztasun handiz agertzen denean, marratxoa kentzea hobe (maila, mota, saila,...)? Eta hitz bat beste bi edo gehiagorekin, errepikatu gabe, elkartu nahi denean, adibidez, "bero- eta ur-energia" idatzi, JAKINEk egiten duen erara, ala ez? Eta, bestalde, bi hitz baino gehiagoz osatutako hitz elkartuak onargarriak al dira?, beti?, hirukoak?... Adib., "udal-osasun-zerbitzua" baino onargarriago dirudi "udalaren osasun-zerbitzua" edo "osasunerako udal-zerbitzua" idazteak, aldiz, "eskulan-inportatzaile" ez da gogor egiten, agian "eskulan" hitz bakartzat haritzen dugulako.
- Komatxo arteko sintagma bat deklinatu behar denean, zer egin komatxoekin? Adibide batek erakutsiko du problema ongien: "hiru mosketariak", eta "hiru mosketarientzat", ala "hiru mosketari"-entzat, ala "hiru mosketari"entzat? Eta "lau ahizpak" balira, "ahizpentzat"-en, nola berezi atzizkia? ("Lau ahizpak"-entzat idazteak hori zerbaiten izenburua den kasurako bakarrik balio bait dezake). Non eta "hiru mosketariak" edo "lau ahizpak" *delakoentzat*, *deituentzat*, *horientzat*, eta era horretako irtenbideak beti erabili nahi ez badira, behintzat.

5. Heldutasun apurrak eta etorkizunari buruzko neurriak

Ia urtebeteko lanaren ondotik, atzera begiratuz gero, eta balarazio gisako zerbait eginez, zera ikusten dugu, Albistaria-ren itzulpen lanetan gorago aipatu euskararen kultur maila

eta ulergarritasunaren arteko oreka gordetzea aski positiboa izan dela gure iritzitan. Puntu honetan ez dugu batere dudarik. Besterik litzateke hala ere, hastapenetatik arduradunek proposatu helburuetara iristen ari garen ala ez eta baiezkoa bada, behar hainbatetan ari garen egiaztatzea.

Gu geuk, itzultzaile ekipoak, beste lorpen bat ere eskuratu dugu nahiko positibotzat daukaguna eta hein batetako heldutasunera geure esperientzia eraman duena, zuzenketa lana. Hasiera batetan lan honek bi fase bezala zituen:

- Itzultzaileak eskuz idatzitako itzulpena irakurri, hutsik nabarmenenak zuzendu eta makinazko idazketa burutztea.
- Bigarren irakurketa, azken zuzenketak eginuz.

Orain, azken zenbakiotan, gainera, makinaz idatziaren hutsak zuzendu ondoan edo aldi berean beste irakurketa bat egin ohi dugu batak bestearen itzulpen lanak hartuz, zenbait ambiguitasun argitzeko eta esaldi bihurriak konpontzearen. Oren buru, prozesu luzeagoa eta zehatzagoa eskatzen du itzulpena entregatu aurreko orrazketa lan honek. Honi, gainera, izenburuen, data ezberdinen, erakunde izenen, argazki oinetako artikuluen aipu etabarren artean gertatu diferentzien egokitzapena gehitzen bazaio, gure lana askoz emankorragoa bilakatzen da.

Halarik ere, ez dugu uste itzulpen lanetan guztia eginik eta lorturik dugunik, erdiespen horietan lokartzeraino. Ez gaude horretan, ezta gutxiagorik ere. Bi zeregin bederen badauzkagu jadanik burutu beharreko:

- a) **Fitxategia.** Izen toponimikoen eta patronimikoen, erakunde izenen, klixe eginen esamolde bitxiak, lexiko teknikoaren,... fitxategia.
- b) **Sistematizatze lana.** Badira arazo batzu oraino zehaztu edo arautu gabe (gramatikazko zalantza, sintaxi problemak, joera desberdintasunak,...) geuretzat bederen hauei buruz erizpideak finkatzea eta jokabide beretsua hartzeko bidea emango bait luke.

Eta azkenik aipamen gisa baizik ez bada ere, gauza egokia litzateke irakurle egoki batek urte honetan zehar argitara eman diren zenbaki guztiak hartu eta kritika balorapen antzeko zerbeit egin baleza. Honen parean, arazo hau geure esku ez badago ere, zabalkundearen arazoa dago. Ez dakigu nola eta

zer, baina **Albistaria** edonon ezagutzera ematea derrigorrezko dela uste dugu, baina hori bai, euskararen garapenak horrelako tresna ugari behar dituela ziur gaude benetan, eta gure aldizkaria, bere ahalbideen arabera, tresna egikor egin behar dela ere bai. Zeregin horretan gaude.

Itzulpen batzuren orpoz orpo

J.M. Zabaleta

Jakin 36 (1985) alean Joxe Azurmendik Gabriel Arestiren poemagintzari buruz idatzi eta argitara eman duen artikulutik hartu dut haria. Horretan, beste zenbait ikuspegiz gainera, Arestiren poemetatik egin diren itzulpenak salatzen ditu Azurmendik, eta hitz gogorrez salatu ere. Arestirena ez da kasu bakarra, ordea, itzultzen dena -gaizki ala txarki-; euskal obren gaztelaniarako itzulpenak -batez ere- ugaltzen ari dira: R. Saizarbitoria, M. Onaindia etab. Horrek ez dio mundu guttirako leiho zabalik irekitzen euskal literaturari -horiek obra itzulgarriak direla ukatu gabe, beste batzuk ere badira, bana-ka batzuk behintzat, itzuli eta ezagutaraztea merezi luketena- . Hizkuntza gutxiratuak itzulpen hartzaile izan ohi badira ere gehienez, sorburu hizkuntza ere izan litezke, kalitatezko obra sortzen duten idazleak baldin badaude beren esatekoaren adierazbidetarako aukeratu dutenak. Munduan bakarrak ez gara, estraterrestreak ere ez, gure kultura -euskaraz duguna- ez diren beste produktu asko munduko bestaldeko zokoan erakusteko badugu abilitadea.

Gure kulturen nor izan den bat Aresti izan da, olerkariz gainera bere pertsonalitate eta lanean erakutsi dituen ikuspegi anitzekin marka utzi du euskal literaturan, eta Euskal Herriaren kultur bizitzan. Hori ez da ukatzekoa. Normala da, beraz,

Euskal Herriaren euskarazko kultur bizitzaz interesa dutenek Aresti ezagutu nahia izatea. Arestik berak ere interesa izan zuen bere obra euskaraz bakarrik ezagutu ez zedin, euskaldunek euskaldunena bakarrik ezagutu eta horretan gera ez zitezen interesa izan zuen bezala. Askotan gertatzen zaio hori idazleari. Arestik berak egindako itzulpena, beraz, zentzu horretan hartu behar da.

Esan dudan bezala, beraz, J. Azurmendiren artikuluak eman didan albainuari tiraka, Arestiri buruz dioena osatu, eta beste bi adibide erantsi nahi nizkioke, erakutsiz, alegia, itzulpen txarrean ez onean ez garela bakarrak munduan. Aresti euskal literaturan nor baldin bada, eta bada nor, esan dugu, bada nor literatura txekoan Milan Kundera bat, eta bada nor alemanierazko letretan Martin Heidegger. Itzulpenerako arreta eta ganora izan da hiru kasuotan ere guk aipatzeko duguna, batzutan gutxia izatea eta bestetan askoa, hain zuzen.

Aresti: Kriseluko edizioa

Azurmendik hitz gogorak idatzi ditu Kriseluk 1976an argitaratu emandako **Gabriel Aresti. Obra guztiak / Obras completas** liburuz. Argitalpeneko testua bera ez du onesten, eta berdin itzulpena. "Hitz batean esateko -dio-: argitalpen horretako euskal testuak oso gutxi balio dizu, eta erdarazkoak, Arestirena ez denean, gutxi baino ere gutxiago... argitalpen modu horrek debekatua egon behar luke", edo beste batean dioena: "bistan dago: itzulpenak **Maldan behera** ez du ulertu", eta insistituz "antologia del disparate baterako tamainakoak" esaten du direla erruak eta erru horiek poemaren ulermenerako "gurutzealak" diren pasarteetan ageri direla gainera (abilidadea, hitzarena!).

Itzulpen horretako deskalabrozko erru mordo baten adibi-deak eman ondoren, hona nola errematatzen duen Azurmendik edizioa eta itzulpenarekikoa: "Konklusioa: hori errekarra bota eta Arestiren edizio berriak behar ditugu".

Bego, bada, laburrak ematen dion pisan ondorioa. Azurmendik berak luzatzen du, ordea, arrazoibidea. Hain zuzen ere, Gabriel Aresti, eta beronek euskal olerkian eta kulturean izan duen toki eragikorra ezagutu nahi duenak horrelako ediziotara beharko bait du, eta erdalduna denak horrelako itzulpene-

tara; eta dio Azurmendik: "Espantatzekoa, jende horrek barrutik benetan zer pentsatzen duen, jakitea izango litzateke".

Eskerrak, beraz, agian bi tomo horiek garestitxoak ere bazi-rela eta zabalkundea ere ez zutela izango ikaratzekoa.

Aresti: Cátedrako edizioa

Arestiren erdal edizioak ez dira horrekin agortu, ordea, **Maldan behera** eta **Harri eta herri**-ri dagokionean Arestizale erdaldunak badu beste nora joana, zale guztiak berehalaxe sendatuko dizkiona halere: **Gabriel Aresti: Maldan behera / Harri eta herri** (edición bilingüe de Javier Atienza) (letras hispánicas. Ed. Cátedra. Madrid, 1979). Azurmendik Kriseiluko testuaz handiak esan baditu, Cátedrakoaz hitzegtako berriak inbentatu beharko lirateke.

Atienzak Aresti bere neurrira ekarri eta bere tokian jarri asmoz egiten duen sarreraren ehundik gora orrialdeko zaparrada aguantatu duena, ez dago kuidarorik, ez da Maldan behera (literalki) amilduko. Atienzaren sarrera hori hemen ere hitz gutxitan despatxatu beharra bait dago, ezin gintezke luzatu. Esan, bakarrik, Atienza jaunaren hispanozilborrismoak ez duela kaburik, Burgosen edo bait dago munduaren neurria, ardatza, zimentarria, izateko arrazoia eta ondasuna oro; handik kanpora, iluna eta hortz karraska.

Hasteko, euskal literaturaren historian kokatzen saiatzen da (bost orrialde euskal idazleen klerikotasuna eta idazkien klerikaltasuna frogatuz, eta zortzi Leizarragarengandik hasi eta Lurdes Iriondorengana iristeko). Abiada beretsuan erabakitzen ditu Arestirekikoak ere (Aresti en su mundo; limitaciones de una lengua rural y clerical para una poesía social; "Maldan behera" el superhombre en la epopeya; "Harri eta herri": distribución y análisis).

Otero eta Celayaren jarraitzaile soila, Aresti. Blas de Oteroren ikasle (ikasle bakarrik? "hasta el extremo de parecer algunos versos de Aresti meras traducciones de los de Otero", dio), eta Celayarena "Norte"-tik, Arestik inori maisutasuna ukatu balio bezala. Hala ere, ordea, Arestiri ukatu egingo dio bere poemagintzaren sozialtasuna, Arestik ez dituelako ezagutzen Boterearen baliabideak, gainera Arestik ez du eskaintzen Boterearen eta langileria zapalduaren arteko dialektikaren

berri. Ez esistitzeagatik, ez dago Arestiren irakurlerik ere: "El nuevo lector, pues, quiere poesía que pueda entender, más que persiguiendo contenidos, procurándose ejercicios útiles en la lengua aprendida. Tras ese esfuerzo por el aprendizaje lo que más le halaga al receptor es que se hable de ese objeto de sus desvelos (que engloba, por supuesto, y simboliza otras muchas preocupaciones de tierra, cuna y sangre), que se hable, decíamos, de la lengua." (52 or.) (Maldan behera: Ariketak I; Harri eta Herri: Ariketak II). Aresti ez da poeta soziala, ez da iraultzailea (laburtuz), olerkari urbanoa, ba, hori zaila da ukatzen, aizu, jaiotzako partida behintzat Bilbokoa zuen eta.

Aresti, gainera, ia ia ez zen esistitzen ere eta. "Y es que -y no quiero que se malinterprete esta hipótesis- el fenómeno Aresti (le tocó a Aresti, podría haber sido otro) podría deberse a una situación de esquizofrenia colectiva. La doble personalidad del pueblo vasco es un hecho demasiado relevante para que, por temor o por comodidad, se oculte en el folio perdido. Por un lado, el universalismo que nace del reconocimiento a una cultura suministrada por el sentimiento tribal de conservación de la propia, unido a la reacción frente a quienes pretendían destruirla. Digamos que esa zozobra provoca verdadera enfermedad en la psiquis de un pueblo". Barka aipamen horren luzea, baina horren ondoren ezerk ez du harrituko. Gutxiagoagatik egin zuten beste bat ministro.

Hortik aurrera -Atienzak karrerilla hartu du-, Aresti misoginoa da, tradizionalista, sabiniano, klerikala (... "su formación clerical... le obliga a reproducir fielmente los esquemas bíblicos."), eta inbidia die Otero eta Celayari: "Este es el magisterio que acepta, mientras rechaza y ama al mismo tiempo a Blas de Otero y Celaya, esos poetas castellanos del País Vasco a quienes, desde la búsqueda de su propia identificación, envidia" (61. or.).

Atienzak Arestiri dion aiherkundea esplikatuko duten giltzetako bat, agian 72. orrian aurkitzen da. «...mantenemos el carácter contradictorio de su producción. Pero no por tratarse de excentricidades o "cabreos", sino por trabajar desde la red, desde la propia lengua. Y, si aceptamos que toda escritura supone una apología de lo existente, Aresti hace apología de la lengua y de cuanto la lengua representa». Horraino iritsiz gero, bestelako uraren oihartzunak dira gainerako guztiak.

Iritzi horiekin, masokista izan behar du gizonak, gainera **Maldan behera** berriro itzuli eta **Harri eta herri**-rekin batera argitaratzeko. Hona zer dioen itzulpenaz: "Hemos mantenido intacta la traducción de **Harri eta herri**, no muy afortunada, pero que respetamos por ser del propio autor de la obra en euskara. Para **Maldan behera** hemos trabajado nosotros una nueva versión que es la que ofrecemos, intentando más que ser literales (el empeño y el logro de Jon Juaristi es indudable en la única traducción que existe de este libro en las **Obras Completas**), ser fieles al contenido y acordes con las posibilidades estructurales de la lengua a la que se vierte." (109. or.).

Guk, gure aldetik, Atienzak dakarren testua (euskarazkoa), **Gabriel Aresti. Obra guztiak**, liburukoarekin frentez frentez jarri dugu. Handik hartua da, eta hango erruez aparte, berriak erantsi dizkio; zentzu horretan, Joxe Azurmendik hari egin dion kritika osorik dagokio honi ere.

Itzulpenaz den bezanbatean, J. Azurmendik Kriseluk argitaratutik bildu dituen disparteak banan banan konfrontatu ditugu Atienzaren testuarekin. Ez dugu gehiago luzatu nahi izan. Egia da Atienzak dioena, itzulpen berria paratu duela. Ulertu egin behar nola. Atienzak idazkera berri bat eman dio Kriseluko itzulpenari, baino disparteak, bat bera ere ez du zuzendu.

Hona adibide batzuk:

**Handiegia hamorrua
hartu zuena porrua.
Nagel gorritz, orin beilegiz, zikindu zaio txirula.**

*El puerco agarró
una gran rabieta.
Se le manchó la piel de costra roja, ahora amarilla*
(Kriselu)

*Mostróse airado el cerdo,
le dominó la rabia:
se le manchó la piel de barro rojo,
luego gualda.* (Atienza)

Edo:

Eta indarrarekin eman zuen bizia.
Y con la fuerza me ofreció la vida (Kr.)
Con su vigor me devolvió la vida (At.)

Eta beste hau:

**Gizona ihes egiteko
katigutasunetik.
Erdi bitan partitzen da,
gutziz engañaturik.
Gorputza eta arima
erratz dabil beti.**

*Para escapar el hombre
a la cautividad
se divide en dos.
Totalmente engañado
cuando en cuerpo y alma
equivocado siempre. (Kr.)*

*Para escapar el hombre
de la cautividad
se escinde en dos partes:
en cuerpo y alma va
totalmente engañado,
errando, equivocado. (At.)*

Aurreko bertsoetan ikusten den bezala, Atienzak Aresti (edo Juaristi) apaindu egiten du, txukundu, "presentable" samar jarri:

**Egiazki da iraunkorra
moztu gabeko ilarra.
Badirudi hortz-egin gabe ema-galdu bat, zaharra.
Neska pottola
badabil nola
aingeru bat zerutarra.**

*El guisante (?) en la rama (?), sin cortar
es ya viejo (?), sin duda*

como una prostituta, ya madura (?), sin dientes (?).

La oronda muchachita

camina alegremente (?)

como un ángel del cielo. (At.)

Edo:

**Amak amoriotsuak,
aitak bihotz-gogorak
gurasoek elkarrekin,
bake ondoko gerrak.
Alimentatzen dituzte
derrigorrean haurrak.**

Las madres amorosas

y los padres serenos

unos y otras,

en el tiempo de paz y de guerra

dan pan a sus pequeños,

siguiendo la ley de la naturaleza. (At.)

Beste honako hau:

**Makila batekin beleari kolpea
eman nion, eta heriotz dorpea
errezibitu zuen nigandik txoriak. (nigandik?)
Handik berehala zapaldu ere nuen
nire abarrekin barea, eta eznituen (abarkekin?)
behatzetan sentitu adur itsusiak.**

Con un recio garrote dejé al cuervo sin habla

recibió el pajarraco la más absurda muerte.

No tardé en asestarle un golpe a la babosa

con idéntica furia.

El mar de baba verde (itsasoa / itsusia)

no se atrevió a invadir los dedos de mis pies. (At.)

Batzutan, hala eta guztiz ere, disparate guztiekin ere, sar-
rera guztiekin ere, Atienzari ikusten zaio estilistikazko asmo
bat, batez ere zenbait gunetan Arestiren testuaren itzulpena

modu arkaizante batetan egiten duenean. Ez dakit esaten Arestiren doinua modu honetan itzuli behar den hain zehatz; egia da **Maldan behera**-n badela horrelako osagarri arkaizante bat, baina beharbada gaiaren tratamenduari dagokiona, beste ezeri baino gehiago. Atienzak, hori, hizkuntzaren jirabiratan eman nahi izan du, itxura denez, Arestiren testutik itzuli badu, eta ez Kriseluk argitaratu zuen itzulpenetik.

Baina hizkerari dagokionez, Aresti, non eta **Maldan behera**-n, ez da arkaizante izan; Arestik bere poemagintzan hizkera modu bat baino gehiago erabili ditu, aldian aldian gaiarekin ere zer ikusia izan dutenak. **Maldan behera**-koa euskara batuaren eredia izan zen ia, *avant la lettre*, *Batasunaren kutxa*-ko proposamendua baino oraingoagoa esateko modu batez. Beste kasu batzutan jakin izan zuen bizkaiera zaharraren gisako baliabideak erabiltzen, eta T.S. Eliot-en **Lau Quarteto**-ren itzulpenean Leizarragarengandik jasotako baliabideak, bere ortografia (orto- baten) eta guzti –“Lei baino çaharragoa” komentatu zuen batek.

Nola nahi ere, ukatu ezin den arazoa badago hor bat. Nola itzuli liteke finkatuta dagoen hizkuntza batera, erabilera handia, hedatua eta normalizatua duen hizkuntza batera, normaldurik ez dagoen beste hizkuntza gutxiratu bateko testua. Arestiren kasuan, nola adierazi liteke Arestik hizkera bat ala bestea erabiltzea hautatuz adierazten zuena gaztelaniaz. **Maldan behera**-ko hizkuntz aukera, hizkerarena hobeto esanda, alde batetik eten bat izan zen aurretiko olerti hizkerarekiko, eta gainera, ez da ahaztu behar, idazkera maisutza baten proposamendu bat izan zen, edo halakotzat hartu izan zen. Hizkuntzaren egoerak berak ere horretarako beta ematen zuelako. Pentsa bedi ez zela Aresti bakarra halakotzat hartu zena: Jakin eta Orixe arteko gorabeherak, Villasanteren eredia, geroago Txillardegirena, eta errosario luze batean maisu eta maixu kate luzea produzitu dugu, nork Homero bilatu bazegoelako eta nor itsutzeko prest ere bai sarritan. Gutxi baina zarata handikoa, izan nahiaren pagua.

Egoera hori ez dago gaztelaniaz, hizkeraren aukerarekin, adierazterik. Zentzu horretan poemaren protagonista hizkuntza bera da neurri handian, eta literatura asko ez daki hori ukatzera ausartzen denak. Arestiren hizkerak inguruan, izan zuen maisutza legezkoak, bere baitan darama, euskaraz bes-tetara ezin adierazia.

Susmoa ematen du arazo jenerala dela. Teorizatu izan da joandako garaietako testuen itzul ezinez, haien osoki interpretatu ezinez teorizatu izan den modu berean. Teorizatu izan da baita ere, elkarren urrutiko kulturek hizkuntza desberdinetan (eta hizkuntza berean ere bai zenbait kasutan) produzitu dituzten testuen interpretatu ezinez, denborak eta espazioak eragiten duten urruntasunak nekeztuko balitu bezala interpretazio horiek: kultura bat eta bestea garai desberdinetan, eta batez ere beren garapenerako bidearen momentu desberdinetan biziko balira bezala, garapen hori, nonbait, kultura unibertsal hipotetiko baterako hurbiltasuna, itzulgarritasuna eta harremanetan jartzeko samurtasunaz neurtzen delarik.

Uste edo aurreiritzi honen ondorioz edo, sarritan gertatzen da hizkuntza txiki edo gutxiratu batetik, edo behintzat literatura oparo eta garatu bat, normaldu bat ez duten hizkuntzetatik literatura oparo, tradizio handiko batera itzultzen denean, testu itzuliak ezin duela adierazi haren hastapenezko gordintasun hori, "apaindu" egiten da, askotan parafraseatze-ira iristeraino; barrokizatu egiten da nabarmentzeko moduan.

Milan Kunderaren irribarre mingotsa

Arestiren **Maldan behera** poemari horixe -eta gehiagotatu zaio. Baina ez da bakarra. Antzeko gauza gertatu bide zaio, berak salatzen duenez, Milan Kundera txekoari **Zert, La Plaisanterie** frantsesezko itzulpenean. (Ikus Milan Kundera: "**La plaisanterie était amère**". Le Nouvel Observateur, número 1.085, août 1985 edo El País, 15/XII/1985).

Gaztelaniaz **La broma** tituluarekin Seix Barral-en argitaratuko zen liburua, 1967-ko udaberrian argitaratu zen. Ordura arte gutxi ezaguna zen idazleak 120.000 liburuz goiti saldu zituen urtebetean. Handik urtebetera, ordea, errusoen inbasioarekin azpikoz gora jarri ziren hainbat gauza Txekoslovakian, eta horien artean **Zert**-en estimazioak: gaitzetsi, debekatu eta liburutegietatik kenduarazi egin bait zioten.

Une beretsuan, Frantzian, Aragon idazleak, Antonin Liehm idazle txekiarraren gomendioz, itzuli gabez ez bait zuen eza-gutzen, Gallimardi proposatu zion argitara zezan. Eta halaxe, frantsesera itzulirik, 1968 (oi!) urteko urrian eman zen argitara; berak dioen bezala "la parution de la "La Plaisanterie

aux éditions Gallimard a lancé mon roman dans le monde entier, en sorte qu'à la place des lecteurs tchèques subitement perdus j'ai eu (tout aussi subitement) des lecteurs nouveaux".

Geroztik etorriko ziren Kunderari Europako literaturan handiak diren idazleen artean toki segurua eman dioten eta gaztelaniaz argitaratu diren *El libro de la risa y el olvido*, *La vida está en otra parte* eta *La insoportable levedad del ser*, hainbatetan argitaratzeko segurutua eta Kunderazaleek oraintxe puntura arte irakurri ezin izan dutena.

Gauzak horrela zihoazela, sosegurik handiengan, 1979an, gutxien espero duen galdera egiten dio kazetari batek: "Vôtre style, fleuri et baroque dans "La Plaisanterie", est devenu dépouillé et limpide dans vos livres suivants. Pourquoi ce changement?" "Quoi? -galdetzen du berak estonaturik-. Mon style fleuri et baroque?" -Orduantxe irakurri Kunderak lehenengo aldiz bere liburuaren itzulpena. "Je fus stupéfait. Surtout à partir du deuxième quart, le traducteur n'a pas traduit le roman; il l'a écrit".

Hiru erru modu bereizten dizkio Kunderak bere liburuaren itzulpenari:

1. Ehunen bat metafora edergarri berri eransten dizkiola testuari ("chez moi: le ciel était bleu; chez lui: sous un ciel de pervenche, octobre hissait son pavois fastueux; chez moi: je fus saisi par la tristesse; chez lui: j'ai été pris au noeud coulant d'une enorme tristesse; chez moi: Helena bondissait de joie; chez lui: elle bondissait dans un sabbat du diable").
2. Ludvik, nobelaren bi herenetako kontalariari hizkera goitik behera aldatzen zaio, eta horrenbestez pertsonaren aiurria. Txekierazko testuan hizkera soil eta doia zuenak frantsesez argot, bitxikeria eta arkaismoz beterik hitzegtzen du, nola edo hala barre eragiteko ("chez moi: les femmes sont nues; dans la traduction: elles portent une costume d'Eve; chez moi: il la frappa d'une bouteille sur la tête; dans la traduction: il lui fila un coup de bouteille sur la cafetière...").
3. Kunderaren testuan, erizpideen adierazpena zehatza da guztiz, itzulpenean berriz, ingurunez eta zeharbidez bete, hitz berberaren errepikazioaren beldurrez, jatorrizkoan ez dauden sinonimoak erabiltzen direlako, etab.

Hamabi urte "La Plaisanterie" Frantzian era horretan eza gutzen zela. "En 1968 y 1969 La broma fue traducida a todos los idiomas occidentales. Pero qué tristeza. En Francia el autor reescribió prácticamente mi novela, cambiando totalmente mi estilo. En Inglaterra el editor cortó todos los pasajes reflexivos, eliminó los capítulos musicológicos, cambió el orden de las partes, recompuso la novela. Otro país. Encuentro a mi traductor: no sabe ni una palabra de checo. "Cómo tradujo usted?" Responde: "Con el corazón" y me enseña una foto mía que saca de la cartera. Era tan simpático que estuve a punto de creer que realmente era posible traducir gracias a una talepatía del corazón. Pero desafortunadamente, todo era más sencillo: había traducido a partir del rewriting francés, al igual que el traductor en Argentina", komentatzen du beste itzulpenez ere (El País).

"Espantatzekoa, jende horrek barrutik zer pentsatzen duen, jakitea izango litzateke" errepikatu liteke berriro. Hamabi urteren buruan Kunderak berak Claude Corutot-en laguntzarekin berriztu egin zuen frantsesezko testua. Eta 1984ean, berriro, frantsesa hobeto ezagutzen zuela, goitik behera zuzendu, berritortik itzuli testua.

Arestik ez zuen iraun bere testuen itzulpenak modu horretan zaintzeko. Bestela sinatuko zukeen berak ere Milan Kunderak dioena: "alors je n'avais pas l'habitude de lire et de contrôler mes traductions; aujourd'hui, hélas, je consacre à cette activité sisyphesque presque plus de temps qu'à l'écriture elle même". Itzulpena horrela zaintzeko ordea, edo zeuk egon behar duzu bertan, edo nork zaindua eduki behar duzu: ezagutzaila, itzulpen kritikoa, edo itzultzaile arretatsua.

Martin Heidegger, frantsesari lana errazten

Martin Heidegger filosofo alemanaren testuen itzulpenak arazo biziro larriak ditu frantseserako. Askotan saiatu dira, baita etsi ere filosofo frantsesak alemanaren testua bereneratzen -itzultzea ulertzeko beste modu bat da-. Heidegger-en filosofiaren ulerpenerako E. Levinas, J. Wahl, G. Gurvitch, A. de Waelhens, J.P. Sartre bera, saiatu dira lanak argitaratzen.

Itzulpenetan, Henri Corbin-ek argitaratu zuen, lehenbizikoa, *Qu'est-ce que la métaphysique* (1938), M. Heidegger-en

zenbait testuren itzulpena. *Sein und Zeit* itzuli gabe utzi zuen. A. de Waelhens-ek liburu horren erdia itzulirik, bertan utzi zuen, aurrera ezinda, 1964-ean.

Heidegger-enetik egiteko itzulpena zailtzen duen arazorik larriena filosofia alemanaren eta filosofia frantsesaren tradizioen elkarrekiko bestelakotasuna da batez ere. Tradiziozko alde horiek, normala da, hizkera desberdinetan dute islada; eta frantsesek filosofian egiten dutena dibulgazioa —eta hori ere ozta ozta— dela esatea modan egon izan da filosofi giro (?) jermanizanteetan. Frantsesetan filosofia modu batzuri "germaniser" deitzen dioten bezala; batzutan, hala ere, "rahnerizatu" euskaraz ere erabili izan da, alemaniako teologiagatik.

Nolanahi ere, egia da filosofia frantsesaren historian nekez aurkitzen dela obra bat filosofiazko hizkerari alemanieraz ohi zaion bezain zentzu tekniko lotuko zaionik. "Rahnerizatu" bada alemana "bergsonizatu" izango litzateke frantsesez ohizkoena, edozein "honnête homme"-k ulertu beharko lukeen moduan idatzi, alegia.

Frantsesez joera hori izan bada, Alemanian ez dago Bergsonekin konparatzekorik. Kant-ez geroztik edozein filosofok edo filosofia ikaslek badaki, eta halaxe onartua du filosofiaren ataritik barrena abiatu orduko teknolekto baten zentzu handia duen hizkera bat topatuko duela berehalaxe. Eta filosofian bezala giza zientzia orotan. Hegel-ek edo Heidegger-ek dituzten arazo beretsuak dituzte itzulpenarako Marx-ek edo Freud-ek ere; begira bedi, bestela, Marx-ek testuen itzulpenen historia-ra, adibidez.

Heidegger ere, Alemaniako filosofi tradizioaren zorduna bait da, ez da besteak baino itzul errazagoa, frantsesentzat. Are zailago, pentsakera moderno teknizismoz beteagoa den heinean.

Nola eman, bada, Heidegger frantsesez? Nola egin frantses eta aleman tradizio horien arteko zubia?

Heidegger-en kasuan bi aldetatik eman dira elkarrengana-ko pausoak, itzultzaileen aldetik, eta Heidegger beraren aldetik. Jean Beaufret, alemanaren obra asko frantseseratu dituen itzultzailea, urtetan saiatu da, bere aldetik, frantseseko hizkera, haren filosofiaren adierazteko gaitzen, malgutzen eta trebatzen: "son œuvre, pendant toutes ces années, a été de rendre la langue française capable de se mettre à l'écoute de ce que cherche à faire apparaître Heidegger, et ceci sans abandonner

le style propre de la langue française, sa clarté propre, sa limpidité, que Heidegger admirait tant”.

Langintza horrek, besterik gabe, filosofoei eta itzultzaileei eskatu dien arretak, nahikoa esan nahi du zenbat denbora hartu duen Heidegger-en frantseseratzek: “Notre façon de traduire Heidegger à present est guidée par cette exigence très profonde de ne pas sacrifier la langue française, de ne pas la transformer en una sorte d'algebre que rendrait capable de faire des opérations. Ce qui serait un contre-seus absolu”. Frantsesez filosofia ulertzeko balio duen hizkera alemandu eta atzerritartu gabe, beraz; teknifikazioaren izenean hizkera hori kaltekoz bete gabe. Halaxe behar bait zuen Heidegger-ek berak zioena betekoz bazuten: “la langue est beaucoup plus pensante que nous”.

Itzultzaileek baldintza horiekin lanean ziharduten bitartean, Heidegger berak ere egin du bide zati bat. Zeren Fr. Féderier-ek dioenez, haren azkeneko testuak frantsesera erraza goak iruditu bait zaizkio askoz ere, lehenengoak baino. **Sein und Zeit**-en askoz ere fidatuago ageri zen Heidegger hizkuntzaren zehaztasunarekin, zahartzenago eta irakurleak fenomenoak berak atxiki dezan bultzazaleagoa ageri izan den bezala: “hitza eta deskripzio iharduna baino lehen, fenomenoak beti aurretik, eta haien ondoren, geroago, kontzeptuak”. **Sein und Zeit**-en argitalpenetik azken urteetako idazkietara filosofiazko hizkeraren sinplifikazioarako ahalegin handi bat ikus liteke.

Kasu batzuetan, hala ere, Heidegger berak, sakrifika zezakeen guztia sakrifikatu nahi izan zuen frantseseko testuak bere pentsakera zuzen adierazi zezan: Jean Beaufret-ek kontatzen duenez, Unesco-ko konferentziaren itzulpenetarako, alemanierazko testua zuzentzeko gomendatzen omen zion Heidegger-ek, frantseseko itzulpenaren baliokide osoko izan zedin.

Heidegger-en bidean ere ez da dena izan, ordea, erreberentzia eta laudorio. Urte honetan bertan E. Matineau-k izenpeturik, **Sein und Zeit**-en itzulpen frantses oso bat argitaratu da, frantseseko lehena. Itzulpen “ofiziala” egiten ari den garaian, “pirata” horren agertzeak urduri jarri ditu Heidegger-zaleak. Eta horrelakoetan gertatzen den bezala, bedekazio eta eskomikazio guztien hotsak entzun dira bestaldeko horretan. Eta azkenean, itzulpenak barik, legeak han ere pisua.

Heidegger-en itzulpen prozedura, eta horretan erabili den arreta, hartu den astia, ereduzkoa da, bere gehiengan. Zer ikasia badu, eta inbidia emango lioke, horrek bai, Aresti berari ere, hari izan dioten begiramenduak.

SINTESIS

En este artículo el autor recoge tres casos de traducciones. Tres autores, Gabriel Aresti, Milan Kundera, Martin Heidegger, cuya obra ha sido traducida respectivamente al castellano en el primer caso y al francés en los siguientes, con muy diversa fortuna.

El poema **Maldan behera**, de G. Aresti ha sido traducido dos veces al castellano, la primera de ellas por la editorial Kriselu; traducción plagada de errores, como ya fuera denunciado por el escritor J. Azurmendi en la revista *Jakin* (n. 36, 1985). La segunda traducción fue llevada a cabo, según su propia afirmación, por J. Atienza, y publicada por la editorial Cátedra (Madrid, 1979). Por lo que se refiere a esta traducción, el articulista resalta la parcialidad y fobia que el traductor crítico muestra hacia G. Aresti, la absoluta falta de comprensión y conocimiento sobre el contexto en que aquel escribe, y denuncia además la falsedad de la pretendida traducción "desde el original" por parte de J. Atienza; pues tal "traducción" no pasa de ser una adaptación, un apaño de la traducción publicada por Kriselu (1976), que recoge todos los errores de aquel y añade alguno.

El caso de G. Aresti no es excepcional, sin embargo, pues se podría calcar la misma historia sobre la primera traducción francesa del autor checo Milan Kundera, premio Europa de Literatura 1982. La **broma** fue traducida al francés -reescrita, afirma M. Kundera- en 1968. La mayor parte de las traducciones de la misma publicadas en Occidente son retraduccionen de esta primera, y acumulan todos sus errores. Afortunadamente, M. Kundera ha podido -como no lo pudo G. Aresti- rehacer todas sus traducciones, y ocuparse más personalmente de tal labor.

El caso de las traducciones al francés de los textos filosóficos de M Heidegger es el polo opuesto y sirve de contrapunto a los anteriores, por el esfuerzo de adaptación lingüística, claridad y cuidadoso empeño puesto en la obra por el equipo de traductores.

SYNTHESIS

In this article, three types of translations are presented. The works of the three authors, Gabriel Aresti, Milan Kundera, Martin Heidegger have been translated into Spanish in the case of the first author and French in the case of the other two, with varying results.

The poem "Maldan behera" by G. Aresti has been translated into Spanish twice, the first time published by Kriselu –it was so littered with mistakes that it was denounced in the magazine *Jakin* (n. 36, 1985) by the writer J. Azurmendi. J. Atienza admitted to having done the second translation which was published by Catedra (Madrid, 1979).

The writer of this article comments on this translation pointing out the bias and even phobia shown by the translator/critic towards G. Aresti; the total lack of understanding and knowledge of the context in which the latter writes and also denounces the falseness of the so-called translation "from the original" done by J. Atienza. This "translation" is really no more than the adaptation of the one by Kriselu (1976) –it includes all the previous mistakes and even a few more.

G. Aresti's case is not, however exceptional. Almost the same thing happened with the first translation into French of work by the Czech author, Milan Kundera, the 1982 Europa Literature Prize-winner. "The Joke" was translated into French –or 'rewritten' insists M. Kundera in 1968. Most of the translations of this piece of work published in the Western world are retranslations of the first one –and include all the errors. Fortunately, M. Kundera, unlike G. Aresti, has been able to revise the translations of her work and be more personally involved in the translating.

The case of the translations into French of the philosophical texts written by M. Heidegger is just the opposite and serves as a reference point in the other two cases, showing the effort made in linguistic adaptation, the clarity and great pains taken in this work by the team of translators.

Itzulpena eta EIMA programa

Imanol Tapia

Eusko Jaurlaritzak 1985erako bultzaturiko EIMA programak, beronen Hezkuntza eta Kultura Sailak euskal liburugintzarako sortu duen laguntza plangintza da, eta, jakina, geure gaia itzulpen arloa denez, ondorengo orrialdeetan saiatuko gara argitzen zein eratan lantzen duen programa honek itzulpena eta beste atalekin konparatuz zenbaterainoko garrantzia eman zaion.

Aipa ditzagun lehenengoz Eusko Jaurlaritzaren txostenean **Ezaugarri nagusiak** izenburupean adierazten diren zenbait xehetasun:

“BIGARRENA.- Laguntza-plan honek Eskolaurre, Oinarrizko Hezkuntza Orokor, Hezkuntza Berezi, Helduen Hezkuntza Iraunkor eta Irakasmila Ertainerako (Batxilergo Bateratu Balioanitza, Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea, Lanbide Heziketa eta Irakasmila Ertainen Erreforma) ikasliburuak hartzen ditu kontuan. Arauzko irakaspidetik kanpoko ikasketetarako euskal ikasliburuak ere kontuan hartu ahal izango dira, Hezkuntza Sailordetzak hala erabaki dezanean.

HIRUGARRENA.– Ikasliburuen sailean, oinarritz, ondo-ko hauek hartuko ditu laguntza-plan honek kontuan:

- a) oinarritzko materiala
- b) material osagarria
- c) irakasleen prestakuntzarako materiala

SEIGARRENA.– Laguntza-planera bil daitezkeen ikasliburuak, beren orijinaltasun-mailari dagokionez, honoko hauek dira:

- a) sorkuntza-lanak
- b) bestetatiko egokitzapenak
- c) bestetatiko laburbilpenak
- d) itzulpen zuzenak
- e) itzulpen egokitua edo libreak

Laguntza-jasotzaileak

ZORTZIGARRENA.– Euskal ikasliburugintzan diharduten eta beharrezko lege-nortasunez horniturik dauden argitaletxeak eta egile-editoreak izan daitezke, nor bere neurrian, laguntza-jasotzaile.

HAMAİKAGARRENA.– Diru-eskabidea egin eta laguntza-agindua jaso izanik, ikasliburu jakin bat Hezkuntza Sailordetzak finkaturiko epe-barrutian argitaratzen ez bada sailordetza honek guztizko edo partezko laguntza-murritzapenak ezarri ahal izango dizkio kasuan kasuko ikasliburuari laguntza-plan honen hurrengo ekitaldietan.

HAMABIGARRENA.– Ikasliburu defizitarioei bakarrik eskaini ahal izango zaie dirulaguntza. Hots, prestakuntz kostuak salmenta bidez berdindu edo gainditu ezin dituzten ikasliburuei.

HAMAHIRUGARRENA.– Laguntza-plan honetara bildu ahal izateko, argitaratzekoa den ikasliburuak pareko erdal ikasliburuen prezio standard-aren antzekoa izan beharko du salneurritz...”.

Hauek dira, beraz, nire ustez, irakurleari gehien interesatuko zaizkion ezaugarriak.

Puntu hauek gaingiroki aztertuz, zenbait ondorio atera daitezke:

- EIMA programa irakaskuntzarako burututako plangintza da eta bertan dauden zulo eta beharrei erantzuteko egina, eta behar hauen artean sartu da itzulpena, maila guztietan hartuz.
- Laguntza hau, zortzigarren puntuan adierazten denez, argitaratzaileari, nahiz argitaletxe edo egile-editoreari eskaintzen zaio, hain zuzen ere.
- Bestalde, epez kanpo argitaratzeak, hamaikagarren puntuan adierazten denez, osozko edo guztizko laguntza murriztapena suposatuko du. Beraz, praktikan itzultzaileen kasuan konkretuki, profesionaltasun ezagatik sarritan kunplitzen ez den baldintza betetzea eskatuko luke, itzulpen lana epearen barruan amaitzea alegia.
- Hamabigarren puntuan defizitariotasuna agertzen da. Argi dago, geroxeago adieraziko dugun bezala, itzulpenak kostu handiak dituela.
- Hamahirugarrenari dagokionez, hauxe da neure ustetan, euskal editoriale guztiak dugun helburua, hots, erdal liburuen kalitatearekin batera, salneurri berdintsuan plazaratzea, eta esango nuke, laguntza honek, soil soilik, Euskal Herrian egiten diren tirada urriek suposatzen duten salneurri altuak, erdarakoen parera jaisteko balio duela. Beraz, esijentzia bezala planteatzen du Eusko Jaurlaritzak puntu hau laguntza jasotzeko.
- Azkenik, esan beharrean gaude praktikan liburu guztien artean laguntza banatzeko halako formula matematiko bat dagoela, baina ez dugu agertuko, irakurlea xehetasun teknikoekin ez aspertzeko. Bakarrik aipatu bost parametro daudela:

- . Defizitariotasun maila
- . Xede-adierazgarria
- . Salneurria
- . Salmenta-kopurua
- . Orijinaltasun maila

Beraz, liburu bakoitzeko jasoko den laguntza programa honetan sartzten diren liburuei asignatutako diru-kopurutik, pa-

rametro hauek direla medio, lehen aipatutako formula matematiko hori aplikatuz egingo da.

Horra, beraz, hemen, laburki argituta, EIMA delako programaren azalpena.

Harira joanez, eta parametro hauen esanahian gehiago sakondu gabe, esan dezagun praktikan itzulitako eleberri edo nobela bati orijinaleko batekin konparatuz eta orrialde berdinekin, erdia gutxi gorabehera asignatzen zaiola.

Azter ditzagun ondoren, batuz beste mende honetako —eta beraz, egile eskubideak ordaindu behar zaizkio, 60-80 urte hil zenetik igaro ez badira— egile baten obraren itzulpenak sortzen dituen kostuan.

Konkretatuz, har dezagun 250 folioko itzulpen bat eta jar diezaiogun 700 pezetako salmenta salneurri hipotetiko bat. Hasteko, esan behar idazle gehienek agente literario baten esku uzten dituztela beren egile eskubideak eta azken hauei zuzendu behar zaiela proposamena, eta hau jeneralean publikorako salmenta salneurritik %7 izaten dela, erdia kontratua sinatzerakoan eta beste erdia liburua argitaratzeko momentuan ordaintzeko, tirada osoaren gain (eman dezagun 3.000 aleko tirada). Bestalde, itzulpen kostua (ELKAR argitaletxeak gaur egun, batuz beste 1.000 pezeta ari da ordaintzen folio bakoitzeko goi mailako literaturaren itzulpena).

Beraz, kasu hipotetiko honetan:

147.000 Pz. egile eskubideak
250.000 Pz. itzulpenaren ordainketa
<hr/>
397.000 Pz. aurrekostuak

Bestalde, kontutan hartu beharrekoa da ere gure kasuan behintzat, Elkar argitaletxearena alegia, itzulpenaren irakurketa sakon eta kritiko bat egiten dela, ondoren itzultzaile beraekin eztabaidatuz egiten direlarik korrekzioak. Horretan ere kontutan hartu beharko lirateke korrejitzaiilearen lanorduk.

Adibide hau ikusirik argi dago zergatik diren hain gutxi itzulpen alorrean ausartzen diren argitaletxeak, ikusirik gainera EIMA programaren aurtengo dirulaguntzak ez duela ezta itzulpen kostuaren laurdena ordaintzeko ere ematen.

Erizpide ugari egongo dira gai honi buruz, hots, sorketa gehiago bultzatu behar dela itzulpena baino etab... Nire ustez

biak dira beharrezkoak, baina argi asko dago ere gaur egun oso egile gutxi egongo direla beren liburua argitaratu ezin dutela esaten dutenak, eta baita argi asko ere esan baldintza hauen pean ezinezkoa dela itzulpenik argitaratu, ikusirik gainera jendeak ez duela gaur egun ohitura gehiegirik itzulpenak irakurtzeko.

Amaitzeko, zenbait arrazoi eman nahi nituzke itzulpenaren alde.

Alde batetik, artikulu hau idazteko momentuan esanahi handia duten bi berri jaso ditut, Euskal Herrian hain ugari diren literatur sariekin zerikusia dutenak: bata, Gipuzkoako Aurrezki Kutxak antolatutako **Irun Hiria** delako sarira lau elaberri besterik ez omen dira azaldu, eta, bestetik, Euskaltzaindikora bi besterik ez, bietako inori saria eman ez zaiolarik. Datu hauek hau adierazi nahi dute ene ustez; sari ugari-tasunaz gain, literaturazko liburu bat idazteak lan ugari eta denbora asko ematen duela eta Euskal Herri txiki honen idazlego are txikiagoak ez duela urtean zehar jarraipen bat emateko ahalmenik, eta itzulpenak bete beharko lukeela zulo hori.

Bestalde, kontutan harturik euskarak duen atzerapena munduko hizkuntzei dagokienez, ezin gaitetzkeela mugatu geure esparru estu honetan, ez gai aldetik eta ezta hizkuntza beraren aldetik, eta hala, beharrezkoa zaigula beste hizkuntza horien mailara iristea, itzulpen egoki eta zehatzen bidez. Galdetu besterik ez dago azken denboretan itzulpenean diharduten idazleei zenbat ikerketa lan, bai lexikoaren aldetik, sintaxiaren aldetik edo hizkuntz mailaren aldetik egin behar izan duten.

Hauek dira, beraz, buruan ditudan bi arrazoi nagusienak itzulpenaren alde jokatzeko. Espero dezagun datorren urteetarako konturatu behar duena konturatuko dela honen garrantziaz eta sikiera itzultzaileari behar duen moduan lagunduko balio, hasteko, laguntza handikoa izango zela, zeren ez bait da nahikoa urtean bi beka ematea literatur unibertsaleko obrarik oinarrizkoenak itzultzeko.

IRUZKINAK

Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea

TRADUIRE. Revue Française de la Traduction. Information Linguistique et Culturelle. Abonnement 1985, y compris l'Annuaire S.F.T.: 115 F (France). Membre actif de la S.F.T.: 90 F. Rédaction et administration: Maison de la Francophonie, 11, rue de Navarin, 75009 PARIS. C.C.P. Paris num. 9728-01 Y. Rédacteur en chef: Denise Baccara. N. 125, Octobre 85/III.

Sommaire

L'interprète et l'interprétation. *Florence Herbulot.*

La condition du traducteur salarié en mars 1985.

Du français à l'hexagonal. *Jean Maillot.*

Une bourse des langues à Bruxelles. *Maurice Voituriez.*

Calques et stylistique comparée. *Paulette Roy.*

Terminologie financière et économique. *Jean-Michel Cicile.*

New York - Paris. *Jeannine Sandrini-Cooke.*

Collier de perles. *Jean Maillot.*

Corde au cou. *Maurice Voituriez.*

Cuisine touristique.

Ouvrages reçus. *Anne Berger et Jean Maillot.*

Revue des revues. *Jean Maillot.*

Petites annonces.

La Vie de la S.F.T.

Nouvelle adresse.

Assemblée générale.

Bibliothèque des ouvrages reçus.

META. Journal des Traducteurs/Translators' Journal. Organe d'information et de recherche dans les domaines de la traduction, de la terminologie et de l'interprétation. Montréal, septembre 1985. Vol. 30, N. 3, p. 199-308.

Sommaire-Contents

Les termes techniques en interprétation simultanée.

Daniel Gile.

To Translate or not to Translate? *Ashok R. Kelkar.*

Rhetorical and Stylistic Issues in Translation Pedagogy. *Wolfram Wilss.*

Réflexions sur la manière de traduire ou les trois états de la traduction. *Jean-Claude Gémar.*

Etudes Terminologiques et Linguistiques

Séries lexicalisées et dictionnaires bilingues. Etude de trois dictionnaires espagnol-français. *B. Lépinette Lepers, A. Sopena Balordi.*

Doyen ou doyenne? *Christine Bagge.*

Normalisation et néonymie en français moderne. *Diane Duquet Picard.*

Jusqu'au diesel, dans l'arbre des moteurs thermiques. *Jacques Lethuillier.*

Informatique, traduction et enseignement des langues. *Anne-Marie Laurian.*

Documentation

Bibliographie. *Irène V. Spilka, Robert Serré.*

Comptes rendus

LIBRAIRIE LAROUSSE. Petit Larousse illustré. Paris, 1985. *André Clas.*

GROLIER, Eric de: Glossogenetics: The Origin and Evolution of Language. 1983. *Jean-Luc Nespoulous.*

- ESCHENBACH, Klaus-Peter: Dictionary of Medicine. 1983. *Vladimir N. Nekrassoff*.
- CAJOLET-LAGANIERE, Hélène – COLLINGE, Pierre – LAGANIERE, Gérard: Rédaction technique. Laganière, Sherbrooke, 1983. *Marthe Faribault*.
- PRESTWOOD, Edward (1984): The Creative Writer's Handbook. Palm Springs ETC Publications. *Daniel Slote*.
- GEMAR, Jean Claude : Les trois états de la politique linguistique du Québec, Dossiers du Conseil de la langue française, núm. 17. Editeur officiel du Québec. *Wallace Schwab*.
- CELLARD, Jacques (1982): Ça mange pas de pain! 400 expressions familières ou voyoutes de France et du Québec. Paris, Hachette. *Jean-Paul Brunet*.
- MANDEL, Oscar (1982): Thomas Corneill's 'Ariadne' Re-created in English. Gainesville, University Presses of Florida. *Brenda Hosington*.

Bloc-Notes

La place de la réflexion théorique dans l'apprentissage de la traduction. *Denis Juhel*.

Translating Implication. *Candace Séguinot*.

The Evolution of Laurentian University's

Undergraduate Program for Translators and Interpreters. *Ronald Henry*.

Aldizkariaren lau sail nagusiek eskaintzen diguten informazioaren baitan azpimarragarriena aipatzen hasiz gero, "Sommaire-Contents" deritzanean datorren lehen artikulua ("Les Termes techniques en interprétation simultanée" – Daniel Gile) konferentzia teknikoetako hiztegi espezializatuaren ezaugarri batzu aipatzen ditu eta berauek duten inzidentzia interpretaritzan. Kabinak erabiltzen diren taktika desberdinen berri ematen du arazoak gainditzeko eta baita interpretariak terminologi alorrean eskaintzen duen zerbitzuaren kalitatea neurtzeko dauden parametroena ere.

"To Translate or not to Translate" (Ashok R. Kelkar) artikulua itzulpen literarioetan ager daitezkeen ikuspuntu desberdinak aipatzen ditu lau mailen arabera. "Decoding translation" eta "Reencoding translation" izenpean, usadiozko itzulpen formal eta dinamikoari bina aldaera ezartzen dizkio "urrunezko" eta "hurbilezko" izendapenez. Azkenik Baudelaire-n "correspondances" poemaren ingelesezko bost itzulpenen konparaketaz eta azterketaz argitzen du bere teorizapena.

Wolfram Wilss-ek "Rhetorical and Stylistic Issues in Translation Pedagogy" lanean, azken urteotan metodologia linguistikoan nabarmendu diren bi garapen berezien berri ematen digu. Alde batetik, linguistikak hartu duen

jite pragmatikoa, hain zuzen Alemania aldean "Text linguistik" bezala ezagutzen dena eta bestetik, isuri edo joera komunikatibo horrek hizkuntz irakaskuntzan, eta, itzulpen pedagogian izan duen inzidentzia. Wilss-en lanean, testuaren alderdi estilistiko eta erretorikoak berezteko metodologi printzipioak eta "errealitateko datuak" elkarretartzeko ahaleginak egiten dira.

Jean-Claude Gémard-en "Réflexions sur la manière de traduire ou les trois états de la traduction" artikuluan, esaten zaigu egoera teologikotik, aro metafisiko edo "positibismo zientifiko"-ra igaro ondoren, egoera zientifikora iritsia dela itzulpena, eta beraz, gaur egun itzultzaileek erainbeste nahi izan dute heldutasunera. Eta teorikoek eta praktikoez alor honetan egindako ahaleginei esker ekintza itzultzailearen analisisan gaur eguneko zientziaren datu berrienak eta tradiziozko disziplinenak uztartzea lortu dela, beraz,aldi berean arte eta zientzia den disziplina bakanetako bat dela itzulpenari buruzkoa esan omen liteke...

Etudes terminologiques et linguistiques sailean espainiera-frantsesezko hiru hiztegi elebidunen konparaketa burutzen dute Lépinette eta Sopenak. **Salvat, Larousse eta Amador** hiztegien alderaketaren ondorio gisa kontutan hartu beharreko puntu batzu eskaintzen dituzte alor honetan dagoen anarkia zerbait mugatzeko.

"**Informatique, traduction et enseignement des langues**" titulupean A.M. Laurianek azken aldi honetan informatika eta itzulpenaren inguruko teknologiarren berriztatze atergabeak irakaskuntzan duen eraginaren ikuspegi bat ematen digu, eta sail honetako aurrerapenak amerikar ea japoniarrenak direla batez ere aitortu ondoren Frantziak zer egin nahi duen galdetzen du. Egoera berri honetara egokitu beharra derrigorrezko eta hurbilekotzat jotzen du.

Azkenik **Bloc-Notes** sailean aipa dezagun "**La place de la réflexion théorique dans l'apprentissage de la traduction**", Denis Juhel-en artikulua ikasleen itzulpenetan agertzen diren akats nabarienen zergatikoa edo nolakoaren berri ematen du.

Xabier Mendiguren

Contrastes. Revue de l'Association pour le Développement des Etudes Contrastives. **Traduction et Analyses Contrastives.** Italien/Français. N. 10. Mai 1985.

Présentation.

La passivité. Etude théorique et analyse contrastive: domaine français et italien. *E. Arcaini.*

Sur quelques "mots vides" en italien et en français. *J.C. Vegliante.*

Critères d'un déplacement. Sur une traduction italienne des poèmes de Léon-Paul Fargue. *S. Cappello*.

Come la pensa la professoressa? "Qu'en pense le professeur? – la Prof?" – Pour une étude contrastive du genre en italien et en français parlé. *M. Giacomo-Marcellesi*.

Quelques remarques, du point de vue du lexique-grammaire sur les verbes français Jouer et italien Giocare. *E. Marchi, G. Galdo*.

Les expressions "figées" en français et en italien: problèmes lexico-syntaxiques de traduction. *M. Conenna*.

La "seconda interferenza" – Per un'analisi più raffinata e sistematica dell'errore nell'apprendimento d'una lingua straniera. *A. Fabbri*.

Tradurre. *M. Tukia*.

Comptes rendus.

Contrastes aldizkariak mami askoko lanak eskaini ohi ditu gehienetan, eta halaxe gertatzen da komentarioa hasi diogun honako ale honetan ere. Aurkibidea irakurtzearekin besterik gabe, bi modutako balioak aurkitzen dira bertan sorburu edo Xede Hizkuntza izateko euskara darabilgun itzultzaileontzat.

Lehenengo eta behin, frantsesa eta italiara ez direlako, hain zuzen, gure artean SH bezala gutxien hartzen diren hizkuntzak. Ikuspuntu horretatik, bi hizkuntza horien ezagutza hoberako baliagarri dira bien arteko ikerketa kontrastiboak. Horien emaitzak, izan ere, normalean ez bait dira zehatz agertzen, edo batere ez, itzultzaileak eskura eduki ohi dituen gramatika eta hiztegiatan. Hizkuntza horien sakonketa lan handi bat da beraz, itzultzailearentzat, Contrasten-en irakurketa.

Bigarrenik, eta beharbada batez ere, Contrastes-ek hizkuntzalaritza kontrastibozko metodologia erakusten dio itzultzaileari, metodologia aplikatua, ordea, konkretua. Askotan gertatu ohi da itzultzailea itzulpen teoriaren jantzirik egonagatik, gero itzulpen lanerakoan, hasiberri zaildugabeenak bezalaxe "hitzez-hitzekoa" eta "librea" besterik ozta dakiela bereizten, itzulpen teoriaren norako zehaztu gabez.

Egia da itzulpen teoriak ez duela errezeta koadernotxoia izan behar; egia baita ere errezeta koadernoak, mardula izanagatik ere, ez duela inor itzultzailetzen. Bien bitartean, haren jeneraltasunera gabe, baina azkenekoaren puntualtasunetik harantzago, hizkuntzalaritza kontrastibozko lanak, azterketa konkretuak daude. Contrastek-ek, euskal itzultzaileak ere baliagarri lukeen metodologia erakusten du bere artikuluetan.

Enrico Arcainik, "La passivité. Etude théorique et analyse contrastive: domaine français et italien" artikuluan, frantsesezko eta italierazko egitura gramatikal pasiboak definitzeko saio bat egiten du. Pasibozko forma desberdinak frantsesez eta italieraz, pasibozko formen markak, pasibozko adierazkizunak eta forma eta adierazkizunen arteko egokierak eta desegokierak hizkuntza batetik bestera. Artikuluaeren ekarririk interesgarriena, ha-

la ere, pasibozkotasunaren definizioa da, artikulua 3. puntuan dakarren bezala: *Forme et sens dans être. La "passivité"*. Era honetako azterketa bat, sakon egina, urjentea da gure artean, mezu truke gehien gertatzen diren hizkuntzak (gaztelania-euskara, frantsesa-euskara) konparatuz eta maila guztietako ondorioak (semantikoak, estilistikoak) ateraz.

Beste artikulua bat, guretzat metodologian behintzat erakutsi handikoa, Jean-Charles Vegliante-k «*Sur quelques "mots vides" en italien et en français*» titulatu duena da. Vegliante-arentzat, izan ere, lehen begiratuan elkarren hain hurbilekoak diren bi hizkuntzen arteko itzulpenak dituen arazorik larrienak ez dira lexikotik, baizik eta, dioen bezala: «*cette sorte de tissu conjonctif formé par l'ensemble des "mots vides", à la limite entre morphologie et syntaxe, constitue lors du passage de l'italien au français, une source d'écart quantitatif remarquable... alors que n'intervient apparemment aucun problème sémantique sérieux*» (50. or.). "Tissu conjonctif" horren barruan, artikulua, izenordain eta aditz marken erabilerak italierak italieraz eta frantsesetik dituzten adierazkizun desberdinetara, eta horren zehaztasun ala lausotasunaren azterketara mugatzen du bere gaia Vegliante-k. Itzulpenean ari denak sarritan izaten du, konturatu ere egiteke gehienetan, mezua SH-ko testuak berak baino gehiago zehazteko tentazio handia. Esaten denak esaten ez dena du muga, ordea. Vegliante-arentzat, neurri horiek, muga hori, ez da berdinean gertatzen hizkuntza guztietan, "tissu conjonctif" horretan batez ere.

Bi artikulua horiez gainera besterik aipatu beharko balitz, M. Giacomo-Marcellesi-ren "*Come la pensa la professoressa?*" frantses eta italierazko gramatikazko generoei buruzkoa izango litzateke. Horretan, izan ere, jenero partiketa desberdinaz gainera, hizkuntza mailaz mailako alde ere esplikatzen baita, italieraz batez ere, eta are oso urte gutxitan italianozko zenbait izen moduren jenero gramatikaleak izan duen aldaketa. Normalean era horretako fenomeno bat askoz ere aldagaitzagoa dela uste izaten baita.

J.M. Zabaleta

Babel, N. 2/1985.

Aldizkari honen artikulutan, bi nabarmentzen dira: Anne-Marie Loffler-Laurian-en "*Traduction automatique et style*", eta Kitty M. van Leuven-Zwart-en "*The Methodology of Translation Description and its Relevance for the Practice of Translation*". Bigarrena, bereziki, bestea baino hurbilago gertatzen baita zaigu itzulpen deskribaketa (kritika), oraingoz behintzat, itzulpen automatikoa baino.

Dena den, itzulpen automatikoa arduratzen hasteak ez digu kalterik egingo: frantsesetik eta gaztelaniaz erabiltzen da jadanik (TITUS sistemak); bestalde, eta ezaguna eta ulertzekoa denez, hainbat arazo teoriko agiri-agirian jartzen du itzulpen automatikoa. Hemen egileak estiloaren arazoa aipatzen du. *L'style, c'est l'homme* esan ohi da. Makinak beraz, ez al du estilorik? Lasai

geratu gintezke; nahiz eta egileak erantzun zehatzik ez eman galdera honi, ezetz esan genezake (oraingoz). Izan ere, artikuluan agertzen zaigunez, behin testu itzulia makinatik aterata, osatu egin behar da, hiztegi mailan batez ere; beti agertzen omen dira hiztegi automatikoan sartu gabeko hitz edo esamoldeak: horiek orijinalean aterako dira, eta zuzendu egin behar dira.

Hala ere, itzulpen automatikoa alor berezitan erabiltzen da: teknologian, zientzian, administrazioan. Eta gainera, funtzio zehatza dute: gehienetan lanerako dokumentu, edo informaziorako irakurgai gisa erabiltzen dira. Gutxitan iristen zaizkio irakurleko zabalari. Itzulpen automatikoaren mugak beraz begi-bistakoak dira.

Hasieran esan dugunez ordea, interesgarriena Kitty M. van Leuven-Zwart-en artikulua iruditzen zaigu, *The Methodology of Translation Description...* Itzulpen deskribapenerako, kritikarako, eskema guztiz koherentea eskaintzen du egileak idatzi honetan. Akats bat du gure ustez artikuluko honak: laburregia izatea, sintetikoa alegia. Agian artikuluko honetan esandakoa liburu batetan zabaltzeak mereziko luke.

Eskema honen alderdirik positiboena hau litzateke: itzulpen kritikarako aportazio nagusiak (Vinay-Darbelnet), semantika estrukturala (Lyons, Coseriu, Greimas) eta literatur teoria (Levy, Leech) biltzea; izan ere, proposaturiko eskema itzulpen literarioko dago pentsatua. Positiboena dela diogu, orain arteko metodologiak partzialak izan bait dira: itzultzaileen gehienetan (ez bait da orain arte beste inor benetan arduratu itzulpenaz, itxura denez), eta linguistika mailako hutsuneak (eta literatur teoriarenak) nabarmenak ziren lan horietan.

Hemengo lana *El Quijote*-ren holanderarako itzulpenean oinarritzen da, eta metodoaren gauzatzea artikulugilearen esperientzia pertsonalean du jatorria: *"I had read the Dutch translation and I disliked it profoundly. (...) To my great surprise, reading DQ in Spanish was a great pleasure"*. Reakzio desberdin horiei erantzuteko beharretik sortua da metodologia.

Bi osagai ditu metodoak: konparatzailea eta deskribatzailea: *"The comparative model is designed for use in detecting shifts on the micro-structural level, that is the level of the sentence, the clause or the phrase."*

The descriptive model is designed for use in detecting the consequences of micro-structural shifts on the macro-structural level, that is to say, the level of characters, events, time, place and other meaningful components of the text."

Itzulpen kritikek oraino lehenengo pausoa besterik ez dute eman: hau da, hitz, esamolde, edo gehienik esaldi mailako baliokidetasunak aztertu dituzte. Beharrezkoa da hau noski; baina literatur obra batetan behintzat lan horrek ez du berez zentzurik: bigarrenaren funtzioan egon behar du. Hau da, baliokidetasun (edo baliokidetasun ezaren) eragina obraren osagarri esanahigarrietan da azkenean itzulpen kritikan nagusitasuna hartu behar duena.

M. van Leuven-Zwart-ek osagai konparatiboak Vinay-Darbelnet-en kategoriak semantika estrukturalaren bidez interpretatu eta berregiten ditu, kategorien zerrenda laburtu eta argituz. Ondoren, osagai deskribatzailean hiru alderdi berezten direlarik (*ideational, organization, interpersonal*), goiko *shift* horien eragina alderdi horietan aztertzen da.

Bukatzeko, esan behar da artikuluko honetan astinaldi gogorra ematen zaiola (ongi merezia gure ustez) V. Ayoraren lanari, gaztelaniaz itzulpen kritikazko dagoen ia liburu bakar eta ponposoari (*Introducción a la Traductología*,

Washington DC: Georgetown University Press); bestalde, aipatzen da baita ere metodoak itzultzerakoan (hau da, metodo hau erabili duenak itzultzen duenean) izan lezakeen balioa: itzultzaileak argiago uler ditzake hartu behar dituen erabakiak: erabaki rasonatuak hartu eta hobeto itzuli.

Koro Navarro

L'Actualité Terminologique. Terminology Update. Bulletin mensuel du Bureau de traductions. Monthly Bulletin of the Translation Bureau. Secrétariat d'Etat du Canada. Secretary of State of Canada. Vol. 18, N. 1-7, 1985.

Les barrages. *Mariette Grandchamp-Tupula.*

Terminologie de l'amélioration génétique en agriculture. *Lucie Pétillon et Georges Lurquin.*

Les publications des services de terminologie du Bureau des traductions.

L'equity n'est pas affaire d'équité. *Comité de terminologie française (Ordre des comptables agréés du Québec).*

"Without prejudice". *Kurt Inder, Daid G. Reed.*

Colloque sur la traductologie (Etude de compte rendu). *Jean-Claude Boulanger.*

Terminologie de l'amélioration génétique en agriculture (fin). *Lucie Pétillon, Georges Lurquin.*

La robotique (8). *Georges Lurquin.*

Mots de tête: "Hors de question". *Frédélin Leroux fils.*

"Acceleration clause". *Charles Zama.*

Le coin des publications: Liste des publications du Centre de traduction et de terminologie juridiques (Ecole de droit. Centre universitaire de Moncton) – Vocabulaire du droit de la preuve.

De l'informatique à la bureautique. *Ninon Charlebois.*

Le courrier des lecteurs: Les années quatre-vingt(s) – Présentation alphabétique des équivalents.

La digestion anaérobie ou fermentation méthanique (terminologie franç.-angl.). *Cécile Monjoie, Georges Lurquin.*

"To affect". *Jacques Picotte.*

Avis de normalisation et de recommandation de l'Office de la langue française. (Gazette officielle du Québec, 25 août 1984, fin).

Standing Order 21 – We go in hopeful and come out thankful.
David Roberts.

Le cinéma: terminologie de la prise de vue (angl.-franç.). *Karin Dubois, Georges Lurquin.*

Fiscal year. *Comité de terminologie française* (Ordre des comptables agréés du Québec).

The Terms clear, erase, delete and blank in Data Processing.
Patrick McNamer.

Le cinéma: terminologie de la prise de vue (angl.-franç.) (fin).
Karin Dubois, Georges Lurquin.

Mots de tête. "Impliqué". *Frédérin Leroux fils.*

Les publications des services de terminologie du Bureau des traductions/Terminology Services Publications of the Translation Bureau. Supplément d'information/Additional information.

La terminologie des imprimantes (franç.-angl.). *Catherine Koch, Georges Lurquin.*

Des mots et des phrases. Glanures linguistiques (K-M). *Huguette Guay.*

Avis de recommandation et de normalisation de l'Office de la langue française. (Gazette officielle du Québec, 26 janvier 1985).

Cash Flow. *Comité de terminologie française* (Ordre des comptables agréés du Québec).

La traduction des toponymes. *Louise Baudouin.*

Terminologie de la physique solaire – Solar Physics Terminology. *Thierry Lepage, Georges Lurquin.*

Au pays des voyants. *François Gontard.*

Mots de tête. "You can't have your cake and eat it too". *Frédérin Leroux fils.*

Adverse possession = possession adversative. *Centre de traduction et de terminologie juridiques de l'École de droit du centre universitaire de Moncton.*

En réponse à vos questions...

Revista de Llengua i Dret. Escola d'Administració Pública. Generalitat de Catalunya. Vol. 3, 1985, N. 1-5.

País Basc (dins Crònica legislativa). *Iñaki Agirrezkuenaga, Edorta Cobreros.* (n. 5)

A dia cert/sabut/adiat. *Raimon Alamany i Sesé.* (n.1)

Les primeres Jornades sobre l'establiment del llenguatge administratiu català. *Raimon Alamany i Sesé.* (n. 2)

Sobre la construcció de les expressions de data. Edició de la polèmica entre Joan Coromines i Antoni Rovira i Virgili inclou els articles següents: Joan Coromines, Carta particular, Sobre la construcció de les expressions de data i Les dates en català; Antoni Rovira i Virgili, Les dates en català (1947) i Les dates en català (1948). *Raimon Alamany i Sesé.* (n. 4)

La terminologia de l'Office de la langue française (traducció de M. Assumpció Montagut). *Pierre Auger, Louis-Jean Rousseau.* (n. 5)

L'establiment del llenguatge administratiu català: de la teoria a la realitat. *Antoni M. Badia i Margarit.* (n.1)

L'ineestimable "pacte" de Teodomir, la llengua catalana i l'àrab. *Pere Balañà i Abadia.* (n.1)

La regulació legal de la llengua catalana als mitjans de comunicació social. *Mercé Barceló i Serramalera, Jordi Martí Botella.* (n. 5)

Integració dels immigrants i legislació lingüística a Catalunya. *Albert Bastardas i Boada.* (n. 4)

Breu història de la codificació de la llengua sarda. *Eduard Blasco Ferrer.* (n. 5)

El banc de dades terminològiques de Quebec. *M. Teresa Cabré i Castellví.* (n. 2)

Viabilidad de una modernización del lenguaje administrativo español y de otras lenguas peninsulares. *Luciana Calvo Ramos.* (n. 2)

El subcódigo de la etiqueta en el lenguaje administrativo castellano. *Luciana Calvo Ramos.* (n. 5)

Transcripció i notes lingüístiques d'uns documents municipals de principis del segle XVIII valencià. *Rosanna Cantavella Chiva.* (n. 2)

El dret local valencià i la història de la llengua catalana. *Emili Casanova.* (n. 2)

D'elements històrics per al restabliment del llenguatge administratiu català. *Emili Casanova*. (n. 5)

Bilingualism in public administration The case of Ireland (amb una traducció resumida a cura de M. Assumpció Montagut). *Séamus ó Ciosáin*. (n. 2)

Per a una definició de llenguatge administratiu. *Carles Duarte i Montserrat*. (n.1)

Taula rodona sobre la normalització lingüística en l'activitat jurídica a Catalunya. *Carles Duarte i Montserrat*. (n.1)

El vocabulari jurídic del llibre de les Costums de Tortosa (Ms. de 1272). *Carles Duarte i Montserrat*. (n. 2)

Un profitós Colloqui sobre llengua i Administració. *Carles Duarte i Montserrat*. (n. 2)

El títol IV, de l'impuls institucional, de la Llei de Normalització Lingüística a Catalunya. *Carles Duarte i Montserrat*. (n. 3)

El llenguatge jurídic i administratiu en la conformació de les llengües: el cas del llatí. *Carles Duarte i Montserrat*. (n. 4)

Introducció a la traducció administrativa entre el català i el castellà. *Carles Duarte i Montserrat*. (n. 5)

Recensions: Lingua e Administración, Neoterm, 1, Bédard, Jordana, Moran.

L'aprofitament de la documentació medieval en l'establiment del llenguatge administratiu català actual. *Carles Duarte, Josep Ferrer, Ramon Torrents*. (n. 4)

Las características del lenguaje jurídico: comunicación en el ámbito legal. *Marilyn R. Frankenthaler, Sofia Zahler*. (n. 3)

La lengua asturiana en la administración. *X. Ll. García Arias*. (n. 2)

I xornadas de Lingua e administración. *Xermàn García Canela*.

La oficialidad del gallego: historia y actualidad. *Manuel García Sendón*. (n. 2)

Recensió: Miralles. *J. García Mateo*.

Galícia (dins Crònica legislativa). *Xosé González Martínez*. (n. 5)

Dix ans de "Décret de septembre". *Serge Govaert*. (n. 5)

Les llengües d'especialitat o "tecnolèctes". *Günther Haensch*. (n.1)

La commission permanente de Contrôle linguistique (CPCL). *M.P. Herremans*. (n. 5)

Le créole aux antilles françaises son emploi administratif et public. *Georg Kremnitz*. (n. 4)

La prosa no-literària occitana, avui. *Georg Kremnitz*. (n. 5)

Política lingüística a la Vall d'Aran: les regles del joc. *Xavier Lamuela*. (n. 3)

L'elaboració coordinada del llenguatge administratiu català. *Isidor Mari*. (n. 3)

Recensió: Calvo-Schwab i Sparer. *Isidor Mari*.

Què es el "normal" en la normalització lingüística? Algunes qüestions a l'entorn de la Llei de Normalització Lingüística a Catalunya. *Joan Martí i Castell*. (n. 3)

Les constitucions de Catalunya de l'Arxiu de la ciutat de Tortosa. *Jesús Massip i Fonollosa*. (n. 4)

Notes de legislació i jurisprudència. *Antoni Milian i Massana*. (n.1)

Les llengües espanyoles diferents de la llengua castellana als estatuts d'autonomia. *Antoni Milian i Massana*. (n.1)

Notes de legislació i jurisprudència. *Antoni Milian i Massana*. (n. 2)

De la separació a la conjunció lingüística a l'ensenyament: el Títol II de la Llei 7/1983, de 18 d'abril. *Antoni Milian i Massana*. (n. 3)

Notes de legislació i jurisprudència. *Antoni Milian i Massana*. (n. 3)

Notes de legislació i jurisprudència. *Antoni Milian i Massana*. (n. 4)

Estat espanyol (dins Crònica legislativa). *Antoni Milian i Massana*. (n. 5)

Jurisprudència. *Antoni Milian i Massana*. (n. 5)

Jurisprudència estrangera. *Antoni Milian i Massana*. (n. 5)

Els tràmits preliminars de la redacció de la Llei de Normalització Lingüística a Catalunya. *Aina Moll i Marquès*. (n. 3)

Recensió: Massip. *Tomàs de Montagut i Estragués*. (n. 5)

La liberté de la langue. *Charles-Albert Morand*.

Notas sobre el uso administrativo del aragonés (inclou els articles següents: J. García Mateo, ¿La fabla en la Administración local?; i Chulio Brioso, El aragonés en la Administración local). *Francho Nagore Laín*. (n. 2)

Els autos i els actes (I). *Oriol Oleart i Piquet*. (n. 4)

Els autos i els actes (II). Els interlocutoris. *Oriol Oleart i Piquet*. (n. 5)

- Els autos i els actes (i III). Les actuacions. El procés. *Oriol Oleart i Piquet*. (n. 5)
- Las I Jornadas sobre euskera y Administración. *Eneko Oregui Goñi*. (n.1)
- Procés de normalització i nivells/registre de llengua (traducció de M. Assumpció Montagut). *Jean-Marcel Paquette*. (n. 5)
- El tractament de la llengua en l'Estatut d'autonomia valencià. *Lluís B. Polanco i Roig*. (n.1)
- La doble oficialitat lingüística com a problema jurídic. *Josep M. Puig i Salellas*. (n.1)
- La Llei de Normalització Lingüística a Catalunya i l'àmbit oficial. *Josep M. Puig i Salellas*. (n. 3)
- El marc legal del català a l'Aragó. *Artur Quintana*. (n. 2)
- Un model possibilista: el Tirol del sud. *Artur Quintana*. (n. 4)
- Notes sobre el vocabulari del Llibre de censals (s. XVII) de les Borges Blanques. *Roser Ripollès i de la Fragua*. (n. 4)
- Influència de la sintaxi llatina en la cancelleria catalana del segle XV. *Jordi Rubió i Balaguer*.
- A lei de normalisación lingüística do idioma galego. *Xoán X. Santamaria Conde*. (n. 5)
- Formulisme jurídic i llenguatge popular en un llibre de consells del segle XVII. *M. Roser Sastre i Torrens*. (n. 4)
- Comentari sobre el règim jurídic lingüístic de l'Estatut d'Autonomia de les illes Balears. *Lluís J. Segura i Ginard*. (n. 4)
- Llengua única i llenguatge administratiu únic: el 1r. Curs de llenguatge en la documentació administrativa de la Diputació de València. *Joan R. Solé i Durany*. (n.1)
- Taula rodona sobre la lexicografia catalana i els llenguatges tècnics. *Joan R. Solé i Durany*. (n. 3)
- La informació sobre la Llei de Normalització Lingüística. *Joan R. Solé i Durany*. (n. 4)
- Catalunya (dins Crònica legislativa). *Joan R. Solé i Durany*. (n. 5)
- Recensions: Manual de llenguatge..., Sillabus processal..., Sánchez Isac-Rebés, Sallas i Duarte. *Joan R. Solé i Durany*.
- Política lingüística i Administració. *Miquel Strubell i Trueta*. (n. 2)
- Eixamples a la normativa en el llenguatge administratiu: les proves de la Junta Permanent de català *Ramon Torrents i Rappard*. (n.1)

De la realitat a la teoria: hi ha una filosofia del llenguatge administratiu? *Ramon Torrents i Rappard*. (n. 2)

Recensions: Llengua i Administració núm. 1-6, Andrinal. *Ramon Torrents i Rappard*.

Comentaris al Projecte de Llei sobre principis "harmonitzadors". *Francesc Vallverdú i Canes*. (n. 1)

Les primeres jornades sobre administració de justícia a Catalunya. *Eduard Vivancos i Comes*. (n. 3)

Tradició i modernitat en l'establiment del llenguatge administratiu. *Marta Xirinachs*. (n. 5)

Llibres ressenyats

Lingua e Administración (Carles Duarte). (n. 4)

Llengua i Administració, 1-6 (Ramon Torrents). (n. 3)

Manual de llenguatge administratiu valencià (Joan Ramon Solé). (n. 5)

Neoterm, 1 (Carles Duarte). (n. 5)

Sillabus processal civil i formularis (Joan Ramon Solé). (n. 4)

Diplomatari del Monestir de la Real de Mallorca I 1232-1360 (Ramon Torrents). *Lorenzo Andrinal, Pau Mora*. (n. 1)

La norme linguistique (Carles Duarte). *Edith Bédard, Jacques Maurais (eds.)*. (n. 5)

Introducción al lenguaje administrativo (Isidor Marí). *Luciana Calvo Ramos*. (n. 1)

Formulari de procediment administratiu (Joan Ramon Solé). *Carles Duarte, Josep-Enric Rebés, Valentí Sallas*. (n. 2)

Formulari de documents en català (Carles Duarte). *Cèsar August Jordana*. (n. 3)

La gestació de les Costums de Tortosa (Carles Duarte). *Jesús Massip*. (n. 5)

Un llibre de Cort Reial mallorquí del segle XIV (1357-60) (Carles Duarte). *Joan Miralles i Montserrat*. (n. 5)

El Capbreu de Castellbisbal. Estudi filològic i lingüístic d'un text català antic (Carles Duarte). *Josep Moran i Ocerinjauregui*. (n. 5)

Formulari de documentació municipal (Joan Ramon Solé). *Jaume Sánchez i Isac*. (n. 2)

Rédaction des lois: rendez-vous du droit et de la culture (Isidor Marí). *Wallace Schwab, Michel Sparer*. (n. 1)

Legislació reproduïda

a) Estat espanyol

Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del Euskera. (n. 2)

Llei 7/1983, de 18 d'abril, de normalització lingüística a Catalunya. (n.1)

Ley 3/1983, de 15 de junio, de normalización lingüística (Galicia). (n. 3)

Llei 4/1983, de 23 de novembre, d'ús i enseyament del valencià. (n. 4)

b) Estranger

Proposition de Loi [registrada el 17 de maig de 1984] sur la promotion des langues et cultures de France. (n. 4)

Arrête Royal (2 de mars 1964) fixant le statut du président et des membres de la Commission permanente de contrôle linguistique et organisant le fonctionnement de celle-ci. (n. 5)

Arrête Royal (23 de mars de 1964) portant nomination des membres et du vice-président de la Commission permanente de contrôle linguistique. (n. 5)

Décret (juin 1982) relatif à la protection de la liberté de l'emploi des langues et de l'usage de la langue française en matière de relations sociales entre les employeurs et leur personnel ainsi que d'actes et documents des entreprises imposés par la loi et les règlements. (n. 5)

Décret (19 juillet 1973) réglant l'emploi des langues en matière de relations sociales entre employeurs et travailleurs, ainsi qu'en matière d'actes et de documents d'entreprise prescrits par la loi et les règlements. (n. 5)

Proposition de Décret modifiant le Décret du 19 juillet 1973 réglant l'emploi des langues en matière de relations sociales entre les employeurs et les travailleurs, ainsi qu'en matière d'actes et de documents d'entreprise prescrits par la loi et les règlements. (n. 5)

Proposition de Décret Vandezande et consorts. (n. 5)

Proposition de Décret Claeys et consorts. (n. 5)

Language Problems & Language Planing. University of Texas Press Spring 1985, Vol. 9, N. 1.

Contents

Redakcia Artikolo. *Humphrey Tonkin.*

Industrialization and Linguistic Change among Gaelic-Speaking Communities in the West of Ireland. *M.S. O'Cinneide, M. Keanne, M. Lawley.*

Kandaj banprogramoj: Cu sukceso lingva au lingvopolitika? *Ian M. Richmond.*

Sinhala and English: A Clarification. *C.M.B. Brann.*

Rewies. Ondorengo liburuei buruzko iruzkinak azaltzen dira ale honetan.

Pidginization and Creolization as Language Acquisition. *Roger Andersen, ed.*

Social and Linguistic History of Nigerian Pidgin English as Spoken by the Yoruba with Special Reference to the English-Derived Lexicon. *Anna Barbag-Stoll.*

The Irish Language: An Annotated Bibliography of Sociolinguistic Publications 1772-1982. *John Edwards.*

Language Incorporated: Teaching Foreign Languages in Industry. *Reinhold Freudenstein, Jürgen Beneke, Helmut Pönisch, eds.*

Foreigner Talk und Tanzanish: Eine vergleichende Studie über die Sprechweise gegenüber Ausländern am Beispiel des Deutschen und des Türkischen. *Volker Hinnenkamp.*

The Pinyin Chinese-English Dictionary. *Wu Jingrong, ed.*

Language Planning and Language Education. *Chris Kennedy, ed.*

The Canadian Modern Language Review / La Revue canadienne des langues vivantes. Cumulative Index / Index cumulatif. *Anthony Mollica, Marcel Danesi, Anne Urbancic.*

The Other Side of Silence: Sign Language and the Deaf Community in America. *Arden Neisser.*

Language Change. *Irmengard Rauch, Gerald F. Carr, eds.*

Sprachschwierigkeiten, Sprachpflege, Sprachbewußtsein - Das Phänomen der "Chronique de langage". *Christoph Shwarze.*

Zur Geschichte des gesprochenen Französisch und zur Sprachlenkung im Gegenwartsfranzösischen: Beiträge des Saarbrücker Romanistentages 1979. *Helmut Stimm, ed.*

Distributed Language Translation. *A.P.M. Witkam.*

Language Planing. Newsletter. Institute of Culture and Communication. East-West Center, Honolulu, Hawaii. August 1985, Vol. 11, N. 3.

Aldizkaritxo honek, zortzi orri besterik ez bait ditu aurrean dudan aleak, badu berezitasun bat: doan banatua izatea. Helbide horretara eskatuz gero bidali egingo dizute, orain arte bezala jarraitzen badute, behintzat. Eta azken hau, orain arte argitaratzaile izan duen East-West Center-ek aurrerantzeko laguntza ukatu omen diolako diot. Beraz ez jakin zertan geratuko den.

Aurrean dudan ale honetan bi artikulua plazaratzen dira; lehenengoa, Francisco Gomes de Matos brasildarrarena, **The linguistic Rights of Language Learners** eta bigarrena, Judith N. Levi iparramerikarrarena, **Rights of Language Minorities in the United States**. Bigarren artikulua hau bibliografia da eta lau atal ditu: I orokorra, II Eskubideak Irakaskuntza publikoan, III Eskubideak lege-prozeduretan eta IV beste zenbait.

Azkenik, aldizkariak baditu atal finkoak ere: "Conferences, Seminars, Workshops", "Language Planing/Language Treatment News" eta "Books and Articles". Espero zitekeenez, atal hauetan hizkuntzen planifikazioaren inguruan dauden zenbait gai buruzko informazio-printzak ematen dira.

Bibliografia

J. TUSON: Lingüística. Una introducción al estudio del lenguaje, con textos comentados y ejercicios. Barcelona-Barcanova 1984.

Bada urtebete liburu hau argitaratu zenetik eta berandu bada ere, aipamenik merezi duelakoan gaude. Izan ere, esku artean ditugun ohizko linguistika sarreratan, leku berezia betetzen bait du. Izenburuak berak dioen bezala, ez da aurkezpen soila: kapitulu bakoitza testu eta ariketen bitartez osatzen bait da. Eta ez dakit "osatu" ote den hitz egokia, nire ustez testuak eta beronen komentarioak hartzen bait dute kapitulu nagusitasuna. Testu hauek hizkuntzalari klasikoenak direlarik, beroien irakurketa zuzenera bultzatzen du horrela liburuak; irakurketa zuzen eta kritikora, egilearen komentarioa dela medio. Eta hori iruditzen zaigu aurkezpen orokor baten helburu nagusia: irakurlearen jakinmina piztu eta jatorritarako bidea ireki. Egileak berak honela dio hitzaurrean: "Muy principalmente, (un manual) ha de ser el instrumento que prepare e invite a la lectura de otras obras, sobre todo la de los maestros en la materia" (2. or.). Asmo hau hemen erabat betetzen dela esan liteke.

Liburuak lau gai nagusiren inguruan eraikitzen da: *komunikazioa*, *mintzaira eta linguistika* (oinarrizko sarrera hizkuntzaren munduan); *metodoak linguistikari* (linguistika eskola nagusien jokabideak, hiru atal nagusitan: gramatika tradizioanala, estrukturalismoa eta gramatika sortzaile-bihurtzailea); *hizkuntza baten egitura* (hau da atal sistematikoena: bertan hizkuntzaren ikasketa mailak aurkezten dira, fonetika, fonologia, gramatika eta semanti-

ka); eta azkenik *linguística eta bere ingurunea* (linguistikari hurbil zaizkion alorrek aurkeztuz: kultura, soziologia, literatura).

Lau gai horien inguruan egituratzen dira beraz liburuaren kapituluak. Hasiarian genion bezala, kapitulu horiek ez dira egilearen aurkezpen soilera mugatzen; aurkezpen orokor baten ondoren, testu komentatua eta ariketak datoz. Aurkezpenak, orokorrean, egokiak iruditzen zaizkigu. Tusonek badu kalitate nabarmen bat, bere *Aproximación a la Historia de la Lingüística* (Barcelona, Teide, 1982) delakoan garbi erakutsi zuena, eta nik -oso era zientifikoa ez bada ere- "patxada" izendatuko nukeena. Gauzak lasai eta horregatik, argi eta garbi agertzeko gaitasuna. Izan ere, halako sintesi lanetan -ezeren "sarrera" diren horietan eta horren berri ez dakienari zuzendua beraz-, sintetikoegia izateko arriskua handia da: irakurlea ilunpetan geratzen da sarritan. Horrela, adibide ugariak eta erredundantziak berak eskertzeak dira.

Testuak eta beren komentarioak aipatu ditugu: hauek ematen diote neurri handian zentzua liburuari. Izan ere, aurkezpenek askotan testua kokatzea dute asmo nagusizat -ez bakartzat, kontuz-; eta testuaren azalpen (kritikoak) zabaldu eta osatu egiten dute aurkezpenekoa, era praktikoa esan genezake. Testuen hautapena, hain garrantzitsua, egokia da.

Kapitulua borobiltzeko bibliografia eta ariketak daude. Bibliografia ere, eta egileak hitzaurrean dioenez, "erabiltzekoa" da, ez egilearen jakinduriaren erakusle soil: oso hautatua beraz, laburra eta eskuragarria. Hau ere eskertzekoa. Ariketak berriz, "ejercicios", kapituluaren bukaeran agertzen dira: gehienetan lekuan lekuko gaiari lotutako testu laburren komentario edo konparaketen proposamen dira; badira halaber ariketa praktikoa soilak.

Iritzi kritikoa ematekotan, eta liburuaren balioa agertu delarik, puntu eztabaidagarriak aipatuko ditut, bi nagusiki. Lehenengoa, gramatika sortzaile-bihurtzailearen pisua: ezaguna da, eta oso ondo derizkiogu, Tusón "gramatikari-sortzailea" dela; ulertzekoa da beraz G.S.-aren ikuspuntua nagusitzea. Baina Chomskiren teoria bere lekuan agertuta gero, behin eta berriz hurrengo kapitulutan, "Hizkuntz egitura" azaltzeko, Gramatika sortzailerara mugatzea gehitxo iruditzen zaigu. Azalpen horren baitan, eta sarritan gertatzen denez, nahiko eztabaidagarri iruditzen zaizkigu zenbait adibide, anbiguitasunari buruzkoak konkretuan (ik. 138-139. or.). Aipatu besterik ez dugu egingo, Testuaren Gramatika kontutan hartu balitz -bide batez esan dezagun ia agertu ere ez dela egiten liburu honetan, eta garrantzizko hutsunea iruditzen zaigu-, puntu horiek hobeto aztertzeo aukera legokeela.

Beste puntua, ariketei dagokiena da; ideia ona iruditzen zait ariketen eranstea, irakurlea nolabait jarrera "aktibo" batetara bultzatzen duten neurrian. Horrela interesgarrienak komentario-ariketak iruditzen zaizkigu. Beste zenbait (ariketa-ariketak) ordea nahiko tontuak iruditzen zaizkigu. Horrela, "semantika" kapituluko bat: "Elaborar los contextos adecuados para que *libro, laberinto y manto de armiño* signifiquen, respectivamente, "hombre sabio", "problema difícil de resolver" y "persona sucia" (237. or.). Gure ustez, oso garbi utzi behar da linguística bere horretan disziplina teoriko hutsa dela, eta ez pragmatikoa; hau da, linguistikaren helburua hizkuntza *fenomeno* gisa aztertzean datza, ez hiztun hobeak sorreraztea. Gramatikari guztiak bildurik hizkuntza *baten* gramatika oraindik ere burutu ezinik badabilza ere, oso ongi mintzatzen gara, hizketan badakigu noski, inongo gramatikaren beharrik gabe (gehienok gaztelaniaz euskaraz baino hobeto: beti bezala, honetan ere eus-

kara berezia da, eta badirudi baietz, euskaraz egiteko gramatikaren beharra badugula). Horrek ez du esan nahi noski linguistikak alderdi prgmatikorik ez duenik: euskaraz ari garenez, hizkuntz planifikazioa esate baterako; edo eta, Senez-en gaudenez, itzulpengintza. Baina berez, berriro esango dugu, linguistika, filosofia eta matematika bezalaxe, gizakiaren besterik gabeko jakinminetik sortutako zientzia (edo delakoa) nobleen artean legoke.

Bukatzeko, egileak dioenez linguistikaren berri jakin nahi dutenentzat (ikasleentzat beraz) da liburua; gure ustez ordea eta esandakoak esanda, garbi ikusiko da batez ere irakasleentzat gertatzen dela guztiz egoki liburu hau: linguistika irakatsi nahi duenari laguntza ezin hobea emango dio.

Koro Navarro

HAENSCH, G. - WOLF, L. - ETTINGER, S. - WERNER, R.: La lexicografía. De la lingüística teórica a la lexicografía práctica. (Bibliografía románica hispánica. III. Manuales, 56). Gredos arg., Madrid, 1982, 20x14, 563 orr., ISBN 84-249-08577-X.

Liburuaren azpitituluak aditzera ematen duenez, hizkuntzalaritza modernoaren eta hiztegi gintzaren arteko lotura nabarmendu nahi dute idazleek. Asmo horixe nabari da, hain zuzen, ez lexikoaren gaia hizkuntzaren teoria orokorraren barruan aztertzen duen lehen kapituluaren bakarrik, eta bai liburuaren egitura osoan eta kapitulu bakoitzean. Lexikografoak, ordea, hiztegi konkretuak eskaini behar ditu, erabiltzailearentzako baliagarritasun praktikoari begiratuz; lanbide horretan hizkuntzalaritza teorikoaren eta lexikologiaren irakatsi guztiak ezin ditu egikaritu, autoreek aitortzen dutenez; baina horrexe-gatik da, hain zuzen, hainbat baliozkoagoa bi bideen hurbilketa eta bateratzea: lexikologia teorikoarena eta lexicografía praktikoarena.

Bederatzi kapitulutan dago partiturik liburu. Aurrena, *Léxico y teoría general de lenguaje* (R. Werner): bertan komunikazio-eredu gisa aztertzen da hizkuntza, adieraziaren eta adierazlearen artean dagoen hizkuntz zeinuaren kontzeptua nabarmenduz eta sakonduz. Komunikazio-sistema horretan, hizkuntza bateko gizataldean hitzek eta unitate lexikalek duten balioan oinarritzen da lexikoaren eta lexicografiaren lekua eta mugapena hizkuntzalaritzaren barruan.

Tipología de las obras lexicográficas (G. Haensch) da ondorengo kapitulua. Hiru erizpideren gain sailkatzen ditu autoreak mila motatako hiztegi egingarri edo egindako: erizpide teoriko-linguistikoa, erizpide historikoa eta erizpide praktikoa. Arras interesgarria da kapitulua, kultura modernoan hiztegi gintzak duen garrantziaz eta mundu horren zabalaz eta ugariaz jabetzeko.

Hiztegiaren egiturara eta edukinera sartzen gara ondorengo kapituluetan. *La unidad léxica y el lema* (R. Werner) izenekoak unitate lexikalak muga

tzera iristeko kontzeptu linguistikoak aztertzen ditu: monema, lexema, sinonema, etab., hiztegietaiko sarrerak (edo "lemak") zein erizpiderekin eratu daitezkeen erabaki ahal izateko. Hain argia ematen duen arazoak, hiztegiko sarrerak eratzearenak, alegia, korapilo teoriko eta praktiko ugari ditu, hiztegi-gileak argitu eta erabaki beharrekoak.

Lexikoaren sorkuntzà da lexikologiaren kapitularik nagusienetakoa. **Formación de palabras y fraseología en la lexicografía** (S. Ettinger) izeneko kapituluak horixe aztertzen du: horren teoriak, hizkuntzalaritzako eskola ezberdinen (transformazionismoaren, estrukturalismoaren, etab.en) arabera; sorkuntzarako bide ezberdinak: eratorpena, konposizioa, aurrizkien bidezkoa, etab. Hemen ez da ikutzen maileguzko lexikoaren eraketaren arazoa; horixe da, hain zuzen, liburuaren hutsunetako bat, gure ustez: aparteko kapitulu bat merezi zukeen seguruenik.

Semantikaren munduan dabil neurri handi batez hiztegia: hau da, hitzen edo unitate lexikalen esanahia edo adiera ezberdinak definitzea da hiztegi askoren helburua. Definizioaren arazoa aztertzen du, beraz, **La definición lexicográfica** (R. Werner) izeneko kapituluak; definizioarekin batera beste biderik ere badago, ordea, unitate lexikalaren esanahia adierazteko: sinonimoa, beste hizkuntzetako parekidea, deskripzio entziklopedikoa. Gai horren barnean dago, jakina, hitz polisemiko edota homonimoena, hiztegi-gintzak oso kontutan hartzekoa eta erabakitzekoa.

Eta semantikaren alorrean abiatuz, lexikoaren beraren egiturara sartzen gara: hau da, kontzeptuen arteko eta hitzen arteko lotura, hizkuntzaren (eta hiztegiaren) bidez errealitatea bera egituratzen eta taxutzen denez. Bereziki bizia da arazo hori hiztegi zientifiko-teknikoetan, hiztegi arruntetan baino gehiago hitzen arteko mugaketa kontzeptuala ondo definitzera bait doa horietako *terminologia*. Lexikoaren izaera horrek eragin apartekoa du hiztegia lantzerakoan eta horren makroegitura erabakitzean. **Signo lingüístico y estructuras semánticas** (L. Wolf) izeneko kapituluak guzti hori aztertzen du; bertan lantzen du funtsezko bereizkuntza bat, hiztegi-gintzak eta bereziki terminologia zientifiko-teknikoak kontutan edukitzea: hiztegi semasiologiko eta onomasiologikoen artekoa, alegia; hau da, hitzetik edo zeinutik adierazira doazenak, batetik; eta adierazietatik hitzetara doazenak, bestetik.

Hizkuntza sistema izanik ere, zera bizia eta aldakorra da; eta ugaritasun eta aldakortasun hori lexikoan nabari da bereziki. Hizkuntzaren barruko hizkera ezberdinak (dialektoak, soziolektoak, teknolektoak, etab.), lexikoaren maila linguistiko ezberdinak eta maiztasun ezberdinak... guzti horrek garrantzia handia du hiztegiaren asmoa, helburua eta alorra mugatzean. Kontzeptu horiek argitzen saiatzen da **La variación lingüística en lexicografía** (S. Ettinger) kapituluak.

Azkenik kapitulu luzeena hiztegi-gintza praktikoari dagokio: **Aspectos prácticos de la elaboración de diccionarios** (G. Haensch). 150 bat orrialde luzetan aztertzen ditu xeheki autoreak honako puntuok: hiztegiko sarreren hautapena; lexikoaren iturriak eta materialen bilatzea; hiztegiaren egituraketa (makroegitura edo hiztegiaren gorputz osoaren ordena eta mikroegitura edo artikulua bakoitzaren elementuen ordena); artikuluaaren definizio-partearen edukin bereziak (ortografiari, fonetikari, etimologiari, gramatikari, kronologiari, geografiari, hizkuntz mailari, erabiltzen deneko alorrari, etab.) buruzko oharrak, unitate lexikalaren definizioa bera, horrek berbaldian duen erabile-

rari buruzko oharrak edo adibideak, horren sinonimoak edo antonimoak). Eta kapituluaren eranskin gisa edo, hiztegi eleaniztunen mila arazo eta buruhauste ezberdin aztertzen ditu.

Liburuaren edukinari dagokionez, zera gaineratu behar da: aurkibide orokor aski xeheaz gain, gaien eta izen propioen aurkibide zabalak ditu. Bestalde, hainbat puntu espezifikori buruz bibliografia berezia eskaintzen dute autoreek orrialdeen oinetan.

Aipaturiko kapituluak autore ezberdinek idatzi dituztelarik, liburuak ez du erabateko batasunik noski, eta pentsakeraz gain, terminologian ere ezberdintasunak ez dira osorik gainditu; bestalde, zenbait puntutan errepikapenek (kapitulu batean eta bestean) zerbait nahasi eta astundu egiten dute liburuaren irakurketa. Baina funtsean liburuak batasun maila ona lortu duela esan daiteke. Hiztegi gintzan abiatzen denarentzat sarrera bikaina eta mila buruhauste teorikoren argigarri eta praktikoren konpongarri izango da liburuak.

Baina horren garrantzia aipatzen eta horren balioa aipatzen ibili beharrean, agian egokiena guk geuk liburua ezagutu eta irakurtzean izan dugun sentimendua adieraztea izango da. Norbaitek, urtetan zehar lexikogintzako eta lexikografiako arazoetan murgildurik dabilenean, eta bereziki autodidakta gisa dabilenean –gauza aski normala, lexikografi eskolarik ez bait dago–, hainbat arazo teoriko, metodologiko eta praktikoko argitu eta konponbideratu behar izan ditu. Arazo horietzek liburu batetan formulaturik eta irtenbideak eskainirik aurkitzen baditu, lau aldetako sentimendua nabari dezake: a) atsegina eta poza, egunero bizi dituen buruhauste eta kezken zatitza argitasun berria aurkitu delako; b) harrotasuna, orain artean bidegalduta ibili ez delako, erabilitako erizpideak eta jokabideak neurri handi batez behintzat buruan sakonki aztertuta eta berretsita ikusten baditu; c) jakin-mina, buruhauste izandako halako galdera jakinei buruz zein argibide ematen duen ezagutzeko; d) lasaitasuna, aurrerabidean lurgain seguruagoan dabilela ikustean.

Horiek guztiak nabari izan ditut nik neuk neure barruan, liburua irakurtzean eta erabiltzean. Izan ere, irakurtzekoa ezezik, eskuliburu eta kontsulta liburu gisa erabiltzekoa du hiztegi gileak liburu hau, uste dudanez: teorikoa izateaz gain praktikoa ere badelako.

Paulo Agirrebaltzategi
UZEIko langilea

REINHOLD FREUDENSTEIN, JURGEN BENEKE and HELMUT PONISCH (eds.): Language Incorporated: Teaching Foreign Languages in Industry. Oxford: Pergamon Press, 1981.

Xede berezietarako hizkuntz irakaskuntza (LSP, Language for Special Purposes) eskakizun pedagogiko zehatzak dituen hizkuntz irakaskuntzaren arlo

bat da. Ikasleak, ikasten ari den hizkuntza erabiltzen duten profesionalekin harremanak izateko behar duen lexiko berezitua eta trebetasun gramatikal eta komunikatiboa lortzea izango da LSP ikastaro bateko programaren helburua. Ikasketa-prozesu horretan ikasleak bereganatu behar duena atzerri-hizkuntza bateko dialekto profesional edo teknolekto bat da.

Aipakizun dugun liburu honetan ihardunaldi batzutan bildutako LSPko irakasleek xede berezietarako hizkuntz irakaskuntzaren programari, metodologiari, ikasle-motibazioari eta alderdi pedagogiko eta antolamenduzkoei buruz landu zituzten hamabi lanen aurkezpena egiten da.

Liburuaren sarreran Reinhold Freudenstein-ek dioen bezala, ihardunaldiak Erfahrungsaustauschring Sprachlabor Wirtschaft (Industriako Hizkuntz Irakaskuntzako Esperientzien Trukerako Elkarte) izeneko elkarteak antolatuak dira. Elkarre honen helburu nagusia xede berezietarako ingelesaren irakaskuntzarako metodologiaren garapena da eta Alemanian egiten dute lana.

Hamabi txosten horiek lau sailetan banatuta daude: beharrak, hizkuntzalaritza, antolamendua eta ekintzak. Beharrak izeneko sailean hizkuntza profesionalen ikasleen beharrak ebaluatzen dituzten bi txosten jaso dira. Beneke-k bere artikuluan "Foreign Languages on the Top Floor: European Executive Managers Evaluate Their Foreign-Language Needs" ikasleen beharrak ezagutu ahal izateko datu-bilketa lau eratan egin daitekeela azpimarratzen du: (1) behaketa partizipatiboaren bidez; ikertzaileak langileak bere lanpostuan zein hizkuntza behar dituen jasoko du; (2) ikasle izango diren langileei galdeketa sakona eginez; (3) enpresa askotan galdeketa bera banatuz (4) lanpostuetarako iragarkietan hizkuntz eskakizunak oinarritzotzat noiz jotzen diren aztertuz.

Hizkuntzalaritza arloa hiru txostenek osatua da. Werner Hüllen-en artikuluan "The Teaching of English for Special Purposes: A linguistic View" LSPak hizkuntzalaritzaren alderditik izan ditzakeen ezaugarriak aztertzen ditu. Lexiko teknikoaz gain, teknolektoen berezitasuna egitura sintaktiko eta berbaldi-mota batzuen maiztasunean datza (adibidez, pasiboaren erabilera testu zientifikoetan). Hüllen-en ustez, halaz ere, ez dago desberdintasun argirik helburu orokorrerako eta helburu berezietarako hizkuntzetan alderdi linguistikotik. Beneke-ren artikuluan "Cultural Monsters, Mimicry and English as an International Language" profesionalen arteko berbaldi motak aztertzen dira eta beraz non jarri behar den azentua hizkuntza horietaz jabetu nahi diren ikasketarien trebakuntz ikastaroetan. Karl-Heinz Brunkman-ek "The Use of Terminology Data Banks in Solving Problems of Specialist-Text Translation" TEAM datu-bankuari buruzko informazioa eta zehaztasunak azaltzen ditu bere artikuluan. Datu-banku honetan 2 milioitik gorako termino-kopurua bildu denez, laguntza handia eskaintzen du itzulpen teknikoetarako lexiko iturri bezala.

Antolamendu sailean ere hiru artikulua bildu dira: Helmut Pönisch-en "Organizational Principles of In-Company Language Instruction in a Large Industrial Concern"; Martin Worth eta Geoffrey Marshall-en "Organizing In-Company Language Training"; Peter Thelen eta Richard S. Reinhold-en "Language Training in Industry: The case of Ford-Werke Aktiengesellschaft". Lan hauetan LSPko testuinguruko ikastaroetarako irakaskuntz materialak, programen helburuak, metodologiak etab. aztertzen dira.

Azken sailean lau txosten bildu dira, LSP ikastaroetarako material pedagogiko eta estrategia egokiak zeintzu diren aztertuz. Ikastaro gehienak enpresaren eremuaren barruan egiten direnez gero, ondoen egokitzen diren aktibitateak ondorengoak dira: hornitzaileei erosketak, gutunak idaztea, telexak bidaltzea, kontratuak egitea etab. Helmut Pönish-en ustez (**"In Company Activities Promoting Foreign-Language Skills"**), lan-inguruak aktibitate pedagogikoak aurkitzeko aukera asko sortzen ditu. Jüngen Beneke-k (**"Teaching by Participation: Experiences with Simulation Games in Language Training with Adults in Industry"**) profesionalekin erabilitako simulazio-teknikak deskribatzen ditu. Peter Fischel-en artikuluan (**"Aspects of Language Training in a Motor-Car Manufacturing Firm with Special Reference to English as a Foreign Language"**) LSPko irakasleek profesionalen behar linguistikoei erantzun behar dietela azpimarratzen da. Christa Bollert eta Richard Kurman-ek (**"The Dornier English Newsletter"**) LSPaz arduratuko den buletin baten berri ematen dute. Buletin horren helburua, LSPko ikastaroak egin dituzten profesionalen hizkuntz trebetasunak mantentzea da eta horretarako hiztegi erabilgarriak, puzzleak, irudiak, konkurtsoak eta beste zenbait gauza argitaratzen dira buletinean.

Gure ustez liburu honek eta antzekoek mesede handia egin diezaiokete hizkuntzen irakaskuntz prozesuari zenbait arazori buruzko argitasuna ematen bait dute. LSPko irakasleak behartuak daude beren metodologia eta material-gintzaren ikasleen behar espezifikoak oso kontutan hartzera eta agian hau LSPak hizkuntzen irakaskuntza jeneral edo ez-berezituari egin diezaioketen ekarpenik nagusia: metodologiak ikasleen beharren arabera eraiki behar dira eta ikasleak, linguistikoki zeharo definituak izango diren ataletan murgildu behar dira ikastaroan. Literaturazko testuak aztertzen dituzten ikasleen helburuak eta behar komunikatiboak dituztenenak oso desberdinak dira eta irakasleak gogoan eduki behar du beti puntu hau.

Tere Barrenetxea

ROTISLAV KOCOUREK, Professeur à l'Université Dalhousie (Canada): La Langue Française de la Technique et de la Science. Oscar Brandstettes Verlag GmbH & co. KG, Wiesbaden 1982.

Liburuaren edukina:

1. Délimitation et diversité de la langue de spécialité
2. Spécificité linguistique de la langue technique et scientifique
3. Formation et signification des termes
4. Structure terminologique
5. Application et appréciation

Annexe A: articles de revues techniques et scientifiques

Annexe B: Sources et outils divers

Bibliographie

Index des auteurs

Index des terms

Zusammenfassung

Summary

La Langue Française de la Technique et de la Science liburuak testu espezializatu zientifiko eta teknikoetako frantsesaren hizkuntz baliabideak aztertzen ditu. Hizkuntza tekniko-zientifikoa xede berezietarako hizkuntzen atalik garrantzitsuena dela kontutan hartuz, arlo horretako frantsesaren terminologiaren azterketa sakona egiten du, baina grafia, sintaxia, eta alderdi lexikal eta testuala alde batera utzi gabe.

Azterketa honetarako egungo testu errealak erabili ditu, adibide askotan azaltzen duen bezala, maiz ingelesezko eta alemanezko itzulpenekin batera.

Egileak dioenez, hizkuntza berezituaren baliabideak, hizkuntza naturalarenak dira neurri handian, baina baliabide horiek aukeratu, egokitu eta aberastu egin behar izaten dira aktibitate berezituaren behar eta helburuen arabera. Funtzio kognitibo eta komunikatiboa tartean daudelarik, hizkuntza berezituak, beste ezer baino lehen, edukin espezializatua ezagutu eta komunikatzeko tresna da.

Hizkuntza tekniko-zientifiko berezituak ondorengo joerak ditu egilearen ustez: hizkuntza idatziari garrantzia ematea, takigrafia (hau da, adierazpide laburbilduak) erabiltzea, bere hiztegia definitzea, polisemia eta hominimia kontrolatzea, sinonimoak baztertzea, gramatika sinplifikatu eta argia erabiltzea, hizkuntza konnotazio moral, afektibo eta estetikoek soilteza eta azkenik, hizkuntzaren baliabide metalinguistikoak erabiltzea. Eguneroko hizkuntza edo hizkuntza sinbolikoak ez bezala, hizkuntza berezituak oso hiztegi aberatsa erabiltzen du eremu bakoitzeko konplexutasuna bere osotasunean deskribatu ahal izateko.

Garago azaldu dugun bezala, hiru atal nagusitan banatua dago liburua. Lehenengoan, hizkuntza berezituak eta bere barietate desberdinak definitzen ditu. Bigarren kapituluak, frantses tekniko-zientifikoaren ezaugarri linguistiko nagusienak aztertzen ditu koherentzia testuala, baliabide sintaktikoen hautapena, kondentsazio sintaktikoa, esaldi pertsonagabeak, nominalizazioa, unitate lexikal eta terminoen erabilera mugagabea eta adierazpide grafikoen erabilera azpimarratuz.

Hurrengo bi kapituluetan, 3. eta 4. kapituluetan, frantsesaren terminologiaren deskribapen sakona egiten du, sorkuntza, esanahia, egitura eta ezaugarri bereziak aztertuz. Beste batzuen artean honako puntu hauek lantzen ditu: eratorpena, konposizioa eta lexikalizazioa, mailegutza eta "franglish" laburdurak eta akronimoak, eraikuntza metaforikoak, motibazioaren eta adieraren arteko erlazioa, motibazioaren eta lexiko-sorkuntzaren arteko erlazioa, definizioa eta sinonimotasuna, eremu lexikalak eta egitura terminologikoak, erlazio sintagmatikoak, lexikoaren aberastasuna eta maiztasuna.

Azken kapituluak erabilpenak eta etorkizuna aztertzen ditu: itzulpen berezituak, LSParen irakaskuntza (LSP, Language for Special Purposes), standar dizazioa, baterakuntza, hiztegiaren hedapena eta murrizketa. Azkenik terminoak ebaluatzeko erizpide desberdinak aurkezten ditu eta bukatzeko frantse-

sarekiko, hizkuntz berezituaren arloan, historian zehar hartu diren jarrera desberdinak aurkezten ditu. Jarrera desberdin horiek beren papera jokatzeko dute hizkuntza tekniko-zientifikoaren eraikuntzaren eta erabilpenaren orduan.

Prozesu guzti honen ondorioz, frantses tekniko-zientifikoa hizkuntza osoaren azpimultzo berezitu bihurtu da bere merituz propioz, hizkuntza orokor eta estetikoarekiko neurri batean independentea, baina frantsesaren ezaugarri orokorrekin batera eboluzionatzen ari dena.

Tere Barrenetxea

B. RODRIGUEZ DIEZ: Las lenguas especiales. El léxico del ciclismo. Colegio Universitario de León, 1981

Ukaezinezkoa da kirolak gaur egungo gizartean duen garrantzia. Eta batez ere jenderik gehien mugitzen duten kirolek, komunikabideei esker (prentsa, irratia, telebista), bere "ikusleak" etengabe hazten bait doaz. Kirola fenomeno sozial bezala garrantzi handikoa da gizarte modernoan. Kirola aztertzeke bide asko daude, eta bide hauetako bat kirolak berak sortzen duen hizkera aztertzeke dator. Lengoia, gizakiak bere eskuez "manipulatzeko" duen edozeri erantzen zaio. Gaur egun, bi iturritatik sortzen da hizkera hau:

- Kirolak, lengoia berezi bat eskatzen duelako.
- Kirol-erdiak, komunikabideen bitartez transmititzen direlako (kasu zehatz honetan prentsa besterik ukituko ez bada ere).

Prentsak, kirol-hizkeraren "mintzatzaileen" kopurua ia etengabe handitzen du, eta horrela kirol-hizkera, hasieran espezialista eta parte hartzaileen gauza besterik ez zena, hiztun arruntaren gauza bilakatzen da, *hizkera arrunta* deritzana. Bide honetatik abiatu da Rodriguez Díez, ziklismoaren hizkera prentsa idatzian aztertzeraz.

Helburu honekin burutu zuen bere doktoradutzako tesia, **Hizkuntza bereziak. Ziklismoaren lexikoa** izenburuarekin, Oviedoko Unibertsitateko Filosofia eta Letretako Fakultatean 1978ko ekainaren 27an irakurria. Geroztik, 1981. urtean, Leongo Eskolako Unibertsitateak, doktoradutzako tesi hau, zerbait aldatu eta osatua, liburu bezala argitaratu zuen, eta liburu honen aipamena egingo dugu ondorengo lerroetan.

Lan mardul honetan 2 atal bereizi behar dira, egileak berak horrela idatzatzen dituenak:

- I. Atal teorikoa
- II. Ziklismoaren hizkera edo lexikoa

Lanaren hasierako hura -ziklismoaren lexikoa- azken zati bezala aurkezten da, hiztegi gisa. Baina ez da hiztegi bat soilik. Unitate lexiko bakoitzak bere definizioa eta kategoria gramatikalaz gainera, etimologia dakar (egileak merezi duela erizten dionean) Espainiar Akademiaren Hiztegiarekin eta beste


hainbat hiztegiarekin hitzak dituzten konkordantziak ere aipatzen dira. Bestalde, ez dira falta lan honetan beste hizkuntzetan hitz hauek dituzten ordainak, ez eta "autoritate" zenbaiten aipamen labur eta zehatzak ere. Horregatik, beldurrik gabe esan dezakegu, lexikografi lanetarako eredu bezala har genezakeela.

Autoreak, hala ere, urrutirago joan nahi izan du; bere helburua ez zen ziklismoaren arloari dagokion hiztegiaren deskribapen soila egitea, hiztegi honen "espplikazioa" ematen saiatzea baizik. Horretarako, lehen atal teoriko mardul horretan (106 orrialde), hiztegi partzial hau espainieraren sistema osoaren barruan aztertzen du, h.d. beste erabilera praktikoa batzurekin parekatuz, batzuen eta besteen berezitasunak sailkatuz ikuspegi teoriko ezberdinen azalpen eta eztabaidak planteatuz, etab. Nahiz eta autoreak zirriborro huts bezala kontsideratu, liburuaren hitzaurrean Emilio Alorros Llorach jaunak adierazten duen bezala, *hizkera bereziesen analisi eta sailkapenerako balio handiko lan teoriko bezala jo daiteke, erabilkera linguistikoen ikertzaile orok abiapuntu nahitaezko bezala onartu beharko duena, hain zuzen.*

Azterketa-lan hau aski berezia den arren, autoreak lehen zati teorikoan, bibliografi hustuketa ia exhaustibo bat egiten du, kirol-hizkerari dagozkion lan mordoa aztertuz. Horrela, era berean arakatzen ditu hiztegi orokorrak (DRAE-rena edo María Molinerrena kasu), kirol-hiztegi berezituak, espainieraz zein beste hizkuntzetan (frantsesez, italieraz, alemanieraz) eta baita prentsa berezituak ere: azken atal honetan, 5 urtetako epe batean (1972tik 1976 bitartean), munduan ematen diren txirrindulari-itzuli garrantzitsuenak aztertzen ditu, **Giroa, Vuelta eta Toura**, hain zuzen, garai haietako **ABC, YA, Arriba, Marca**, eta **AS** egunkariak goitik behera "larrutuz" (bere hitzetan).

Ondoren, orrialde sakon eta mamitsuetan zenbait puntu teoriko jorratzen ditu egileak:

- Zer da hizkera arrunta?
- Dialektoak eta hizkera bereziak.
- Hizkera berezi hauen ezaugarriak.
- Eredu semantikoak, talde sozialak eta hizkera bereziak.
- Hizkera zientifiko-teknikoak. Atal honen barruan azterketa berezia eskaintzen dio "argot" delakoari.
- Hizkera sektorialak, eta hizkera-mota hauek ziklismoarekin duten zeri-kusia (hizkera militarrek, adibidez).



Bigarren zatian, 1.080 hitz edo sarrera damaizkigu egileak, espainieraren ordena alfabetikoan sailkatuak. Lehen esan bezala sarrera bakoitzaren ondorengoa, honako ezaugarri hauek ematen dira:

- a) Kategoria gramatikala, adib.: S. (Substantiboa), m. (Maskulinoa), etab.
- b) Erdarakada denaren adierazgarria, horrela suertatzen denean, adib.: *Cerrar Gal*: fr. *serrer*: "apretar".
- c) Definizioa, eta hala behar izanez gero, aurretik zein hizkera sektorialetakoa edo zein dialektotakoa den adierazten duen zeinua, adib.: *Aut* (Automobilismoa), edo *Filip* (Filipinasetakoa).
- d) Ikur zeinuen bidez, definizioaren ondorengoa edo honen ordean, sarrera osatu edo argituko luketen beste sarreren berri ematen da.
- e) Ondoren, espainieraren hiztegi orokorretan agertzen den edo ez ere adierazten ematen da (Espainiar Akademiaren Hiztegia, DRAE, edo María Molinerren hiztegia, MM). Era berean, sarrera hori hiztegi edo glosategi berezituren batean aurkitu balitz, bere erreferentzia ere ematen da. Ez nuke aipatu gabe utzi nahi sinonimoen erabilera. Hitz edo sarrera askotan kontzeptu horren eremua mugatzeko sinonimo eta antonimoak ematen zaizkigu.

Aurreko guztia garrantzizkoa izan arren, nire ustez, lanaren baliorik handiena hizkera berezi honen azterketa akademiko hutsean baino gehiago, orrialdeetan barrena nabari den "maitasunean" dagoela esango nuke. Lanaren hitzaurrean esaten den bezala, Rodríguez Díez, lexikografiatik abiatu bazen ere, azkenerako ziklismoaz maitemindurik geratu zen.

X. Agirre
UZEIko lankidea

PETÖFI, János S., PODLECH, Adalbert, SAVIGNY, Eike von (Hrsg.): *Fachsprache - Umgangssprache*. Wissenschaftstheoretische und linguistische Aspekte der Problematik, sprachliche Aspekte der Jurisprudenz und der Theologie, maschinelle Textverarbeitung. Wissenschaftstheorie und Grundlagenforschung 4. (Kronberg 1975; Scriptor Verlag).

Liburu honek hizkuntza arrunteko eta hizkuntza berezitzeko komunikazioa ikuspegi desberdinetatik aztertzeke egin zen kongresu bateko materiala aurkezten du. Zientzi teoriak eta hizkuntzalaritzako arazo orokorrek inbateratu Jurisprudentiaren eta teologiaren zenbait hizkuntz alderdi eztabaidatu ziren han eta testu-azterketaren hainbat aspektu ere bai.

Tituluak dioten bezala, hizkuntza berezituaren eta hizkuntza arruntaren arteko erlazioez dihardu gehienbat liburuak.

Kongresu bateko aktak direnez autore desberdinen ponentziak ageri dira bertan eta hauekin batera ponentzia horiei egindako kritikak eta hauei emandako erantzunak.

Lehenengo ponentzia München-go Unibertsitatean Zientziaren Teoria irakasten duen Eike von Savigny-rena da. Galdera hau planteatu zuen irakasle horrek bere ponentzian: Zenbateraino da hizkuntza arrunta hizkuntza berezituaren oinarri?

Ponentzia honen gaiari buruz Konstanz-eko Unibertsitateko Peter Janich irakasleak egindako azalpena dator ondoren. Azalpen honen titulua "Hizkuntza berezituaren hizkuntza arruntarekiko menpekotasun metodikoa" izan zen. Eike von Savigny-k azalpen honi emandako erantzuna dator atzetik.

János S. Petöfi, Bielefeld-eko Unibertsitateko Hizkuntzalaritza-irakaslea, testuen analisi, sintesi, interpretazio eta konparazioak teoria formal batean oinarrituz testuen tipologiarekin duen erlazioa argitzen saiatu zen bere ponentzian.

Göttingen-go Unibertsitatean hizkuntza berezituak hizkuntzalaritzaren ikuspegitik ikertzen dituen Wolf Thümmel irakasleak zenbait galdera planteatu zuen hizkuntza berezituak eta eguneroko hizkuntza Petöfi-k aurkeztutako teoriaren bidez berezteari buruz. Bielefeld-eko irakasleak honi emandako erantzuna eskaintzen zaigu ondoren.

Montreal-go Mc Gill Unibertsitateko Hizkuntzalaritza departamentuko Myrna Gopnik irakasleak "Testu-motak bereizteko erizpide formalen bila" izenburuaren pean aurkeztutako lana eta Konstanz-eko Unibertsitateko Hannes Rieser irakaslearen "Hizkuntza arrunta, hizkuntza berezitua eta hizkuntza berezitzeko testuen interpretazioaren arazoa" ponentzia agertuta gero, liburuak Rieser-i München-eko Unibertsitateko Wolfgang Spohn irakasleak emandako erantzuna jasotzen du.

Hasieran esan bezala, Kongresuan aztertu ziren gaien artean hizkuntza juridikoaren problematika zegoen. Ildo honetatik doaz Darmstadt-eko Goimailako Eskola Teknikoan irakasle den Adalbert Podlech-ek aurkeztutako "Hizkuntza juridiko berezia eta hizkuntza arrunta" ponentzia eta honi Berlingo Unibertsitate Libreko Hansjürgen Garstka irakasleak "Zuzenbidezko balorazioen hizkuntzazko inportantzia" izenburuaren pean kontrajarri ziona.

Zuzenbideko hizkuntzaren problematikazkoak dira halaber Kassel-go Goimailako Eskolako Hans Brinckmann irakaslearen ponentzia, "Zuzenbide-ekintzak eta hizkuntz ekintzak" titulatu zuena eta honi erantzunez Köln-eko Unibertsitateko Klaus Adomeit irakasleak aurkeztu zuena.

Pavia-ko Unibertsitateko Amadeo Giovanni Conte jurisprudentziako irakasleak, Deontikaren hizkuntza berezituarekin egindako esperimenduei buruz dihardu bere artikuluan. Hizkuntza normatiboaren semantika eta logika aztertzen ditu. Ponentzia honi Berlingo Unibertsitate Libreko Wilhelm Opfermann irakasleak egin zion kritika.

Gottfried Hornig, Bochum-go Ruhr Unibertsitateko Teologia Ebanjelikoko departamentukoa "Hizkuntz analisia eta hizkuntz kritika Teologiaren eta Erlijio-Zientziaren egiteko bezala" tituluaren pean hizkera erlijioso arruntaz eta teologiaren hizkuntza berezituaz, hizkuntza erlijiosoaren elementu mitiko eta sinbolikoez eta gai hauen inguruko problematikaz ihardun zen.

Charles R. Taber, EEBBetako Tennesseeko Milligan College-goak testu biblikoen itzulpen-arazoak aztertu zituen. Batez ere baliokidetzak kulturalen faltak sortzen dituen itzulpenarako eragozpenak azpimarratu zituen.

Honek azaldu zuen gaiari zenbait ohar egiten dizkio Münster-eko Unibertsitateko Helmut Peukert-ek.

F.W. Lancaster, hurrengo ponentziaren egilea, Bibliotekonomi Eskolako irakaslea dugu Illinois-eko Unibertsitatean. Berak landutako gaia honako hau da: zientzi munduan autore baten lana ez da zuzenean irakurlearengana heldu ohi; normalean zientzilari batek beretzat inportantenak direlako aztertu ohi dituen aldizkarietan benetan interesgarria zaionaren beste iturri batzutara jo behar izaten du informazio bila. Orduan liburutegiak eta beste informazio-zentru batzu izaten dira bitartekari informazioaren ibilbidean. Informazio-zentruak indexatu egiten ditu iristen zaizkion dokumentuak hauetan aipatzen diren kontzeptu nagusiei dagozkien hitzen bidez, esate baterako. Hitz hauek ez dira edozein izaten, baizik eta thesaurus batean zehazten direnak. Informazio bila dabilenak, berriz, dokumentalistarengana jotzen du eta honek egiten dio dokumentu-bilaketa entzundako esplikazioen arabera. Informazio-transferentzia honetan sortzen diren hizkuntz arazoak dira ponentziaren gaia.

Ponentzia honen ondoren Lancaster irakasleari zenbait galdera eta proposamen egin zizkion Bielefeld-eko Unibertsitateko Dieter Metzinger-ek eta ostean hark honi bere erantzunak eman zizkion. Denak liburuan bilduta daude.

Ildo beretik doaz Maryland-eko Unibertsitateko Dagobert Soergel-en hitzaldia, tituluak adierazten duen legez: "Thesaurusgintzaren problema teorikoak kontzeptu-osakuntzaren aipamen bereziarekin" eta honi Groningen-go Unibertsitateko Werner Abraham-ek egindako kritika ere bai.

Hizkuntz analisiaren automatizaziorako Veneziako Zentruko Roberto Busa jesulagunak "Ordenadorea ikerketa teologikoan" titulatu zuen ponentzia azaldu zuen. Ponentzia honi emandako erantzun gisa Wolfram Köch-ek azalpen bat egin zuen ordenadorearen erabilera hizkuntz eta literatur analisietan probetxuzko izatekotan zer nolako baldintza behar diren agertuz eta Busaren lanari zenbait ohar eginez.

Guztira 442 orrialde eta 230 aipamen bibliografiko inguru ditu liburu honek.

Andoni Sagarna

**BERRI
ETA
ALBISTE**

Administrazioa euskaraz

Administrazioa euskalduntzea dute helburutzat "Administrazioa euskaraz" aldizkaria kaleratu dutenek, aldi berean Euskal Herria euskalduntzeko pausu bat ematea administrariari eta euskaldun guztiei itzulpen eta idazketa zalantzak argitzeko.

Aldizkari honen 0 zenbakiak 12 orrialdeetan jaso ditu gai ezberdinak, arduraduna Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea dugularik. Gai horiek 9 sailetan banatu dituzte: agurra, lege-esparrua, idaztarauak, idazki-ereduak, Administrazioaren atalak, itzulpen-arazoak, Administrazioa euskalduntzeko ahaleginak, terminologia, berri laburrak eta liburuak.

Lege-esparrua aztertzen da lehenengo, euskararen erabilera arautzen duten lege nagusiak jasotzeko asmoz. Ale honetan **Euskararen Erabilpena Arauzkutzeko oinarritzko legea** aipatzen da, alegia, betekizunetik urrun dagoen legea, -konstituzio-auzitegira eramana izateagatik- eta traba handiak jasan izan dituen.

Bigarren saila idaztarauak aztertzeko erabili dute; ale honetan maileguzko hitzen erabileraz Euskaltzaindiak hartutako azken erabakietako bat; alegia, r, s, p, t, k kontsonantez hasten diren hitzek euskaraz aldaketarik izango duten ala ez.

Hirugarren aztergaia idazki-ereduak. Oso sail interesgarria deritzogu, hain zuzen ere, Administrazioan idazkien bidez egin behar izaten direlako lan gehienak, ez bakarrik administrazioen lanean, baita ere gainerako jendearen eskaera, ohar, erantzun eta abarretan.

Eskabide-orria da hemen aztertu dutena. Oso zehatz eta didaktikoki azaldua, aldizkariaren zatirik nagusiena hartzen duela, puntuz puntu adibide praktikoetan ikus daitekeena.

Ohar bat egingo genioke "eredu" honi. Euskaltzaindiaren azken erabakien arabera "zera" hitzak lagunarteko erabilera eskatuko du (89. or. **Euskal Gramatika, lehen urratsak**): *Erabilera aipagarri bat: lagunarteko hizkeran batez ere, komodin gisa... horrelakoetan ez gaude jadanik galdetzaile baten aurrean... edozeren ordez erabili daiteke.*

... ez dirudite oso dotoreak honako esapide hauen antzekoek: industri Sailburuak zera adierazi du...

Honen ordez, komodin baten premian bagara, agian itxurazkoagoa litzateke, "honako hau" edo "hauze"-z baliatzea.

Beraz, administrazio agirietan ere ez diogu lekurik ikusten "zera" hitzari. Aldaketak egin beharko lirateke, beraz, inprimaki horietan Euskaltzaindiak dioenaren arabera.

Beste sail interesgarria jasotzen da: itzulpen-arazoak. Ale honetan esaldi pasiboak aztertzen dira, gaztelaniaz eta euskaraz hizkuntz maila edo estilo bera lortzen duten ala ez ikusteko.

Parez pare jartzen dira hiru adibide gaztelaniaz eta hiru euskaraz. Ikuspegia egokia iruditzen zaigu, alegia, estiloa kontutan hartuz sailkapen posible bat proposatzea. Baina, sintaxian oinarrituz, pasibotasunaren ezaugarria sujetuaren agente izatearekin lotzen baldin bada, (b, c) adibideak ez dira pasiboak izango, nahiz eta euskarazko itzulpen egokiak izan:

Txosten hau alkateak onartua izan da.

Txosten hau alkateak onartua da.

Bestetik NORK gabeko esaldietan a) adibidea ez dugu uste sujetu gabekoaren artean jar daitekeenik:

han aprobado el informe (a)

bai (b) eta (c) adibideak berriz.

Azken sailkapenari buruz, alde batetik ikuspegi egokia iruditzen zaigu hizkuntza bakoitzak barne-sailkapenak izatea, kasu honetan mailaketa sintaktikoak egitea:

	Se ha leído el acta	<i>irakurri da</i>
maila berekoak:	ha sido leída el acta	<i>irakurria izan da</i>
maila apalagokoa:	han leído el acta	<i>irakurri dute</i>

Hirugarren esaldiaren apala izatea seguruaski sujetu zehazta eramatearekin lotua egongo da. Dena dela, ez diogu parez pare konparaketa horri jarraitu beharko, gure ustez gaztelaniazko ereduari jarraituko liokeelako. Hizkuntza bakoitzaren erabilerak bereak direlako eta normaltasun eta ez normaltasun mailek ere hala izan behar dutelako.

Ondorengo atalean Oñatiko Udalak administrazioa euskalduntzeko ahaleginetan izandako esperientzia kontatzen zaigu, zenbait herritarako eredu egokia izan daitekeena.

Bukatzeko, terminologia saila aipatzen zaigu. Honetan bi hitz tekniko aukeratuz gauza bera esateko hiztegi eta liburuetan agertzen diren forma ugariak zerrendatzen dira. Erabilera desberdin hauek batasunerako traba direnez gero, galdera zuzena egiten zaio Euskaltzaindiari. Hiztegi gintzak duen arazoetako bat dugu honako hau, forma batuak proposatzea hizkuntza teknikorako, eta noski, administrari eta itzultzaileen artean kontutan hartzekoak izango dira beraien lanak ahalik eta bateratuenak izan daitezen.

Administrazio-hizkuntzak bazuen aldizkari baten premia, azken urteetan bizkorraldi handia izan du eta. Une egokia eta leku egokia izan daiteke orain arteko pausuak eta etorkizunekoak aztertu, zuzendu, ezagutu, proposatu eta abar egiteko.

Aintzane Ibarzabal

Literatur Gazeta

Jaio, bizi eta hil hemengo martxan egiten denean, horretxan profesionala behar du batek jaio berri guztiak agurtuko badi-tu. Askotan, hala ere, bileran ezezagunen bat azaltzen denean bezala, "begiraiok disimulo piska batekin atzeko horri, hi; eza-gutzen al duk?" Eta momentuko, kaixoka.

Ez bat eta ez bestea, **Literatur Gazeta**-k badu lekua itzul-pen eta terminologia aldizkarian, eta arrazoiz agurtzen dugu, lehenengo hiru aleak irakurri ondoren.

Izan ere, ematen duenez, *Literatur Gazetak*, *literaturaren inguruan dagoen informazioa biltzeko zorro* bat izan nahi du, hemen bertako eta euskaraz egindako literaturari buruzko in-formazioa, eta hemendik kanpora beste hizkuntzetan egiten denari buruzkoa, biak. Lehenengo aleko editorialean esaten den hori, ederki betetzen da ba ale horretan bai hurrengoetan.

Euskal literaturaren informazio, kritika eta propaganda (aukerako ezpalak) eginkizunei dagokienez, ez da Senez-en egitekoa, berez behintzat, haien aipamena egitea.

Euskaraz kanpoko literaturen informazioari dagokionez, itzultzaile baten ikuspegitik zer esana badago. Hizkuntza bateko hiztunak, izan ere, hiru modu edo ditu bere lehenengo hizkuntza horretan idatzi ez den literatura ezagutzera iristeko.

Edo eleaniztun egiten da, eta bere kabuz iristen da beste literaturak ezagutzera, edo bitartekariren bat bilatzen du lan horretarako. Bitartekaritza hori bi modutara egin liteke: bata, beste literatura horretaz erizpideak emanaz ezagutarazi, literatur kritika eginez, edo literatura hura bertakotu, itzuli.

Azkeneko zentzu honetan itzultzailea eta literatur kritikoa asko hurbiltzen dira elkarrengana. **Literatur Gazeta**-n, elkarren lehian aritzeraino. Biak elkarturik, eta euskal literaturaren kritika eta informazioarekin batean garrantzi handiko hutsunea bete lezake. Lehen alearen **Bat hirutan** editorialaren **Aldizkari berria kaleratzean egindako aitorpena**-k aldizkari berriari legokiokkeen lekuaz ageri dituen zalantzei dago kienez, ez dago kuidadorik. Arazoak –baldin badira– ez dira lekuarenak izango. Egon litekeen arazo bakarra, izatekotan, euskal literaturan gaur dagoen produkzioak **Literatur Gazeta**-k behar duen kritika kopurua betetzeko adina gai ematen duen izango da. Askotan esan izan da –topiko bihurtzeraino agian–, eta halaxe errepikatuta dakar, baita ere, aipamena egiten hasi gatzazkion aldizkariak 1. aleko editorialean, euskal literaturak kritikarik ez duela; egia ere bada, izan, agian, egiten dena, askotan laudorio ala gaitzespen bait da, bitartekorik gabe, kritika estrukturala ez baldin bada –irakurketa mailen gauza hori, testu komentarioetako–. Kritika ere irakurtzea da, pausatua, eta askotan zorrotza eta arrazoizkoa. Nolanahi ere, jakin nahi nuke nik ea hizkuntza normalizatu bateko zein literaturak duen, proportzioz, euskaraz idazten den literaturak duena, aldizkarietan batez ere. Hedadura handiko hizkuntza batean idazten diren liburuetatik, baita literaturazko liburuetatik ere, asko eta asko, ia gehienak, inongo kritika zokotan aipamen bat bera ere ezagutu gabe geratzen dira, euskarazkoei Argiako kritikalaria egiten diena ere gabe. Beharbada, gurea bezalako literatura batek, kritikaren gidaritza zorrotzagoa behar luke, gidatzaileagoa (?), erruki gutxiagokoa. Baina hori beste modu bateko eztabaida da.

Literatur Gazeta-n argitaratzen diren itzulpen laburrez, literatur itzulpenarentzat erabiltzen diren erizpideetan finakturik hitzegin beharko da, garaia datorkienean. Itzultzeko testuen hautaketari dagokionean, txalotu behar zaio aldizkariari ematen duen aukera zabala, eta batez ere literatur saltzaileen supranazionalak gaztelaniaz batez ere, eta frantsesez, eskaintzen ez dituzten testuak bilatzen saiatu izana 3. alea osatzeko

egin duten itzulpen saioa, hala ere, ez da aipamen berezia egin gabe uztekoa.

Literatur kritika eta itzulpena, biak batera, lantzen dituen aldizkari batean, normala da itzulpen kritika ere agertzea. Eta normala da, baita ere, itzulpen eta terminologiazko aldizkari batetarako idazten ari dena, horretaz ohartzea.

Bi artikulutan egiten da, batez ere, **Literatur Gazeta**-ren lehen hiru aleotan, itzulpen kritika: 1. alean Nerea Azurmendik **Hadrianoren Oroitzapenak** itzulpenari buruz dihardueanean, eta Sabin Oregik, 3. alean James M. Cain-en **Karteroak beti deitzen du bi aldiz** itzulpenari buruz idatzitakoan.

Biak ere aipamen laburrak dira, bigarrena laburrago lehenengoa baino. *Xabierren idazkera erraza agertzen zaigu, eta jostaria. Oso egokia horrelako bi alprojen komeriak kontatzeko.* Ikusten denez, itzultzaile baten ez baino idazle baten idazkerari legokiokoen komentarioa da hori. J.M. Cain-en idazkera ere horrelakoa den begiratzea falta da.

Euskarazko itzulpena irakurgaitza gertatuko zela pentsatzen zuen batek baino gehiagok liburua eskuratu aurretik. Baina egin berria daukadan inkesta labur batek dioenez bestelako ondorioak eman du —esaten du Nerea Azurmendik, Joxe Austin Arrietak M. Jourcenar-enetik egin duen **Hadrianoren Oroitzapenak** itzulpenaz, nobelari buruzko artikulua aski polit baten ia amaieran. Honainokoagatik S. Oregirenaz esan duguna errepikatu beharko genuke. Baina honela jarraitzen du komentarioak: *Gutziz lekuz-kanpokoak izango lirateke itzulpen honetan edonolako paternalismoa, edonolako "euskaldunismoa", eta, zorionez, ez da horrelakorik aurkitzen lanean. Euskararen berezko erritmoak sor dezake nolabaiteko arazorik, eta sortu ere egiten ditu...* Ez dago demostraturik, ordea, besterik gabe, horiek direnik Hadrianoren itzulpenean egin litezkeen huts eta akats bakarrak, ez eta ere, horrenbestez, Hadrianok *beti jakin izan zuenik enbaxadore onak aukeratzen...*

Hadrianoren itzulpenaz hitzegiten denean, izan ere, ez bait litzateke ahaztu behar ez garela ari obra handi baten itzulpenaz bakarrik, itzulpen bezala ere asko famatu eta goitu den itzulpen batez baizik, eta demostratu gabe dago M. Yourcenar-en testua eta J.A. Arrietak euskaraz argitaratu duena konparaturik ikusten diren itzulpenari buruzko eritziak, eduki litezkeen zehatzenak eta zuzenenak direnik, ez eta hark dituen literatur balio guztiak gurerakoan dauden daudenean

gorde direnik. Hadrianoen Oroitzapenen itzulpenak, itzulpen eredutzat aurkeztu aurretik, azterketa konparatibo on bat behar luke, euskal testuari bakarrik begira geratu gabe, itzulpeneko balioak eta akatsak bere neurrian aitortuko dizkiona.

Azken paragrafootako kritikarekin ere, bada, bihoakio Gazetari agurra, eta urte askotako oparia.

J.M. Zabaleta

Administrazioko itzultzaileentzat hobekuntza ikastaroa

Gasteiz, 1985eko azaroa eta abendua

Joan den azaroaren 18an hasi eta sei astez luzatu zen **Administrazioko itzultzaileentzat hobekuntza ikastaroa** antolatu zuen Herri-Ardularitzaren Euskal Erakundeak (HAEE). Ikastaro honen helburua zen, administrazioko testuak eta hizkera euskaratzeko erizpideak aztertzea, itzulpengintzarako baliabideak eskeintzea, eztabaidatzea eta sakontzea; zenbait herritako itzultzaileak bakar bakarrik ari bait dira lanean, hobekuntza bide egokirik gabe. Ikastaro hau lau ordutako saioetan banatua zegoen eta horietako bi ordu geroago aipatuko ditudan gaiak aztertzeko ziren, besteak berriz, talde lanerako, itzultzen ihardutekoak, hain zuzen.

Esan bezala, hilaren 18an hasi zen ikastaro hauetan aurkezenaren ondoren, Carles Duarte, Catalunyako Escola d'Administració Publicako lankidea bere gaiari lotu zitzaion: **Administrazio hizkera zer den. Administrazioko testuak hartzaileen, mezuaren, lege-eskakizunen eta abarren sailkatzea**. Hitzaldia hiru puntutan laburtuko dut, nere ustez interesgarrienak eta ondorengo mahai inguruan beste batzuen artean errepikatuko zirenak.

Lehen puntuan hizkuntza administratiboaren funtzioaz ihardun zuen, berak zioenez hizkuntza mota honek praktikoa izan behar du, ulerterraza eta aldi berean zehatza, alde batera utziz estetika eta elitismoa. Eta zehaztasun horretara jotzen

dugunean, testua gaizki edo behar bezala ez ulertzeko arriskuan jartzen gaituzten baliabideak (sinonimoak, etab.), ahal den neurrian behintzat baztertu egin behar direla, terminologia egokia aukeratuz.

Beste puntuan, hizkuntza administratiboaren estandarizazio joeraz ihardun zuen, estatus administratiboaren normalizazioaz, lan metodologiaz, eta lanaren mekanizazioaz.

Azkenik, itzulpen administratiboaren historia laburra egin ondoren, jatorri berdineko hizkuntzen (gaztelera, katalaniera) arteko, eta jatorri ezberdineko (gaztelera, euskara) hizkuntzen arteko itzulpenaz; aurrenekoan antza handia dutenez itzulpen literala egin daitekeela, bestean itzulpenak dinamikoagoa behar duela, hitzak baino zentzua errespetatuz, alde handiak eta nabarmenak daudelako.

Hitzaldiaren ondoren mahai ingurua zegoen programatua; bertako partaideak ziren: Carles Duarte, I. Sarasola, J. Zabaleta eta E. Oregi, azken hau moderatzaile gisa. Gaia "Administrazio hizkera eta itzulpena" zuten.

Aipatu ziren zenbait gauzen artean lexiko arazoa azaldu zen. Partaide batek zioenez, lan handia dago egiteko oraindik hitza definitzen eta berari kontestu jakin bat ematen; hori da hiztegi arau emailearen zeregin nagusia. Bestetik administrazioaz oraindaino hitzegin ez dugunez (gera aurrean ezer gutxi ezik) literatur tradizioaren ezagutze eta erabiltzea proposatzen zuen abiapuntu bezala hizkuntza mota hori, administratiboa hain zuzen, eraiki nahi badugu.

Gaur egun itzultzaileak dira lan horretan ari direnak, baina ez dira pertsona egokienak lan horretan iharduteko, bertan parte inportantea baldin badute ere. Ekintza horretarako unibertsitateko irakasleak eta linguistak dira zeresan handiena dutenak, lehen aipatu ditudan ezaugarri pean egin ahal izango dutenak. Eta hori lortzean beharbada egun batean administrazioan bere gaiez euskaraz ihardungo dute.

Nahiz eta gazteleratik itzuli behar izan, ez dira ahaztu behar Europako beste hizkuntzak, zeren eta erabiltzen dutena baino askoz ere baliagarriagoak izan daitezke, esate baterako ingelesetik gurearekin gaztelerak baino antza handiagoa bait du.

Eta ikastaroarekin jarraituz hizlariak eta aurkeztu zituzten gaiak aipatuko ditut, teorikoegiak direlako alde batetik eta bestetik gehiegi luzatuko ginatekeelako. Hurrengo hizlaria E.

Oregi izan genuen eta itzulpen lanaren metodologia izan zen aurkeztu zuen gaia.

J. Zabaletak trasposizio zenbait: nominalizazioa. Aurrekoa bezala Vinay-Darbelnet-en *Stylistique comparée du français et de l'anglais* liburuan oinarritu zuen bere hitzaldia.

J.M. Larrarte eta P. Goenaga izan genituen hurrengo bi astetan. Lehena hitz-eratorpenaz aritu zitzaigun eta bigarrena hitz-elkarketaz.

Eta ikastaroa bukatzeko J. Zabaleta esaldien antolapenez.

Bibliografia, ikastaroan erabili duguna hain zuzen:

- **Euskara eta administrazioari buruzko I Ihardunaldiak.** H.A.E.E.
- **Introducción a la traducción administrativa entre el catalá y el castellá.** Carles Duarte.
- **Lenguas en contacto. El estandar y el lenguaje administrativo.** Carles Duarte.
- **A creación dunha linguaye administrativa moderna.** Carles Duarte.
- **Per a una definició de llenguatge administratiu.** Carles Duarte.
- **Itzulpena eta hizkuntz normalkuntza.** J. Zabaleta.
- **Las características del lenguaje jurídico: en el ámbito legal.** Marily R. Frankenthaler eta Sofia Zahler.
- **Per un llenguatge administratiu catalá.** Antoni M. Badia i Margarit.
- **La traducción i el contacte entre llengües. Algunas consideracions.** Joan Fontcuberta i Gel.
- **Aspects of translating into minority languages from the point of view of translation studies.** Gideon Toury.
- **Stylistique comparée du français et de l'anglais.** J.P. Vinay-J. Darbelnet.

P. Iturrioz

Rosalía de Castrok ez zuen merezi

edo

Omen-aldiak Ote-aldi bihurtzen direnekoa

Donostian eta Abenduaren 13an Rosalía de Castrori omenaldia antolatu zioten, hain zuzen Santa Luzia egunez, gauzak garbi gera daitezen. Antolatzaile zen "emakumeari buruzko ikerketarako mintegia" deritzana, laguntzaile Gipuzkoako Foru Aldundia eta Instituto de la Mujer.

Ez genuen bertara joateko betarik izan; bai ordea harako programa ikusi eta mirestekoa. Ustez, poeta handi baten aurrean geunden. Ez diogu, ordea, igerri euskarazko testutik, ez sarrerako hitzetatik ere. Agian, piskat, galegozko testutik.

Perlazko katea osatzen du programa bezala eskaini zen txostentxoak. Ez ordea, nolabaiteko perlak barrukoak: perla bikain eta apartak, banan banan aztertu eta dastatzekoak.

Bestalde, eta gainera gure artean azken boladan umorea nahiko serio bihurtu zaigularik, halako perlak irakurtzean, bati masailezurra atera zitzaion, beste bati kakalarriak eman, eta hurrengoa geratu zen ahoa zabalik, ez bait zuen asmatu ere egiten zertan zen arazoa...

Sarrera honaino. Hemendik aurrera, zenbait perla. Hala nola **Negra Sombra** deritzanaren zatitxo bat:

Dio galegoz:

**Si cantan, és ti que cantas;
Si choran, és ti que choras,
i és o marmurio do río
i es a noite i és a aurora.**

Dio euskarazko itzulpen omen denak:

*Kanta egiten dutelakoan, zeu zara kantaria;
negar egiten dutelakoan, zeu zara negarraria,
eta errekaaren zara murmurra,
eta zara gaua zein goiz begia.*

Hori komeria! Izan ere, bat zur eta lur geratzen da halako poesia subimajinatiboaren aurrean. Euskal letrek zor handia egin dute oraingoan Kepa F. de Larrinoa jaunarekin, ezin kitatuzkoa. Zeren, azken batean, komerietan egiten bait da harako *kanta egiten dutelakoan eta negar egiten dutelakoan... eta errekaaren zara murmurra hori?*

Beste perlatxo bat halako katean... **A Xusticia Pola Man** poemaren lehen ahapaldikoa.

Hona galegoz:

**Aqués que tén fama de honrados na vila
roubáronme tanta brancura que eu tiña,
botáronme estrume nas galas dun día,
a roupa de cote puxéronme en tiras.**

Hona euskara omen denera konbertiturik:

*Herrian prestu ospea dauzkaten haiexek
banuen bezainbat zurimenta ohostu zidaten,
zimaurrea bota zidaten egun bateko hartako jantzian,
xerratan jarri zidaten etengabe janzkia.*

Eta geroxeago kontatzen du areago poema berean: *izarretan erbiekin egin nuen lo landetan*, eta halakoak.

Guzti hau ikusirik, ezin onar liteke Rosalía de Castrori eskaini zitzaion omenaldia. Benetan tamalgarria jokabide hau xe. Eta bestalde –eta oraingoan serio ihardun nahi genuke– sailatu behar da halako disparte sail etengabearen babesle Gipuzkoako Diputazioa ikustea.

Hori bai, mesede egingo liguke Kepa F. de Larrinoa jaunak argituko baligu nola egiten duten Galizia aldean janzkiak xerra bihurtze hori. Lehendik ere ezaguna genuen Galizako idi okelaren fama, ez ordea guk jakin nolatan egiten dituzten xerak janzkiekin, eta hori, sekreto horixe eskatuko genioke.

Rosalía beraren poesiak ezezik, gainontzeko testu guztiak ere guztiz lardaskaturik ageri zaizkigu omenaldiko omen den txostenean. Adibidez, María Xosé Queizan-ek egiten duen sarrera euskara?-tua:

Rosalía idazle konpremetatua izan zen bere herriko emakumezko eta gizonezkoen ahotik hitz egingo duena, bertako egoera mingarri injustizi ekonomikoa eta politikoarenpean daudeneren (sic!) dekrribapenak ere egiten duena.

Hori omen da gaztelerazko:

Rosalía fue una escritora comprometida que habla por boca de las mujeres y de los hombres de su país y describe la dolorosa *epopeya* de las víctimas de la injusticia económica y política. (azpimarra gurea)

Horregatik, eta azaltzeko gogorik ez dugun gehiagogatik, KONDENATZEN DUGU –behinola La Codorniz-en bezalabere itzulpenak norbaiti erakus diezaizkion, denen barrera jarri aurretik; eta isilik egon dadin urtebetez, eta Rosalía de Castrori barkazio eske, pelegrinazio bat egin diezaion, antolatzaileak eta laguntzaileak lagun dituela.

Joserra Garzia
Pello Zabaleta

Literatur itzultzaileen prestaketarako proposamenak Hegats-en

Hegats, Euskal Idazleen Elkarteak argitaratzen duen Buletinaren 1985eko abenduko alean bi proposamen labur datoz literatur itzultzaileen prestakuntzarako: **Elkarteko batzordekide batek literatur-itzultzaile sortzeko egindako proposamena** eta **Euskal Idazleen Elkarteak itzultzaileak sortzeko zenbait erakunderi egindako proposamena**. Lehenengoa bait da bietan lehenengoa, nabarmen ikusten denez, haren edukia ikustea komeni da lehendabizi. Batzordekide horrek proposatzen duenez: *Diru publikoa erabiliz, Euskal Erakundeak ahalik eta jende gehien bidali beharko luke ordaindurik, hiru bat urtetarako Europako kapitale kulturaletara, Erromara, Parisera, Barcelonara, Madrilera, Berlinera, Estokolmora, etc., hango hizkuntza eta kultura ikas eta estudiatu litzan, gero handik itzuliz edo itzuli gabe, traduktore bihurtzeko... traduktore frantseseratik, edo italieratik edo alemaneratik, etc. euskarara, noski.*

Asmoa, ikusten denez, ez da txarra. Eta idatzi duenak badaki zer den itzultzea, zein baldintza dituen eta zelako eza-guerak eskatzen dituen. Hemen gehiegitan ontzat ematen den itzulpen asko ere agian ezaguna du. Horregatik jartzen ditu jarri ere, artikulutxoaren amaian ageri diren baldintzak: *Lehena*

euskara oso ondo dakiena behar duela izan, eta bigarrena, literatur zalea behar duela izan.

Bigarren artikulua lehenengoaren simetriko soila da ia, alde bat bakarra bait du: hizkuntz arrotzetatik euskarara itzuliko duten itzultzaileak sortzeko proposamena izan ordez, euskaratik bestetara itzuliko dutenak sortzekoa izatea, eta itzulpenari buruzko ezaguera gutxixeagorekin hala ere, ez bait zukeen bestela esango: *Itzultzaileak, gure kasuan, literatur-zaleak izan beharko lirateke, itzulpen ona ez ezik baita estiloa ere zainduta izateko.* Jakitea izango litzateke gauza, ea zer den estiloa zaindu ez den itzulpen hori.

Nolanahi ere, bi proposamendu horiek, bistan dago elkarren osagarriak direla. Hala ere, ordea, biak ere itzulpen politika oso, zabal eta egoki baten barruan ikusi beharko liratekeenak dira. Zeren itzulpenak, itzulpenari dagokion politikak itzultzailea ez ezik beste ikuspegi asko ere begiratu behar bait ditu, zer itzuli, nork itzuli, itzultzailearen statusa, nola argitaratu, zein baldintzatan egiten den posible alegia, nola bideratzen den itzulpena, gure bezalako egoera batean, izan behar duena izateko, eta zer izan behar duen, hain zuzen ere, itzulpen horrek.

Zer eztabaidatua, zer pentsatua, zertaz hitzegina badago oraindik horretan.

Ez dakit ikuspegi ofizialetatik egoera nola deszifratuko den; seguru asko ikuspegi horiek ez dira homogeenak ere, baina ofizialtasun horren kupulari gagozkiolarik, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari nagusiei alegia, laburrean bildu litezkeenak dira haiengandiko esanak eta eginak... Eima Programan itzulpenari ematen zaion balioak itzulpena gutxitzera eraman ditu argialetxe batzuk, eta itzulpen literarioa argialetxeek bideratzen dutela gehienik ez da ahaztekoa. Badira bi beka ere, milioi erdinakoak biak, itzulpen literarioa suspertzeoak; bere gutxian ere erakutsi beharko lukete zein erizpide dituen beka emaileak itzulpena bultzatu eta hobetzeko. Erizpide horiek, ordea, sumatzeko geratu gabe, argitaratu ere egin dira: Kulturako arduradunak Susan jaulkitako ausardia handiko hitzak irakurri besterik ez dago: Klasiko latino eta grekoak itzultzen aritu baino hobe zela, alegia, oraintsuko Euskal Herriko idazle erdaldunen izkribuak euskarara itzultzea. Besterik ez bait dago egiteko!

Euskal idazleen interesak zaintzeko sortu den elkarte batek, -eta idazleena den aldetik itzultzaileena ere badenak-arazo guzti horiek beren osotasunean azterzeko saio berezi bat egin beharko lukeela uste izatekoa da.

Nolanahi ere, badirudi azken aldi honetan, itzulpenarekiko ardura hainbat lekutatik sumatzen dela, eta horren islada bat izango lirateke oraingo bi artikuluok. Alde horretatik pozgarria da orain arte itzultzaile aitortuen kexua zirudiena orain idazleen elkartearen ardura bihurturik ikustea.

J.M. Zabaleta

HARPIDETZA TXARTELA

SENEZ aldizkariaren harpidedun egin nahi dut:

Izena

Kalea Herria

Urteko ordainketa (2.100 Pta.) nire Banku edo Aurrezki Kutxako kontuaren bidez egingo dut :

Banku edo Aurrezki Kutxa

Kontuaren zenbakia

Sukurtsala

Kontuaren jabea

Entitate horretako nire Kontuan zorpetu itzazue nire izenean doazkizuen erreziboak.

Sinadura

Helbidea

EUSKALDUNON HIZKUNTZA EUSKARA

EUSKALDUNON PRENTSA EUSKARAZKO PRENTSA

ARGIA

ARGIAREN HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN DEITURAK

Helbidea

Herria Probintzia

Banku edo Aurrezki Kutxa

Sukurtsala

Zenbakia

SINADURA

ARGIA astekaria
Ramonenea etxea, behea.
Virgen del Carmen, z/g
Donostia (12)
T. 28 33 99

3

Gaiak:

Administrazioa eta euskara: itzultzaileak eta arduradunak / Hiztegi Tekniko-Berezituak. UZEIren Hiztegitza / Informazio irabazi eta galerak tetu juridiko batean itzulpenean. Usurbil-ko erriyaren ordenanzak (1888) / Laburtzapena euskaraz. Unesco albistaria eta euskara itzulpena / Itzulpen batzuren orpoz orpo / Itzulpena eta EIMA programa / Itzulpenari buruzko zenbait ariketa / dizkariren berri ematea / Bibliografia: J. TUSON. Lingüística. Una introducción al estudio del lenguaje con textos comentados y ejercicios / HAENSCH, G. - WOLF, L. - ETTINGER, S. - WERNER, R. La lexicografía. De la lingüística teórica a la lexicografía práctica / REINHOLD FREUDENSTEIN, JÜRGEN BENEK and HELMUT PONISCH (eds.). Language Incorporated: Teaching Foreign Languages in Industry / ROTIS / LAV KOCOUREK. La Langue Française de la Technique et de la Science. / Administrazioa euskaraz / Literatur Gazeta / Administrazioko itzultzaileentzat hobekuntza ikastaroa / Rosalía de Castrok ez zuen merezi / Literatur itzultzaileen prestaketarako proposamenak / Hegats-en.